"Azken arau-aldaketa: 2024/01/01"

# Bizkaiko Foru Aldundia 47/2014 FORU DEKRETUA, apirilaren 8koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia onetsi duena (BAO Apirilaren 23koa)

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren bidez erreforma handia egin da pertsona fisikoen tributazioan hainbat printzipio sendotzeko: ekitatea, gehikortasuna, neutraltasuna, gardentasuna eta erraztasuna. Horren ondorioz esfortzu handiagoa eskatuko zaie gaitasun ekonomiko handiko zergadunei.

Pertsona fisikoen tributazioaren erreforma hori osatzeko Zergaren Araudia garatu behar zen, Foru Arauko artikulu batzuetan Zergaren inguruko zenbait gairi buruz ezarri zen bezala. Ondorioz, hauexek dira foru dekretu honen eranskinean onetsitako Araudiaren arau-gaikuntzaren funtsak: Foru Arauan bertan araudiaz egiten diren berariazko aipamenak; Foru Arauko bigarren xedapen gehigarria, Foru Aldundiari ahalmena ematen diona Foru Araua garatzeko eta gauzatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hala ere, foru dekretu hau onetsi baino lehen, eta atxikipenak eta konturako sarrerak egin behar dituztenek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera konturako ordainketei aplikatu beharreko arautegia ahalik azkarren ezagutzeko asmoarekin, beste foru dekretu bi onetsi ziren: 175/2013 Foru Dekretua, abenduaren 10ekoa, lanaren etekinei aplikatu beharreko atxikipen-ehunekoak aldatu dituena, eta 202/2013 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia aldatu duena konturako ordainketei dagokienez.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 13/2013 Foru Arauak jarduera ekonomiko batzuen (besteak beste, nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta baxurako arrantza) etekin garbia kalkulatzeko zenbatespen objektiboaren metodoa ezabatu zuen. Foru Arauko 28. artikuluko 2. idatz-zatian ezarri da arau bereziak ezarri ahal izango direla etekin garbia zuzeneko zenbatespen erraztuaren bidez kalkulatzen duten enpresaburu eta profesionalen gastu kengarri batzuk zenbatzeko.

Horren ildotik, arlo horretako zergadunen segurtasun juridikoa sendotzeko urtarrilaren 28ko 2/2014 Foru Dekretua onetsi da. Horren bidez erregela bereziak ezarri dira lehen sektoreko jarduera ekonomikoen etekin garbiak zuzeneko zenbatespenaren bidez kalkulatzeko, eta erregela horiek araudi honetan sartu dira.

Foru dekretu honek artikulu bat dauka; horrez gainera xedapen gehigarri bat, xedapen indargabetzaile bi eta hiru azken xedapen ere badauzka. Artikulu bakarrak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia onetsiko du. Araudia foru dekretu honen eranskinean dago. Guztira 119 artikulu dauzka zortzi titulutan banatuta, eta horiez gainera 5 xedapen gehigarri eta 6 xedapen iragankor.

Salbuetsitako errentei dagokienez, Bizkaiko administrazio publikoek ematen dituzten laguntzen eta prestazioen zerrenda berrikusi da eta administrazio horiek ematen dituzten prestazio, laguntza eta kalte-ordainei buruz aurkeztu beharko duten aitorpen informatiboan gutxienez zer azaldu beharko den finkatu da.

Lanaren etekinak direla eta, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan muga bat ezarri zaio integrazio-ehuneko murriztuen aplikazioari: aurreikuspen sistemak kapital moduan emandako lehen prestazioari edo kopuruari soilik aplikatu ahal izango zaio ehuneko murriztua. Ildo horretatik, prestazio eta kopuru horiek jasotzeko modu bakoitzari bere tratamendua ezarri zaio Araudian.

Jarduera ekonomiko batzuen etekin garbia kalkulatzeko zenbatespen objektiboaren metodoa aplikatzeko aukera ezabatzeak berekin ekarri du aurreko araudian horretaz zerbait zioten

artikuluak beste era batera antolatu behar izatea. Beste alde batetik, ezabaketa horrek jarduera sektore batzuetako etekinen kalkulurako alternatiba bat arautu beharra ekarri du, eta horregatik Bizkaiko Foru Aldundiak urtarrilaren 28an 2/2014 Foru Dekretua onetsi du eta beraren bidez erregela bereziak ezarri ditu lehen sektoreko jarduera ekonomikoen etekin garbiak zuzeneko zenbatespen erraztuaren bidez kalkulatzeko. Modalitate hau nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako jarduerei eta baxurako arrantzari aplikatuko zaie. Ildo beretik, araudi honetan erregela bereziak ezarri dira salgaien errepidezko garraioaren etekin garbia zuzeneko zenbatespen erraztuaren bidez kalkulatzeko.

Erregela hauen berezitasuna jardueren gastu kengarrien tratamendua da. Nekazaritza, abeltzaintza eta garraioko jardueren etekinen zenbatespenean gastu orokor batzuk kendu daitezke eta horrez gainera beste ehuneko bat frogatzen diren gastuengatik; ostera, basogintzaren eta baxurako arrantzaren etekinen zenbatespenean jardueraren sarreren ehuneko jakin bat baino ez da gastu kengarria.

Beste alde batetik, onetsi berri den Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauak eta zerga horren Araudiak (Bizkaiko Foru Aldundiak abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi duenak) mikroenpresaren kontzeptua ekarri dute eta tratamendu berezia ezarri diote zerga-araubiderako. Horrez gainera amortizatzeko sistema bereziak ezarri dira mikroenpresa, enpresa txiki eta enpresa ertainentzat; sistema horiek aplikatzeko ezinbestekoa izango da zergadunak jarduera ekonomikoren bat egitea eta gainera Arauan eta Araudian ezarritako betekizunak bete beharko ditu. Hori guztian kontuan eduki da araudi honetan, koherentea izan behar baita Zergaren arautegian ezarritakoarekin.

Berrikuntzak sartu dira laguntza teknikoa emateak sortzen dituen kapital higigarriaren etekinez eta ondasun higiezinak, negozioak edo meatzeak errentan edo azpierrentan emanda lortzen direnez; hain zuzen ere, etekin hauen zenbatespenean gastu kengarriek muga edukiko dute: Araudian zehazten den etekin-unitate bakoitzean gastu kengarri guztien baturak ezin du ekarri etekin garbia negatiboa izatea. Gainera tratamendu berezia ezarri da etxebizitzaren azpierrentamenduen etekin zenbatespenerako.

Ondarean gertatzen diren irabazi eta galeretara etorrita, doikuntzak egin dira galera konputaezinen tratamenduan eta ondorioz ondare-galera konputaezintzat hartuko dira zergaldian jokoan izandako galerak, hain zuzen ere zergaldi berean lortutako irabazien gaineko zenbatekoa.

Likidazio-oinarriari dagokionez, Araudian 70. eta 71. artikuluak garatu dira, hau da, gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpen eta kontribuzioengatik aplikatu daitezkeen murrizketei eta beraien mugei buruzkoak. Murrizketa horien mugez denaz bezainbatean, Foru Arauak erretiroa hartu ondoko ekitalditik aurrera gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenengatik eta kontribuzioengatik kenkaria aplikatzeko aukera ezabatu du, eta horregatik erretiroa noiz hartzen den zehaztu beharra egongo da.

Kenkarien esparruan, 2011ko otsailaren 11ko 147/2011 Errege Dekretuak aurrez ikusitako mendekotasunaren kontzeptua garatu da: desgaitasunagatik aplikatzen diren kenkariek osatzeko faktorea izango da.

Foru Arau berriak kenkari berria ezarri du enpresa berri eta sortu berrientzat; kenkari honen helburuak enpresa-ehundura suspertzea da indarberritzea dira. Horrekin batera Foru Ogasunari informazioa eman beharra sortu da, eta araudi honetan garatu da.

Azkenik, kontabilitateko eta erregistroko betebeharrak direla eta, Zergari buruzko Foru Arauak betebehar berria ezarri du: eragiketa ekonomikoen erregistro-liburu berria arteztu beharko da, bai Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren tributaziorako, bai Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tributaziorako. Erregistro-liburu berri hau Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuan arautu da (horren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak arautu dira). Beraz, araudi honetan aintzat hartu behar da dekretu horretan finkatutakoa, nahiz eta ez indargabetu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aurreko araudiko kontabilitateko betebeharrei buruzko artikuluak; izan ere, aldi batez,

eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua arteztu beharrik ez duten zergadunek bertan ezarritakoaren arabera bete beharko dituzte euren kontabilitateko betebeharrak.

Foru dekretu hau izapidetzeko ondokoetan ezarritakoa aplikatu da: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; Bizkaiko Foru Aldundiak generoaren araberako eragina aldez aurretik ebaluatzeaz eman duen Foru Dekretua.

Horregatik guztiagatik, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatu eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2014ko apirilaren 8ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe.

XEDATU DA.

**Artikulu bakarra.**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia onetsi da; foru dekretu honi batu zaio eranskin gisa.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

**Lehenengoa. Indargabetzea.**

Foru dekretu hau indarrean jarritakoan indargabetuta geratuko dira bertan ezarritakoaren kontra dauden maila bereko eta beheragoko mailako xedapen guztiak, batez ere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia onetsi duen azaroaren 20ko 207/2007 Foru Dekretua.

Hori gorabehera, araudi horretako 80-96 bitarteko artikuluek indarrean jarraituko dute jarduera ekonomikoren bat egiten duten zergadun batzuentzat, hain zuzen ere, aldi batez foru dekretu honen bidez onetsitako Araudiko 114. artikuluan aipatzen den eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua arteztu behar ez dutenentzat.

**Bigarrena. Erregelamendu-mailako beste arau batzuen indarraldia.**

Indargabetutako azaroaren 20ko 207/2007 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren Araudia garatzeko emandako erregelamendu-mailako arauek indarrean jarraituko dute, foru dekretu honen bidez onetsitako Araudian ezarritakoaren kontra ez dauden heinean, harik eta onetsitako Araudia garatzeko ematen diren erregelamendu-arauak indarrean jarri arte.

## AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa. Indarrean jartzea.**

1. Foru dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

2. Foru dekretu honen bidez onetsitako araudiko xedapenek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondoreak.

**Bigarrena. Araudiari buruzko aipamenak.**

Azaroaren 20ko 207/2007 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaz foru arautegian egiten diren aipamen guztiak foru dekretu honetako manuei buruzkoak direla pentsatu behar da.

**Hirugarrena. Gaikuntza.**

Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari baimena eman zaio foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

# PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN ARAUDIA ONETSI DUEN FORU DEKRETUA-ERANSKINA

## I. TITULUA.
## ARAUBIDE BEREZIAK.

### I. KAPITULUA
### LURRALDERA LEKUALDATUTAKO LANGILEEN ARAUBIDE BEREZIA

#### 1. artikulua. Lurraldera lekualdatutako langileen araubide bereziaren edukia.

1. Zergaren Foru Arauaren 56.bis.1.a) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, kualifikazio bereziko lanak izango dira indarrean dagoen araudiaren arabera Gizarte Segurantzaren araubide orokorraren 1. kotizazio-taldeko kategoria profesionala duten langileek egiten dituztenak, zuzenean eta nagusiki hurrengo zenbakian aipatzen diren jarduerekin lotuta daudenak.

   Zergaren Foru Arauaren 56.bis artikuluaren 3. eta 4. zenbakietan aipatzen diren kasuetan, zenbaki honetan ezartzen den baldintza betetzat joko da zergadunak egiten dituen lanak Gizarte Segurantzaren araubide orokorraren 1. kotizazio-taldeko lanbide-kategorietako lanen baliokideak direnean.

2. Kapitulu honetan aipatzen den araubide berezia aplikatu ahal izateko, zergadunak honako jarduеretako batean eman behar du bere lanaldiaren %85 gutxienez:

   a) Ikerketa eta garapenerako jarduerak.

   b) Jarduera zientifikoak eta teknikoak.

   c) Finantzen arloko jarduerak.

   d) Antolaketa-jarduerak.

   e) Gerentzia-jarduerak.

   f) Kontrol ekonomiko eta finantzariorako jarduerak.

   g) Merkataritzako jarduerak.

3. Kapitulu honetako araubide bereziaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira kontuan:

   a) Ikerketa eta garapeneko jarduerak Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauak 62.2 artikuluan xedatzen duenarekin bat datozenak dira.

   b) Jarduera zientifikoak eta teknikoak honako hauek dira:

      1. Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 63.2 artikuluan xedatzen duenarekin bat datozenak.

      2. Garapen jasangarriaren eta ingurumena babestu eta hobetzearen eremuko proiektuekin zerikusia dutenak, baldin eta Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 65.2.b) artikuluko a’) - e’) bitarteko letretan adierazten diren xedeetako bat badute.

3. Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduak (EB) 2. 80.a) artikuluan ezartzen dituen baldintzak (atal horretan adierazitako produktu, zerbitzu eta prozesuen garapenarekin zerikusia dutenak) betetzeagatik enpresa berritzailetzat hartzen diren entitateentzat egiten direnak.

4. Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 53.2 artikuluko c) letran aipatzen den helburua (enpresa sustatzea eta ekoizpen-jarduera sendotzea) betetzen duten entitateentzat egiten direnak.

   Bereziki, helburu hori betetzen duten enpresatzat hartuko dira enpresa proiektu garrantzitsuak egiten dituztenak, jarduera, produktu edo merkatu berriak garatzea, dauden batzuk handitzea edo finkatzea edo enplegu egonkorrak ekartzen badituzte.

   Ondorio horietarako, langileak lan egiten duen entitateak justifikatu egin beharko du bete egin duela bere jardueraren ondorioz enpresak sustatzeko eta produkzio-jarduera indartzeko helburua.

5. Enpresa-proiektu berri bat egiteko hasierako fasean edo garapen-fasean dauden entitateentzat egiten diren jarduerak, betiere hazteko ahalmen handia duten mikroenpresak edo enpresa txiki edo ertainak badira.

c) Finantzen arloko jarduerak direla-eta, finantza-entitateentzat edo finantza-arloan era guztietako entitateentzat eginiko lanak izango dira; kasu bietan, entitateek iraunkortasunari edo kudeaketa ez-finantzarioaren egoerari buruzko txosten bat eduki behar dute argitaratua, aditu independente batek egiaztatua.

   Informazio hori ematean, enpresek hauek izan behar dituzte oinarri: esparru nazionalak, Europan Batasunaren esparruak, nazioarteko esparruak (esaterako, Nazio Batuen Munduko Ituna), enpresei eta giza eskubideei buruzko printzipio gidariak, Nazio Batuen esparruan “babestu, errespetatu eta konpontzeko” praktikan jartzeko direnak, enpresa multinazionaletarako Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) gidalerroak, Estandarizaziorako Nazioarteko Erakundearen (ISO) 26000 araua, Enpresa multinazionalei eta gizarte- politikari buruzko Hiru Aldeko Printzipio Adierazpena, Lanaren Nazioarteko Erakundearena; Iraunkortasun-txostenak aurkezteko Munduko Ekimena, GRIrena (GRI Sustainability Reporting Standards); eta onartuta dauden nazioarteko beste esparru batzuk.

   Aurrean aipatutako iraunkortasunari edo kudeaketa ez-finantzarioaren egoerari buruzko txostena zergadunak artikulu honetan aipatzen den araubidea aplikatzen duen urte bakoitzean egin behar da.

4. Zergaren Foru Arauaren 56 bis.2.b) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek izango dira lekualdatzearen ondoriozko gastu kengarriak:

a) Zergaduna eta beraren familia-unitateko kideak Bizkaian finkatzeko beharrezkoak diren bidaia-gastuak eta etxe-aldaketako gastuak. Gastu hauetan onartuko dira jatorrizko herrialdera egiten diren bidaiek eragiten dituzten gastuak, honako muga honekin: bi bidaia urtean. Hori dela-eta, zenbateko kengarria Bizkaitik jatorrizko herrialdera joateko erabiltzen den garraiobidearen prezioa izango da.

b) Zergadunaren ondorengoak, Zergaren Foru Arauaren 79. artikuluan arautzen den kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen diotenak, Bizkaian eskolaratzeak eragiten dituen gastuak.

c) Zergadunak edo beraren familia-unitateko beste kideek .euskara edo gaztelania ikasteko egiten dituzten ikastaroen gastuak.

d) Zergadunak Bizkaian duen ohiko etxebizitzaren errentamenduaren gastuak, eta hango zerbitzuak edo hornidurak kontratatzeko gastuak.

### 2. artikulua. Araubide aplikatzeko eskubidea frogatzea.

1. Kapitulu honetako araubidea aplikatzea hautatzen den aitorpenarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

    a) Espainiako enplegatzaile batekin lan-harremana, arrunta edo berezia, edo estatutupeko harremana hasten denean, enplegatzaileak emandako ziurtagiria, honako hau adierazten duena: zergadunarekin lan-harremana edo estatutupekoa duela; aurreko artikuluan ezarritako betekizunak betetzen direla; jardueraren hasiera-eguna, Espainiako Gizarte Segurantzako altan jasota dagoena; lantokia eta haren helbidea; lan-kontratuaren iraupena; lana benetan Espainian egingo dela.

    b) Lekualdaketa enplegatzaileak agintzen duenean zerbitzuak egiteko egoitza Espainian daukan enpresa edo entitate bati edo Espainiako establezimendu iraunkor bati, horrek emandako ziurtagiria (lekualdatzeko aginduaren gutunaren kopia erantsita), honako hau adierazten duena: zergadunak zerbitzua egin duela eta zerbitzu-lanetan aurreko artikuluan ezarritako baldintzak bete dituela; jardueraren hasiera-eguna, Espainiako Gizarte Segurantzako altan edo jatorrizko herrialdeko gizarte segurantzaren legeria mantentzeko behar den dokumentazioan jasota dagoena; lantokia eta haren helbidea; lekualdatzeko aginduaren iraupena; lana benetan Espainian egingo dela.

       Halaber, jatorrizko herrialdeko Gizarte Segurantzaren legedia mantentzen denean, egiaztatu beharko da langilearen lanbide-kategoria Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko 1. kotizazio-taldean jasotakoen baliokidea dela.

    c) Zergaren Foru Arauaren 56.bis artikuluko 3. zenbakiko azken paragrafoan eta 4. zenbakian aipatzen diren zergadunek araubide berezia aplikatzeko baldintzak betetzen dituztelako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute.

2. Artikulu honetan xedatzen denerako, zergaduna Espainiako lurraldean noiz sartu den adierazi beharko da beti.

### 3. artikulua. Hautapena.

Egoitza Espainiako lurraldera 2022ko urtarrilaren 1az gero aldatzen duten zergadunek lurraldera lekualdatutako langileen araubide berezia (Zergaren Foru Arauaren 56.bis artikuluan arautzen dena) aplikatzea hautatu ahal izango dute artikulu horren 1. zenbakian aipatzen diren zergaldietako edozeinetan.

Hala ere, egoitza Espainiako lurraldera aldatzen duten urtean araubide berezia aplikatzea hautatzen ez duten zergadunek muga bat edukiko dute ondoko urteetan aplikatzeko: araubide berezia aplikatu ahal izatea eragiten duen egoitza-aldaketa (Espainiako lurraldera aldatzea) gertatu ondoko 10 zergaldietara iristeko falta diren zergaldietan baino ezin izango dute aplikatu.

Artikulu honen lehen paragrafoan xedatzen denaren ondorioetarako, eta Zergaren Foru Arauaren 105. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz, zergadunak lurraldera lekualdatutako langileen araubide berezia aplikatu nahi duen ekitaldi bakoitzeko aitorpena aurkeztean egin behar du horren aldeko hautapena, araudi honen 77. artikuluan ezartzen dena gorabehera.

## II. KAPITULUA.
## ORDAINSARI ESPEZIFIKOAK EKINTZAILETZAREN ESPARRUAN.

### 4. artikulua. Ordainsari espezifikoak ekintzailetzaren esparruan.

Zergaren Foru Arauaren 56 quater artikuluaren 3. zenbakian ezartzen den partaidetza-ehunekoaren baldintza ez da joko ez betetzat partaidetza-ehunekoan gertatu den murrizketaren eragilea denean ekintzaileak ez hartzea parte entitatearen jardueraren gorakadaren arabera hurrengo finantzaketa-saioetan egiten diren kapital-gehikuntzetan, baldin eta entitateak bere esku mantentzen baditu gutxienez kapitalaren % 10eko partaidetza adierazten zuten akzio edo partaidetza guztiak.

**5. artikulua Araubidetik bazter geratze.**

…

**6. artikulua. Zerga Administrazioarentzako berri-ematea eta araubidea egiaztatzea.**

…

## II. TITULUA
## SALBUETSITAKO ERRENTAK

**7. artikulua. Langilea kaleratzeagatik edo lana utzarazteagatik ematen diren kalte-ordainak.**

Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluko 5. zenbakian ezarritako salbuespena aplikatzeko ezinbestekoa da langileak inolako loturik ez edukitzea enpresarekin.Kontrakoaren frogarik izan ezean, honako kasu honetan pentsatuko da langileak enpresarekin lotura daukala: baldin eta kaleratu edo lanari utzarazi ondoko hiru urteetan berriz ere enpresa berari, edo harekin lotutako beste enpresa bati (lotura Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko 3. zenbakian ezarritakoaren araberakoa izan behar da) zerbitzuak ematen hasi bada.

Salbuetsitako gehieneko kopurua, 180.000 euro, langilearen laneratze edo lan-utzarazpen bakoitzeko aplikatuko da, kalte-ordaina ordaintzeko modua gorabehera.

**8. artikulua. Salbuespena: giza eskubideen defentsaren eta sustapenaren, literaturaren, arteen eta zientzien inguruko sari garrantzitsuak.**

1. Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluko 8. zenbakian ezarritako salbuespena ondoko sariei aplikatuko zaie:

   a) Giza eskubideen defentsaren eta sustapenaren inguruko sari garrantzitsuei; honelakotzat hartuko da Bizkaiko Lurralde Historikoko herri-erakundeek ondasun edo eskubideak ematea pertsona bati edo gehiagori giza eskubideen defentsaren eta sustapenaren alde egindako lana saritzeko edo aitortzeko, xedea Bizkaia zuzenagoa eta kohesionatuagoa izatea bada.

   b) Literaturaren, arteen edo zientzien inguruko sari garrantzitsuei; honelakotzat hartuko da pertsona bati edo gehiagori ondasunak edo eskubideak kontraprestaziorik gabe ematea literaturako, arteetako edo zientzietako lanen balioaren edo arlo horietako jardueraren edo lanaren merezimenduaren ordain edo aintzatespen gisa.

2. Sari-emaileak ezin ditu saritutako lanak ekonomikoki ustiatu.

   Zehazki, sariak ezin du eragin saritutako lanaren edo lanen gaineko jabetza-eskubideen lagapenik ez mugaketarik (jabetza intelektuala eta industria-jabetza barne).

   Lana jendaurrean aurkezten bada irabazteko asmorik gabe sei hilabete baino aldi laburragoan, aurreko baldintza ez da joko ez betetzat.

3. Nolanahi ere, salbuespena aplikatzeko ezinbestekoa da saria deialdia egin aurretik egindako lan edo jarduerengatik jasotzea.

   Bekak eta laguntzak ez dira sari salbuetsiak, ez eta, oro har, artikulu honetako 1. idatz-zatian aipatutako arloetako obra edo lanak aurretik edo aldi berean finantzatzeko kopuruak ere.

4. Deialdian ondoko baldintza hauek bete behar dira:

a) Parte hartzen dutenei ez zaie ezarri behar inolako mugarik sariaren berezko funtsarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik.

b) Iragarkia «Estatuko Aldizkari Ofizialean», deialdia egiten duen autonomia erkidegoaren aldizkari ofizialean edo lurralde historikoetako baten aldizkari ofizialean argitaratu behar da.

Salbuespena lortzeko, atzerriko deialdietako edo nazioarteko erakundeen deialdietako literaturako, arteetako eta zientzietako sariek idatz-zati honetako a) letran ezarritako betekizuna bakarrik bete behar dute eta, gainera, saria garrantzitsua dela eta iragarkia zabaldu dela frogatu behar dute.

5. Salbuespena Zerga Administrazioak adierazi behar du. Adierazpena, baina, eskatu egin behar da, eta horretarako aurreko idatz-zatietan ezarritako betekizunak betetzen direla frogatzen duten agiriak aurkeztu behar dituzte ondoko hauek:

a) Oro har, sariaren deialdia egin duen pertsonak edo erakundeak.

b) Lurralde Historikotik kanpo deitzen diren artikulu honetako 1. idatz-zatiko b) letran aipatzen diren sarien kasuan, saria jasotzen duen pertsonak.

Eskaera saria eman aurretik egin behar da edo, bestela, b) letrako kasuan, saria lortu den ekitaldiko autolikidazioa aurkezteko arauzko epealdia hasi baino lehen.

Espedientea ebazteko beharrezkotzat jotzen diren txostenak eskatu ahal izango dira.

Prozeduraren ebazpena sei hilabete pasatu baino lehen jakinarazi behar da. Epealdi horretan ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera ezetsitzat jo ahal izango da.

Adierazpenak ondoko beste deialdietarako ere balioko du, baldin eta salbuespena onartzeko kontuan hartu beharreko ezer aldatzen ez bada.

Ondoko deialdi batean salbuespena aplikatzeko kontuan eduki beharreko zerbait aldatzen bada, edo ezinbesteko betekizunetako bat betetzen ez bada, Zerga Administrazioak adieraziko du zergadunak salbuespena aplikatzeko eskubide galdu duela aldaketa gertatu denetik edo betekizuna betetzeari utzi zaionetik.

Aurreko 1. idatz-zatiko b) letrako sariei dagokienez, beste zerga administrazioek adierazitako salbuespenek ondoreak sortuko dituzte Lurralde Historikoan.

6. Zerga Administrazioak adierazten badu sari bat salbuetsita dagoela, aurreko 5. idatz-zatiko a) letran aipatzen diren pertsonek eta erakundeek ondoko datuen berri eman behar diote Zerga Administrazioari saria eman eta hurrengo hilaren barruan: zein egunetan eman den, zer sari eman den eta nortzuek jaso duten saria (identifikazio-datuak).

Salbuespena hurrengo deialdietan aplikatu ahal izateko nahikoa izango da aurreko paragrafoan aipatutako berri-ematea aurkeztea, sariaren deialdiaren oinarrien ale bat erantsita daukala; kasu batzuetan gerta liteke artikulu honetako 4. idatz-zatiko b) letran ezarritako baldintza betetzen dela frogatzen duen agiria ere aurkeztu behar izatea.

**9. artikulua. Salbuespena: kirolarientzako laguntza ekonomikoak.**

Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluko 15. zenbakian ezarritakoari dagokionez, kirolarientzako laguntza ekonomikoak salbuetsita daude, urtean 60.100 euro gehienez, ondoko baldintza biak betetzen dituzten prestakuntza-programetara doituta badaude:

a) Onuraduna maila handiko kirolaritzat onartuta egotea aplikatu beharreko legeriaren arabera.

b) Programa kirolaren arloko eskumenak dituzten erakundeek finantzatzea, zuzenean zein zeharka.

**10. artikulua. Salbuespena: nazioarteko bake misio edo misio humanitarioetan parte hartzeagatik jasotzen diren aparteko haborokinak eta prestazio publikoak.**

Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluko 16. zenbakian ezarritakoari dagokionez, nazioarteko bake misio edo misio humanitarioetan dihardutenei ordaintzen zaizkien diru kopuru publiko batzuk salbuetsita daude, ondoko hauek, hain zuzen ere:

a) Nazioarteko bake misioetan edo misio humanitarioetan aritzeagatik jasotzen diren aparteko haborokinak, denetarikoak.

b) Nazioarteko bake misioetan edo misio humanitarioetan jasandako gaitz fisiko edo psikikoengatik jasotzen diren kalte-ordainak eta prestazioak.

**11. artikulua. Salbuespena: atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren etekinak.**

1. Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluko 17. zenbakian ezarritakoari dagokionez, atzerrian egindako lanaren etekinak Zergaren kargatik salbuetsita daude, ondoko hauek betez gero:

   1.a. Lana Espainian egoiliar ez den enpresa edo erakunde batentzat egitea, edo egoitza atzerrian daukan establezimendu iraunkor batentzat. Bereziki, lanak hartzen dituen erakundeak lotura badauka langilea enplegatzen duen erakundearekin edo langilea zerbitzuan ari den erakundearekin, lanak egoiliar ez den erakundearentzat egintzat joko dira kasu honetan: baldin eta, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 44. artikuluko 1. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, zerbitzuak erakunde hartzaileari abantaila edo onuraren bat ekarri diola edo ekar diezaiokeela eta egoiliar ez den erakundeari talde barneko zerbitzua eman zaiola pentsatu badaiteke.

   2.a. Lanak egiten diren lurraldean zerga hau bezalako edo antzeko zerga bat aplikatzea, eta herrialde edo lurralde hori zerga-paradisua ez izatea. Azken betekizuna betetzat joko da lanak egin diren herrialdeak edo lurraldeak Espainiarekin sinatuta badauka nazioarteko zergapetze bikoitza ekiditeko hitzarmena eta hitzarmen horrek informazioa trukatzeko klausula badauka.

2. Salbuespenak gehieneko muga dauka: 60.100 euro urtean. Atzerrian egindako lanen ordainsariak kalkulatzeko kontuan hartu behar da langileak benetan zenbat egun eman dituen atzerrian, bai eta atzerrian egindako zerbitzuen berariazko ordainsariak zein diren ere.

   Atzerrian egindako lanengatik egunean sortu diren etekinen zenbatekoa kalkulatzeko, lan horiei dagozkien berariazko ordainsari bereziez aparte, banaketarako irizpide proportzionala erabiliko da, urtearen egun kopuru osoa kontuan hartuz.

3. Atzerrian ari diren zergadunek ezin dute bateratu salbuespen hau Zergaren kargatik salbuetsita dauden gaindikinen araubidearekin (araudi honetako 13. artikuluko A) letrako 3. zenbakiko b) letra), zenbatekoa gorabehera.

4. Zergadun bakoitzak hautatu beharko du salbuespen hau edo gaindikinen araubidea aplikatzea, hautatutakoa aplikatzea nahi duen ekitaldiko aitorpena aurkeztean. Zergaldi baterako egindako hautaketa aldatu ahal izango da gerora, zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitzen den egunera arte.

**12. artikulua. Sektore publikoaren laguntza publikoen salbuespena.**

1. Zergaren Foru Arauak 9. artikuluaren 27. zenbakian ezartzen duenari dagokionez, kargatik salbuetsita daude sektore publikoak jarraian azalduko diren arautegien eta programen edo laguntza-planen bidez (edo beren ordezkoen bidez) ematen dituen laguntza publikoak.

a) 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzkoa.

b) 3/2002 Legea, martxoaren 27koa, ikastoletan juridikoki normalizatu aurretik irakasle jardun zutenen aintzatespenari eta haientzako konpentsazioei buruzkoa.

c) 124/2005 Dekretua, maiatzaren 31koa, euskal kooperatzaileei Garapenerako Lankidetza eta Laguntzarako Funtsaren kargura emango zaizkien laguntzak araupetu dituena.

d) 30/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena.

e) Eusko Jaurlaritzaren 164/2019 Dekretua, urriaren 22koa, Familia eta Lana Bateragarri Egiteko Laguntzei buruzkoa.

f) 262/2003 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, gizarteratzeko zentroetan sartzeko eta horretarako banako laguntza ekonomikoak jasotzeko baldintzak ezarri dituena.

g) Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legeko 9. artikuluko 2. zenbakian ezarritako etxebizitzarako prestazio ekonomikoa.

   Horrez gainera, salbuetsita egongo dira Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuaren 2018ko abenduaren 18ko Aginduan etxebizitzaren alokairurako ezarrita dauden dirulaguntzak; agindu horren bidez, etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautzen dira eta deialdia egiten da.

h) Agindua, 2010eko urriaren 6koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitzak erosteko finantza-neurriei buruzkoa.

i) Agindua, 2021eko uztailaren 21ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitzen eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoa.

j) 60/2011 Foru Dekretua, martxoaren 22koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, gizarte inklusiorako laguntza berezia arautzen duena.

k) Bizkaiko Foru Aldundiaren 113/2016 Foru Dekretua, ekainaren 21ekoa, mendetasun-egoeran dauden adinekoak eguneko zentroetan sartzeko sistema eta dagozkien banakako laguntza ekonomikoak arautzen dituena.

l) 90/2010 Foru Dekretua, ekainaren 29koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, zeinaren bitartez arautzen baita mendetasuna duten pertsonentzako foru egoitzen zerbitzuari loturiko prestazio ekonomikoa.

m) 196/2005 Foru Dekretua, abenduaren 7koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, emakumeak hartzen dituzten zentroetan sartzeko baldintzak eta horretarako banakako laguntza ekonomikoak araupetu dituena.

n) 77/2009 Foru Dekretua, maiatzaren 12koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, 2009an zehar etorkizun handiko kirolarientzako diru-laguntzak nola eman arautzen zuena.

o) Ibilgailu berriak erosten laguntzeko 2000 E eta MOTO E Plana, 2000 Euskadi Plana eta xede berarekin ezartzen dituztenak gainerako autonomia erakundeek edo xede berarekin ordezten dituztenak.

p) + Euskadi 09 Plana, bertan jasotako Renove planei dagokienez (leihoetarakoa, elektrotresnetarakoa, galdaretarakoa, aurrezpen energetiko handiko turismoetarakoa eta altzarietarakoa), bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzen eta eraikinen

birgaikuntza eraginkorrerako Renove Plana, eta aurrerantzean plan horiek xede berarekin ordezten dituzten beste planak.

q) Sektore publikoak ondasunak edo instalazioak berritzeko ematen dituen beste laguntza publiko batzuk, aurreko o) eta p) zenbakietan adierazitako laguntzen xede bera dutenak.

r) 199/2013 Foru Dekretua, abenduaren 17koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, bide azpiegituren sareko atal batzuetako bidesarien zenbatekoak eguneratu dituena.

s) 191/2013 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, abenduaren 10ekoa; honen bitartez Herri Lan eta Garraio Sailak Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren AP-8 autobidearen Bizkaiko tartearen (Usansolo 106+040 k.g. - Gipuzkoako muga 74+880 k.g.) erabiltzaileei (pertsona fisikoak) lehia askearen araubidean diru-laguntzak emateko deialdia eta oinarri arautzaileak onetsi ziren.

t) Bizkaiko kultur txartela 2013 programa.

u) Agindua, 2021eko irailaren 7koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita EAEko gaueko aisialdiko establezimenduen titularrei zuzendutako laguntza-programa, eta haren deialdia egiten baita.

v) Bizkaiko Foru Aldundiak Europar Batasunarekin zerikusia duten gaietan espezializatzeko ikasketak egiteko emandako laguntzak, London School of Economics and Political Science zentroaren programa bereziaren barrukoak.

w) Eusko Jaurlaritzaren 447/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzekoa.

x) Agindua, 2017ko azaroaren 8koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita nazioartekotze-beken BEINT programa, eta EBAZPENA, 2019ko apirilaren 8koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen eta argitaratzen baitira «Beint nazioartekotze-bekak» laguntza-programa arautzen duten oinarriak, eta beketarako deialdia egiten baita.

y) Eusko Jaurlaritzak Oxford, Cambridge eta Glasgowko unibertsitateetara doazen ikertzaile bisitarientzako ematen dituen laguntzak.

z) Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko apirilaren 30eko Aginduan xedatutakoaren bidez emandako laguntzak. Agindu horren bidez, COVID-19 birusak eragindako osasun-krisiaren ondoriozko kalteberatasun ekonomiko eta sozialeko egoerei aurre egiteko etxebizitza libreak alokatzeko laguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten da.

a') Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko martxoaren 31ko Aginduan xedatutakoaren bidez emandako laguntzak. Agindu horren bidez arautzen dira alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuen arloan COVID-19 birusaren inpaktu ekonomikoari erantzuna emateko hartu beharreko neurriak.

b') Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2020ko apirilaren 8ko Aginduan xedatutakoaren bidez emandako laguntzak. Agindu horrek familientzako laguntzen arloko neurri zehatzak arautzen ditu COVID-19aren inpaktu ekonomikoari erantzuteko.

c') Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2020ko uztailaren 28ko Aginduan jasotzen den dirulaguntza-programaren onuradunei emandako laguntzak. Agindu horren bidez, arautu eta deitzen da Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko «Euskadi Bono-Comercio / Euskadi Saltoki-Bonua» programa. Haietaz gainera, Eusko Jaurlaritzaren, Araba eta

Bizkaiko foru-aldundien, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen eta Bilboko eta Vitoria-Gasteizko udalen arteko hitzarmenaren barruan edo foru- edo udal-programen esparruan antzeko xederako emango diren veste batzuk.

d') Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2020ko uztailaren 28ko Aginduan jasotzen den dirulaguntza-programaren onuradunei emandako laguntzak. Agindu horren bidez, arautu eta 2020rako deitzen da Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-, sukaldaritza- eta ostalaritza-sektoreetako establezimenduetan kontsumoa sustatzeko «Euskadi Turismo Bonua» programa. Haietaz gainera, Eusko Jaurlaritzaren, hiru foru-aldundien, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen eta EAEko hiriburuen arteko jarduketako protokolo orokorraren esparruan edo foru- edo udal-programen esparruan antzeko xederako emango diren beste batzuk emango diren beste batzuk

e') «Bizkaia Aurrera Kultura Bonua» programa.

f') HABEren zuzendariaren ebazpen honetan (edo xede berarekin ordezten duten ebazpenetan) ezartzen diren laguntzak: Ebazpena, 2021eko uztailaren 7koa, HABEko zuzendariarena, 2020-2021 ikasturtean HABEren komunikagaitasun- mailak euskaltegiko edo autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ebaluazioan mailaren atalasea gaindituz, edota egiaztatzegintzaren eremuko deialdietan euskara-mailak edo baliokideak gainditu dituzten ikasleei dirulaguntzak emateko prozedura eta baldintzak, eta dagokion deialdia egiten dituena.

Halaber, salbuetsita egongo dira sektore publikoko beste erakunde batzuek xede bererako ematen dituzten laguntzak, aurreko paragrafoan aipatzen den ebazpenean ezartzen diren baldin berak edukiz gero.

2. Halaber, salbuetsita daude beste lurralde historikoek salbuetsitzat jotzen dituzten antzeko laguntzak.

# III. TITULUA
# ERRENTAREN ZEHAZTAPENA

## I. KAPITULUA
## LANAREN ETEKINAK

### 13. artikulua. Joan-etorri gastuetarako eta mantenu eta egonaldiko gastu arruntetarako sariak eta kopuruak.

**A. Erregela orokorrak.**

1. Lanaren etekintzat hartuko dira bidai gastuetarako sariak eta esleipenak, salbu eta joan-etorrikoak, eta ostalaritzako establezimenduetako mantenu eta egonaldirako arruntak direnak, baldin eta artikulu honetan adierazitako betekizun eta mugak betetzen badituzte.

2. Joan-etorri gastuetarako esleipena.

   Kargatik salbuetsita daude enpresak edo enplegatzaileak lantegi, lantoki, bulego edo laneko zentrotik kanpora joan behar duen enplegatuaren edo langilearen joan-etorri gastuak konpentsatzeko erabiltzen dituen kopuruak, ondoko baldintza hauek betetzen badira:

   a) Enplegatuak edo langileak garraiobide publikoak erabiltzen baditu, faktura baten bidez edo antzeko agiri baten bidez frogatzen den gastuaren zenbatekoa.

   b) Bestelakoetan, ondoko kopurua izango da: 0,29 euro zenbatuko da egindako kilometro bakoitzeko, betiere, frogatu behar da joan-etorria egin dela, gainera, bidesari eta aparkalekuaren zioz frogatzen diren gastuak zenbatuko dira.

3. Mantenu eta egonaldirako gastuetarako esleipenak. Enpresak edo enplegatzaileak jatetxe, hotel eta ostalaritzako gainerako establezimenduetako mantenu eta egonaldiaren ziozko gastu arruntak konpentsatzeko erabiltzen dituen diru-kopuruak kargatik salbuetsiko dira, baldin eta diru-kopuru horiek hartzailearen ohiko lanlekutik eta haren egoitzatik kanpoko beste udalerri baten egindako gastuengatik sortu badira.

   Hurrengo b) letran ezarriko diren kasuetan izan ezik, jarraiko bederatzi hilabete baino aldi luzeagoan egindako joan-etorrietan eta egonaldietan esleipen horiek ez dira egongo Zergaren kargatik salbuetsita. Horretarako, oporraldiak, gaixoaldiak eta destinoa aldatzea ez dakarten bestelako inguruabarrek irauten duten aldiak ez dira deskontatuko.

   a) Honako hauek bakar-bakarrik joko dira hotel, jatetxe eta ostalaritzako gainerako establezimenduetako mantenu eta egonaldiko gastu arruntetarako esleipentzat:

      1.a. Gaua ematen denean ohiko lanlekua eta hartzailearen egoitzakoa ez beste udalerri baten, ondokoak izango dira:

         - Egonaldi-gastuengatik, frogatzen diren kopuruak. Salgaien errepidezko garraioan ari diren gidariek ez dute zertan frogatu eguneko 15 eurotik beherako egonaldi-gastuak, Espainiako lurraldearen barruan, edo eguneko 25 eurotik beherakoak, bidaia atzerrira denean.

         - Mantenu-gastuengatik, 53,34 euro egunean, bidaia Espainiako lurraldearen barruan egin bada, edo 91,35 euro egunean, bidaia atzerrira egin bada.

      2.a. Gaua ematen ez denean ohiko lanlekua eta hartzailearen egoitzakoa ez beste udalerri baten, orduan mantenu-gastuetarako esleipenak izango dira, baldin eta 26,67 edo 48,08 eurotik gorakoak ez badira egunean, joan-etorria Espainiako lurraldearen barruan edo atzerrian izan, hurrenez hurren.

      Hegazkin konpainietako hegazkin-langileen kasuan, mantenurako gastu arruntetarako esleipen gisa hartuko dira eguneko 36,06 euro arteko zenbatekoak, bidaia Espainiako lurraldearen barruan egin bada, edo eguneko 66,11 euro artekoak, bidaia atzerrira egin bada. Egun berean bi inguruabarrak gertatzen badira, egindako hegaldi kopuru handiagoaren arabera egokitzen den zenbatekoa aplikatu beharko da.

      Aurreko paragrafoetan adierazitakoari dagokionez, ordaintzaileak joan-etorria zer egunetan eta non gertatu den frogatu behar du, eta arrazoia zehaztu.

   b) Ondoko kopuru hauek Zergaren kargatik salbuetsitako saritzat joko dira:

      1.a. Espainiako funtzionario publikoek, destinoa atzerrian dutenek, indarrean dirauen legeria ezartzearen ondorioz eta zerbitzuaren ziozko kalte-ordainei buruzko maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuko 26. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritako kalte-ordaina dela eta destinoa Espainian izanez gero lortuko lituzketen ordainsari guztien gainean jasotzen duten gaindikina.

      2.a. Herri Administrazioaren zerbitzupeko langileek, destinoa atzerrian dutelarik, destinoa Espainian izanez gero soldata, hirurteko, osagarri edota pizgarrien zioz lotuko lituzketen ordainsari guztien gainean hartzen duten gaindikina. Horretarako, ordainsarien arloan eskumena duen organoak erabakiko ditu langile horiek destinoa Espainian izanik jasoko lituzketen ordainsarien parekatzeak.

      3.a. Beste herri administrazio batzuen zerbitzupeko funtzionarioek eta langileek hartzen duten gaindikina, baldin eta haren helburua destinoa atzerrian duten funtzionarioen ordainsarien araubidea arautzen duen urtarrilaren 13ko 6/1995 Errege Dekretuko 4., 5. eta 6. artikuluetan araututakoa bada, edo ordainsarien parekatzea baino gehiago ez bada, hurrenez hurren.

Modu berean tratatuko dira Euskadiren atzerriko ordezkaritzetan ari diren euskal administrazio publikoaren zerbitzupeko funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen gaindikinak.

4.a. Enpresetako enplegatuek, destinoa atzerrian dutenek, destinoa Espainian izanez gero lortuko lituzketen ordainsari guztien gainean hartzen duten gaindikina, betiere, ordainsari horiek honako hauek direla-eta jaso behar dituzte: soldatak, lansariak, antzinatasuna, aparteko ordainketak -mozkinenei dagokiena barne-, familia laguntza edo beste edozein kontzeptu.

Letra honetan ezarritakoa ezin da bateratu atzerrian egindako lanaren etekinetarako salbuespenarekin (araudi honetako 11. artikulua).

4. Aurreko idatz-zatietan ezarritako araubidea ere joan-etorri, mantenu eta egonaldi gastuetarako esleipenei ezarriko zaie, baldin eta esleipenok hartzen badituzte langileei, hauek beren beregi kontrataturik daudelarik euren zerbitzuak lantoki mugikor edo ibiltariak dituzten enpresetan egiteko, eta esleipen horiek badagozkie langilearen ohiko egoitzako udalerrian ez beste batera egindako lekualdaketei.

5. Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak artikulu honetan Zergaren kargatik salbuetsitako zenbatekoak berrikus ditzake.

6. Artikulu honetan ezarritako mugen gaineko joan-etorri, mantenu eta egonaldi gastuetarako kopuruak kargapean izango dira lanaren etekin gisa.

**B. Erregela bereziak.**

1. Enpresek beren beregi ordaintzen ez badizkiete joan-etorri eta mantenu gastuak zerbitzuak egiten dizkietenei, orduan menpeko lan harreman berezien ondorioz lanaren etekinak lortzen dituzten zergadunek sarrerak gutxitu ahal izango dituzte euren etekin garbiak zehaztean, baldin eta joan-etorriak egin dituztela frogatzen badute. Hona kopuruak:

   a) Joan-etorrien gastuak:

      - Garraiobide publikoa erabiliz gero, faktura baten bidez edo agiri baliokide baten bidez frogatzen den gastuaren zenbatekoa.

      - Bestelakoetan, 0,29 euro egindako kilometro bakoitzeko, gehi frogatzen diren bidesariak eta aparkaleku-gastuak.

   b) Mantenu-gastuak: joan-etorria Espainiako lurraldearen barruan bada, 26,67 euro egunean; atzerrira bada, 48,08 euro egunean.

   Hori dela eta, egonaldi-gastuak nahitaez ordaindu behar ditu enpresak, eta artikulu honetako A) letrako 3. idatz-zatiko a) letran ezarritakoak eraenduko ditu.

2. Kargatik salbuetsita egongo dira zergadunari lanpostua beste udalerri batera aldatzeagatik ordaintzen zaizkion kopuruak, baldin eta, batetik, lekualdaketa horrek egoitza aldatzea badakar eta, bestetik, kopuruok zergadunak eta beraren senidek lekualdaketan egin beharreko joan-etorrietarako eta mantenu gastuetarako eta altzari eta tresnak lekutik aldatzeko badira.

3. Zergaren kargatik salbuetsita daude hautesmahaietako kideek jasotzen dituzten kopuruak, aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren arabera.

4. Zergari buruzko Foru Arauko 60. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letran xedatutakoari dagokionez, zergadunak hautatu ahal izango du enplegatuei gauzatan ordaindutako zenbatekoa kalkulatzean kontuan ez edukitzea haiek lanerako eta euren helburu partikularretarako erabiltzen dituzten garraio-elementuen berezko gastuak, hain zuzen ere modu sinesgarrian frogatu ahal badu gastuok lan-denboran egin direla.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa hautatuz gero, garraio-elementuen erabilerak eragiten dituen berezko gastuetatik ordaintzaileak ordaintzen dituenak osorik egotziko dira lanaren gauzazko etekin gisa, garraio-elementuak nork bere beharrizanetarako erabilita egin dira eta.

Hala ere, garraio-elementu baten erabileraren berezko gastuak ezin badira banakatu xedearen arabera (beharrizan pribatuak eta lana), Zergari buruzko Foru Arauko 60. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letrako erregelen arabera egotzi behar dira.

### 14. artikulua.-Denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutako lanaren etekinak, zatika hartutako etekinak eta sortzapenaldiaren zehaztapena.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 19. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letran ezarritako %50eko integrazioa aplikatzeko, denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutako lanaren etekintzat jarraian adieraziko direnak soilik hartuko dira, baldin eta zergaldi bakarrean egozten badira:

   a) Enpresak enplegatuei beste lanpostu batera aldatzeagatik ordaindutako kopuruak, araudi honetako 13. artikuluan ezarritako zenbatekoak gaindituz gero.

   b) Gizarte Segurantzaren edota klase pasiboen araubide publikoen ondoriozko kalte-ordainak, bai eta zurtzen erakundeek eta antzeko erakundeek ordaindutako prestazioak ere, elbarritasunik ez dakarten lesioak gertatzen direnean.

   c) Ez elbarritasunik ez ezintasun iraunkorrik (gradu guztiak) ez dakarren lesioarengatik enpresek eta erakunde publikoek ordaintzen dituzten prestazioak.

   d) Langile edo funtzionarioen heriotzaren eta lurperaketa edo ehorzketa gastuengatik ordaintzen diren prestazioak, bai publikoak, bai zurtzen erakundeek edo antzeko beste erakunde batzuek, enpresek eta erakunde publikoek ordaintzen dituztenak, Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluko 22. zenbakian xedatutakoaren arabera salbuespenaren gehieneko muga gainditzen dutenak.

   e) Muga gabeko iraupeneko ordainsari osagarrien, pentsioen edo urtekoen konpentsazio edo erreparazio gisa edo lan-baldintzak aldatzeagatik ordaintzen diren kopuruak.

   f) Enpresek langileei lan-harremanak elkarren adostasunez suntsiarazteagatik ordaintzen dizkieten kopuruak. Horretarako, lan-harremantzat hartuko dira estatutu-harremanak eta bazkide langileak beraien kooperatibekin lotzen dituzten harremanak.

   g) Literatura, arte edota zientzietako sariak, baldin eta Zerga honetan salbuespenik ez badute. Ez dira saritzat hartuko, honi dagokionez, jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak lagatzearen ondoriozko kontraprestazio ekonomikoak, ez eta haien ordezkoak ere.

   Halaber, idatz-zati honetako ehunekoa aplikatuko da lanaren etekinak sortu dituzten jarduerek, inguruabar objektiboak direla eta, integrazio hori behar badute, ezartzen denarekin bat etorriz.

2. Lanaren etekinen sortzapenaldia bi urte baino luzeagoa izan bada eta etekin horiek zatika jasotzen badira, Zergari buruzko Foru Arauko 19. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letrako lehenengo paragrafoan ageri diren integrazio-ehunekoak bakarrik aplikatu ahal izango dira (%60 edo %50), baldin eta sortzapen-urteen kopurua, datatik datara zenbatuta, zergaldien kopuruaz zatitzearen emaitzako kopurua bi edo bost baino gehiago bada, hurrenez hurren.

   Etekinak zatika jasoz gero, Zergari buruzko Foru Arauko 19. artikuluko a) letrako hirugarren eta laugarren paragrafoetan aipatzen den 300.000 euroko muga aplikatu behar bada, gehieneko kopuru hori modu proportzionalean banatuko da zatikapenak hartzen dituen ekitaldien artean.

3. Sorreraldia bi urte baino luzeagoa izan dela jakin arren benetan zenbatekoa izan den zehazterik ez badago, etekinak hiru urtean sortu direla pentsatuko da.

**15. artikulua. Lanaren etekin batzuei aplikatuko zaizkien integrazio-ehunekoak.**

1. Zergari buruzko Foru Arauko 19. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letran ezarritako integrazio-ehunekoa (%60) kontingentzia bakoitzagatik kapital modura jasotzen den lehenengo prestazioari (18. artikuluko a letrakoak; 6. zenbakikoei ez) bakarrik aplikatu ahal zaio, lehenengo ekarpenetik urte bi baino gehiago pasatu badira.

   Prestazioa elbarritasunagatik edo mendekotasunagatik jasotzen bada, ez da beharrezkoa lehenengo ekarpenetik bi urte pasatuta egotea.

   Urte bakar batean jaso ez bada, kontzeptu bakoitzagatik jasotako lehenengo prestazioari aplikatuko zaio %60 integrazioa, horretarako ezarritako betekizunak betez gero.

   Hori dela eta, hauxe da lehen prestazioa: zergaldi batean kontingentzia bakoitzagatik kapital gisa jasotzen diren diru kopuru guztien batura.

   Aurreko guztia gorabehera, zergadunak prestazioa kobratzen duen lehenengo urtean ez dauka nahitaez kapital gisa jasotzen duen kopuruaren %60 integratu beharrik. Aitzitik, integrazio-ehuneko hori bigarren ekitaldian eta hurrengoetan modu berean lortzen dituen kapital zenbatekoei aplikatzea hautatu dezake, baldin eta lehendik aplikatu ez badie.

   Kontingentzia bategatik lehenbizikoz prestazioa jasotzen denean batera jasotzen badira alde batetik kapital bakarra eta gainera aldizkako errenta bat, lortutako kopuruak honela integratu behar dira:

   a) Errenta gisa jasotako prestazioari dagokionez, ekitaldian jasotako kopuruaren %100.

      Horretarako, errenta-prestazioa da aldizka bi ordainketa edo gehiago jasotzea (gutxienez ordainketa bat urtean).

   b) Kapital gisa jasotakoaren %60, lehenengo ekarpena egin denetik bi urte baino pasatu badira. Prestazioa elbarritasunagatik edo mendekotasunagatik jasotzen bada, ez da beharrezkoa lehenengo ekarpenetik bi urte pasatuta egotea.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa aplikatzeko, ondoko hauetako bakoitza kontingentzia bat izango da:

   a) Erretiroa hartzea, laneko arautegia ezarritako kasu guztietan.

   b) Ezintasun iraunkorra edo elbarritasuna.

   c) Kausatzaile bakoitzaren heriotza.

   d) Mendekotasuna.

   e) Iraupen luzeko langabezia.

   f) Gaixotasun larria.

   g) Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege-Dekretuak onetsitako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko 8. artikuluko 8. idatz-zatian ezarritako kontingentziak edo egoerak gertatzeagatik ez beste arrazoi batzuengatik jasotzen diren kopuruak.

3. Zergari buruzko Foru Arauko 18. artikuluko a) letran ezarritako prestazio mistoa jasoz gero, hau da, mota guztietako errentak eta kapital kobrantzak bateratzen dituen prestazioa, 19.

artikuluko 2. idatz-zatiko b) eta c) letretan ezarritako ehunekoak kapital modura kobratutako kopuruei bakarrik aplikatu ahal zaizkie.

Hain zuzen ere, errenta-prestazioak kobratzen hasi ondoren errenta aurreraturik berreskuratzen bada, lortutako etekinari prima edo ekarpen bakoitzak errenta eratzerakoan duen antzinatasunaren araberako integrazio-ehunekoa aplikatuko zaio.

4. Prestazioa ezarrita duen pertsona bati talde-aseguru batera egindako ekarpenak egotzi bazaizkio, Zergari buruzko Foru Arauko 19. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letrako a') eta b') letretan ezarritako %25eko ehunekoa aplikatzeko, kontratua indarrean egon den artean ordaindutako primak aldizkakotasun eta erregulartasun nahikoarekin ordaindutzat joko dira baldin eta lehenengo prima ordaindu denetik zortzi urte baino gehiago pasatu badira eta primek batez beste lau urte baino gehiago iraun badute.

   Primen batez besteko iraunaldia kalkulatzeko hauxe egin behar da: primen batura beraien iraunaldiko urteen kopuruaz biderkatu eta emaitzako kopurua ordaindutako primen baturaz zatikatu.

5. Prestazioa ezarrita duen pertsona bati talde-aseguru batera egindako ekarpenak egotzi bazaizkio, Zergari buruzko Foru Arauko 19. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letrako b') letran ezarritako %25eko integrazioa aplikatuko zaie lanerako erabateko ezintasunagatik eta elbarritasun iraunkorragatik jasotako kalte-ordainei (bi kasuetan pentsio-planen eta pentsio-funtsen arautegia bete behar da).

6. Kapital-prestazioa jasotzen bada Zergari buruzko Foru Arauko 18. artikuluko a) letrako 6. zenbakian ezarritako bizitza-aseguruko kontratu baten bidez eta kontratuaren primak aldizkakoak edo apartekoak badira, prima bakoitzari dagokion guztirako etekinen zatia kalkulatzeko guztirako kopuru hori zatiketa honen emaitzako haztapen-koefizienteaz biderkatu behar da:

   - Zenbakitzailean, kasuan kasuko prima bider hura ordaindu zenetik prestazioa kobratu arte pasatutako urteen kopurua.

   - Izendatzailean, prima bakoitza bider bera ordaindu zenetik prestazioa kobratu arte pasatutako urteen kopurua eginda lortzen diren biderkadura guztien batura.

7. Zergari buruzko Foru Arauko 19. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoari dagokionez, erakunde aseguratzaileak ordaindutako kopuruetatik prima bakoitzari dagokion zatia banakatuko du.

**16. artikulua. Etekin irregularren muga.**

Zergari buruzko Foru Arauko 19. artikuluaren arabera %100etik beherako integrazio-ehunekoak 300.000 euroko zenbatekoa gainditzen ez duten etekinei aplikatuko zaizkie. Bada, gehieneko muga hori banaka aplikatuko zaie ondoko etekin hauei:

a) Zergari buruzko Foru Arauko 19. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letran aipatzen diren etekinak (guztirako zenbatekoa).

b) Zergari buruzko Foru Arauko 19. artikuluko 2. idatz-zatiko b) eta c) letretan aipatzen diren etekinak (guztirako zenbatekoa).

**17. artikulua. Akzioen gaineko aukerak: integrazio-ehunekoak aplikatzeko mugak.**

Akzioen gaineko aukera-eskubidea baliatuz lanaren etekinak sortzen badira (Zergari buruzko Foru Arauko 20. artikuluko 1. idatz-zatia), integrazio-ehunekoa (%50 edo %60) ez zaie aplikatuko 20.000 euro etekina sortu den aldiko urteen kopuruaz biderkatzearen emaitza gainditzen duen kopuruari.

Aurreko paragrafoan aipatutako kopurua gaindituz gero, gaindikina oso-osorik konputatuko da.

Horretarako, kasu honetan soilik joko da etekina bi edo bost urte baino aldi luzeagoan eta aldizkotasunik gabe sortutzat: eskubidea ematen denetik hurrenez hurren bi edo bost urte pasatutakoan baliatzen denean (ezinbestekoa da urtero ez ematea).

## II. KAPITULUA
## JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINAK

### 1. ATALA
### ARAU OROKORRAK

#### 18. artikulua. Jarduera ekonomiko bati lotutako ondare-elementuak.

1. Jarraian adieraziko diren elementuak zergadunak egiten duen jarduera ekonomiko bati lotutzat joko dira, elementuon titularrak ezkontide biak edo izatezko bikoteko kide biak izatea gorabehera:

    a) Zergadunaren jarduera egiteko erabiltzen diren ondasun higiezinak.

    b) Jardueran ari diren langileen zerbitzu ekonomikoetarako eta soziokulturaletarako erabiltzen diren ondasunak. Aldiz, aisialdi eta olgetarako ondasunak ez dira jarduerari atxikitzat joko, ez eta, oro har, jarduera ekonomikoaren titularrak erabilera pribaturako erabiltzen dituenak ere.

    c) Etekinak lortzeko beharrezkoak diren gainerako ondare-elementu guztiak. Ez dira inoiz ere horrelakotzat joko erakunde baten funts propioetako partaidetzen aktiboak ez hirugarrenei egindako kapital-lagapenenak.

2. Jarduera ekonomiko bati lotutako ondare-elementutzat subjektu pasiboak haren xedeetarako erabiltzen dituenak baino ez dira hartuko. Ez dira lotutzat hartuko:

    1.a. Aldi berean jarduera ekonomiko baterako eta norberaren beharrizanetarako erabiltzen direnak; salbuespena: norberaren beharrizanetarako erabiltzea jarduera osagarria eta argi eta garbi garrantzirik gabekoa izatea, idatz-zatiko honetako 4. zenbakian azaltzen den bezala.

    2.a. Zergadunaren titulartasunekoak izanik, berak arteztu beharreko jarduera ekonomikoaren kontabilitate edo erregistro ofizialetan agertzen ez direnak, kontrako frogarik egon ezean.

    3.a. Jardueraren xederako ondare-elementuaren zati bat bakarrik erabiltzen bada, loturak jardueran benetan erabiltzen den zatia baino ez du hartuko. Honetara, aparteko aprobetxamendurako eta gainerakoetatik independentea den aprobetxamendurako erabil daitezkeen ondare-elementuen zatiak bakarrik hartuko dira lotutzat Ondare-elementu zatiezinak ezin dira inolaz ere jarduera bati modu partzialean lotu.

    4.a. Norberaren beharrizanetarako modu osagarrian eta argi eta garbi garrantzirik gabe erabilitzat hartuko dira jarduera ekonomikoa egiteko eskuratu eta erabiltzen diren ibilgetuko ondasunak, baldin eta, lanegun edo lanorduez beste, zergadunaren beraren erabilerarako erabiltzen badira, bitartean jarduera horren erabilera geldiarazita dagoela.

    Idatz-zati honetako 1., 3. eta 4. zenbakietan xedatutakoa ez zaie aplikatuko turismo ibilgailuei eta beraien atoiei, ziklomotorrei eta motozikletei (Zergari buruzko Foru Arauko 27. artikuluko 5. erregela aplikatuko zaie), ez eta aisiarako edo ur kiroletarako itsasontziei ez aireontziei ere (Zergari buruzko Foru Arauko 27. artikuluko 6. erregela aplikatuko zaie).

#### 19. artikulua. Amortizatzeko askatasuna, amortizazio azeleratua eta baterako amortizazioa.

1 Amortizatzeko askatasunaz eta amortizazio azeleratuaz (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 21. artikulua) baliatu ahal den zenbatekoa honela kalkulatuko da foru

arau hori indarrean jarri ondoren eskuratutako ibilgetu materialeko elementuei dagokienez: eskuraketa-prezioaren eta gutxieneko amortizazio-kuoten (edo benetan aplikatutako amortizazioen) arteko kenketa egin behar da.

Baldin eta zergaldiren batean etekin garbien zenbatekoa amortizazio-kuotak kentzea berariaz onartzen ez duen metodo edo modalitate baten bidez kalkulatu bada, zergaldietako gutxieneko amortizazioak hartuko dira benetan aplikatutako kuotatzat.

Horretarako, gutxieneko amortizazio-kuota kalkulatzeko hauxe egin behar da: ondare-elementuari Sozietateen gaineko Zergari buruzko arautegian ezarritakoaren araberako gehieneko amortizazioaldiari dagokion koefizientea aplikatu.

2 Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 13. artikuluan mikroenpresatzat jotzeko ezarritako betekizunak betetzen dituzten zergadunek foru arau horretako 21. artikuluko 3. idatz-zatian araututako amortizazioa aplika dezakete. Horretarako, metodo hau aplikatzen den lehen ekitaldian baterako amortizaziorako hartzen diren ondare-elementuen zerga-balio garbia kalkulatzeko kenketa hau egin behar da: eskuraketa-preziotik gutxieneko amortizazio-kuotak kendu, edo bestela benetako aplikatutako amortizazio-kuotak (aurreko 1. idatz-zatian xedatutakoaren arabera kalkulatutakoak).

Baterako amortizazioa aplikatzeko kontuan eduki behar dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 21. artikuluko 3. idatz-zatiko bigarren paragrafoan eta hamaseigarren xedapen iragankorrean ezarritako mugak.

### 20. artikulua. Eragiketen bolumena.

Araudi honetarako hauxe da eragiketen bolumena: zergadunak bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzuak direla eta jasotako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun errekargua kenduta, egonez gero.

### 21. artikulua. Nola kalkulatu behar diren jarduera ekonomiko bati lotutako ondare-elementuak eskualdatuta sortzen diren ondare-irabaziak.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek egindako jarduerei lotutako ondare-elementuak eskualdatuta sortutako ondare-irabaziei Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 40. artikuluko 9. idatz-zatian xedatutakoa aplikatu behar bazaie, erregela hauek hartu behar dira kontuan:

a) Ondare-elementu bat jarduera ekonomiko bati lotzen bazaio eskuraketaren ondoren, lotura gertatu den unea hartuko da eskuraketa-unetzat, gero Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 40. artikuluko 9. idatz-zatiko a) letran ezarritakoa aplikatzeko.

b) Zergadunak bere jardueraren etekin garbia amortizazioen kenkaririk aplikatzeko aukerarik ematen ez duen zenbatespen metodo edo modalitate baten bidez kalkulatu duten zergaldietan hauxe hartu behar da amortizaziotzat Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 40. artikuluko 9. idatz-zatiko a) letran ezarritakoa aplikatzeko: ondare-elementuari Sozietateen gaineko Zergaren arautegiko gehieneko epealdiari dagokion gutxieneko amortizazio-koefizientea aplikatzearen emaitza.

### 22. artikulua. Aparteko mozkinen berrinbertsioa.

1. Aparteko mozkinen berrinbertsioa (Sozietateen gaineko Zergari buruzko 36. artikulua) aplikatu ahal bada, berrinbertsioa aplikatzen den ondare-elementuak, hain zuzen ere etekin garbien zenbatekoa amortizazioen kenkaririk aplikatzeko aukerarik ematen ez duen zenbatespen metodo edo modalitate baten bidez kalkulatu duten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunen jarduera ekonomikoei lotuta daudenak, bost urtean mantendu behar dira jarduerari lotuta (ondasun higiezinak hiru urte) berrinbertsioa egiten denetik. Salbuespena: bizitza erabilgarria, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, laburragoa izatea.

2. Baldin eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 36. artikuluan berrinbertsiorako ezarritako epealdian zergadunak erabakitzen badu eskualdaketaren zenbatekoaren besteko kopurua ez berrinbertitzea, integratu gabeko errentaren zatia errenta lortu duen zergaldiari egotzi behar dio, %15 gehituta.

   Aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera zerga-oinarrian sartu behar den errentari dagokion kuota osoaren zatia erabakia hartzen den zergaldiko kuotarekin batera ordaindu behar da, %15 gehituta.

3. Berrinbertsioa egiten ez bada Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 36. artikuluan ezarritako epealdiaren barruan, zergadunak integratu gabeko errenta zatia lortu den zergaldira egotzi behar du, zenbatekoaren 100eko 15 gehituta.

   Aurreko paragrafoan ezartzen denaren arabera zerga-oinarrian integratu beharreko errentari dagokion kuota osoaren zatia berrinbertsiorako epealdia amaitzen den zergaldiko kuotarekin batera sartuko da, aurrean aipatutako 100eko 15 aplikatuta, bidezkoa izanez gero.

**23. artikulua. Errenta-eratxikipenaren araubideko erakundeak mikroenpresa edo enpresa txiki edo ertain izatea.**

1. Errenta-eratxikipenaren araubideko erakunde batek jarduera ekonomiko bat egiten badu, jardueraren etekinak etekin ekonomiko izango dira jarduerari lotutako ekoizbideen eta giza baliabideen norbere konturako antolamenduan zuzenean parte ohi duten erakundeko bazkide, erkide, partaide edo jaraunsleentzat.

   Hala ere, eratxikitako etekinak kapitalaren etekinak izango dira aurrean aipatutako jardueretan parte hartzen ez duten bazkide, jaraunsle, erkide eta partaideentzat, baldin eta erakundeko parte-hartzea kapitala ekartzea baizik izan ez bada. Hala gertatuz gero, ezin da egotzi etekin gisa ekarritako kapitalaren %15 baino gehiago.

2. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan mikroenpresez eta enpresa txiki eta ertainez ezarritakoa aplikatzeko eta arau bereko 13. artikuluan ezarritako betekizunak betetzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan etekin garbia kalkulatzeko ezarritako modalitate bakoitzeko erregela bereziekin bat etorriz bidezkoa den kasuetan halako erakundeek egindako jarduera ekonomikoak soilik hartuko dira kontuan.

**24. artikulua. Denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutako jarduera ekonomikoen etekinak eta zatika jasotako etekinak .**

1. Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritako %50eko integrazioa aplikatzeko, denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutako jarduera ekonomikoen etekintzat jarraian adieraziko direnak baizik ez dira hartuko, baldin eta zergaldi bakarrean egozten badira:

   a) Ibilgetuko elementu amortizaezinak eskuratzeko diru-laguntzak.

   b) Jarduera ekonomikoei uzteagatik jasotako kalte-ordainak eta laguntzak.

   c) Zerga honen kargatik salbuetsita ez dauden literaturako, arteetako eta zientzietako sariak. Ez dira saritzat hartuko, honi dagokionez, jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak lagatzearen ondoriozko kontraprestazio ekonomikoak, ez eta haien ordezkoak ere.

   d) Iraunaldi mugagabeko eskubide ekonomikoen ordez jasotako kalte-ordainak.

2. Bi urtean baino aldia luzeagoan sortutako jarduera ekonomiko etekinak zatika jasotzen badira, kasu honetan bakarrik aplikatu ahal izango dira Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluko 4. idatz-zatiko integrazio-ehunekoak (%60 edo %50): sorreraldiko urteen

kopurua, datatik datara zenbatuta, zatikapenak hartzen dituen zergaldien kopuruaren artean zatitzearen emaitza bi urte (%60) edo bost urte (%50) baino gehiago izanez gero.

3. Sorreraldia bi urte baino luzeagoa izan dela jakin arren benetan zenbatekoa izan den zehazterik ez badago, etekinak hiru urtean sortu direla pentsatuko da.

4. Integrazio-ehunekoa aplikatu ahal bada, gehienez ere 300.000 euroko zenbatekoari aplikatuko zaio urtean. Hortiko gorako zenbatekoa osorik integratuko da (%100).

   %100etik beherako integrazio-ehuneko bat baino gehiago aplikatu behar zaizkien etekinak jaso badira, aurreko paragrafoko muga (300.000 euro) konputatzean lehenbizi integrazio-ehuneko txikiena aplikatu behar zaienak hartuko dira kontuan.

   Etekinak zatika jaso badira, artikulu honetako 2. idatz-zatian azaldu den bezala, eta 300.000 euroko muga aplikatu behar bada, gehieneko kopuru hori modu proportzionalean banatuko da zatikapenak hartzen dituen ekitaldien artean.

5. 1. zenbakian ezarritakoa gorabehera, Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluko 4. zenbakian ezarritako zerga-oinarrian aplikatu beharreko integrazio-portzentajeak jarduera ekonomikoen gainerako etekin garbiei aplikatu ahal izateko, jarduera orokorrean hartuta ezin berezizkoa izan behar da funtsen aplikazio eta lorpenen ziklo ondo definituetatik, bi urtetik edo bost urtetik gorako epea pasatu behar delarik etekina sortzen duen inbertsioan egiten denetik jasotzen den arte. Beraz, ezin izango zaizkie aplikatu diru-sarrerak sortzeko eragiketa jakin eta esklusiboei, modu isolatuan hartuta.

## 25. artikulua. Ibilgailuei dagozkien finantza-gastuen kengarritasuna.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 27. artikuluko 5. erregelan xedatutakoaren ondoreetarako, zergadunak frogatzen badu jardueraren berezko ezaugarriak direla eta ibilgailua oso garrantzitsua dela sarrerak lortzeko eta horretarako erabili ohi duela, ibilgailuaren eskuraketak eragiten dituen finantza-gastuen %50 kendu ahal izango du ibilgailuko, eskuraketa-prezioa 25.000 eurotik gorakoa ez bada.

   Eskuraketa-prezioa 25.000 eurotik gorakoa bada, 25.000 euroren eta eskuraketa-prezioaren arteko proportzioari dagokion finantza-gastuen zatiaren %50 kendu daiteke.

2. Zergadunak modu sinesgarrian frogatzen badu ibilgailua jarduera ekonomikorako baino ez duela erabiltzen, aurreko idatz-zatiko ehunekoa %100 izango da eta honela aplikatuko da: eskuraketa-prezioa 25.000 eurotik gorakoa ez bada, gastuen guztirako kopuruari; 25.000 eurotik gorakoa bada, zenbateko horren eta eskuraketa-prezioaren proportzioari dagokion gastuen zatiari.

## 26. artikulua. Kengarriak ez diren gastuak.

Zergari buruzko Foru Arauko 27. artikuluko 7. zenbakian ezarritakoari dagokionez, bertan aipatzen diren gastuen zati bat bakarrik ordaindu bada eskudirutan, horrela ordaindutako zatia ez da kengarria.

## 27. artikulua. Jarduera ekonomikoen etekinak zehazteko modalitateak.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluan ezarritakoaren arabera jarduera ekonomikoen etekinak zehazteko zuzeneko zenbatespena erabiliko da. Metodo honetan modalitate bi daude:

   - Arrunta.

   - Erraztua.

2. Zergadunek aurreko metodoak aplikatzean kontuan eduki behar dituzte aplikatu beharreko mugak, bateraezintasunaren eta uko egiteko erregelak, eta ondoko artikuluetan ezarritako xedapenak.

## 2. ATALA
## ZUZENEKO ZENBATESPENAREN METODOA: MODALITATE ERRAZTUA

### 28. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztua: arau orokorrak.

1. Jarduera ekonomikoren bat egiten duten zergadunek zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztua aplikatu ahal izango dute jardueren etekin garbia kalkulatzeko, ondoko hauek betez gero:

    a) Zergadunak jarduera ekonomiko guztietan urtean egindako eragiketen bolumena ezin da izan 600.000 euro baino gehiago.

    b) Zergadunak berariaz hautatu behar du modalitate erraztua bere jarduera guztien etekin garbia zehazteko.

2. Zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aplikatzeko muga moduan ezarritako eragiketen bolumena modalitatea aplikatuko den urteko aurreko urtekoa izango da.

    Aurreko urtean jarduerarik egin ez bada, etekin garbia modalitate honen bidez kalkulatzeko ezinbestekoa da zergadunak hurrengo artikuluan azaltzen den bezala hautatzea.

    Aurreko urtean jarduera bati ekin bazaio, jarduera horretako eragiketen zenbatekoa urtekoratu egin behar da.

3. Zergari buruzko Foru Arauko hogeita bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat, aurreko 1. zenbakiko a) letrako kopurua ez zaie aplikatuko lehen sektoreko ekonomia-jarduerei, zehazki, Zergari buruzko Araudiko 33. artikuluan ezarritakoa aplikatu ahal zaien nekazaritzako zein abeltzaintzako jarduerei eta basoko eta baxurako arrantzako jarduerei.

### 29. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztua: hautapena.

1. Zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate erraztua aplikatu nahi izanez gero, aplikatuko den egutegiko urteko apirilaren 25a baino lehen hautatu behar da. Jarduera bati ekiten bazaio, zentsuan alta emateko aitorpenean modalitate hau hautatu dela adierazi behar da.

2. Aurreko 1. idatz-zatian aipatzen den hautapena indarrean egongo da modalitatea aplikatu ahal den hurrengo urteetan ere, baldin eta zergadunak aurreko 1. idatz-zatian ezarritako epealdian berariaz ezeztatzen ez badu zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aplikatzeko hautapena.

3. Aurreko idatz-zatietan aipatutako zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuaren hautapena eta hautapenaren ezeztapena zentsu-aitorpenaren 036 ereduaren bitartez egin behar dira.

### 30. artikulua. Errenta-eratxikipenaren araubidean dauden erakundeak.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 11. artikuluan aipatzen diren erakundeek egiten dituzten jarduera ekonomikoen etekin garbia zehazteko zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aplikatu ahal izango da, baldin eta:

    1.a. Bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide guztiak zerga honen kargapeko pertsonak fisikoak badira.

    2.a. Erakundeak araudi honetako 28. artikuluan ezarritako eskakizunak betetzen baditu.

2. Modalitate erraztua aplikatzeko hautapena bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide guztiek egin behar dute, bai eta horren ezeztapena ere, araudi honetako 29. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

3. Modalitate erraztua bazkide, jaraunsle, erkide eta partaideen inguruabar pertsonalak kontuan hartu gabe aplikatuko da.

4. Etekin garbia kasu bakoitzean aplikatu beharreko arauen edo itunen arabera eratxikiko zaizkie bazkideei, jaraunsleei, erkideei edo partaideei. Zerga Administrazioak horien berri sinesgarririk ez badauka, etekinak hainbanatu egingo dira.

**31. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztuaren eta modalitate arruntaren bateraezintasuna.**

1. Jarduera baten etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate arruntaren bidez zehazten duten zergadunek gainerako jarduera guztien etekin garbia ere modalitate beraren bidez zehaztu behar dute.

   Hala ere, urtean jarduera ekonomikoren bat hasi bada, aurreko paragrafoan ezarritako erregelak ez du eraginik izango jarduera horretan.

2. Zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztua aplikatzeko betekizunak betetzen dituzten zergadunek euren jardueretako baten etekin garbia modalitate horren arabera zehaztu nahi izanez gero, modalitate hori hautatu behar dute euren jarduera guztietarako.

**32. artikulua. Erregela bereziak basogintzaren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatzeko.**

1. Zergari buruzko Foru Arauko 28. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa garatzeko, basogintzaren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatzeko ondoko erregela berezi hauek aplikatu behar dira:

   a) Sarrerak eta gastuak, jarduerari atxikitako ondare-elementuen irabaziak eta galerak izan ezik, Zergari buruzko Foru Arauan ezarritako erregela orokorrekin bat etorriz kalifikatu eta zenbatuko dira.

   b) Gastu kengarriak frogatzen eta baloratzen gaitz direnez, %65 konputatuko da aurreko a) letran aipatutako sarrerei dagokienez.

      Zergadunak ustiatzen dituen sailak basoberritzen baditu, aurreko paragrafoan ezarritako gastu kengarrien ehunekoa %80 izango da aurreko a) letran aipatutako sarrerei dagokienez. Paragrafo honetan ezarritako ehunekoa ez da aplikatuko hazkunde bizkorreko hostozabalen ustiapen-lanetan.

      Basoberritzea artikulu honetako 2. idatz-zatian ezarri den bezala eta bertan finkatutako epealdietan egin behar da.

   c) Aurreko letretan aipatutako sarreren eta gastuen arteko diferentzia kalkulatu behar da. Diferentzia horri Zergari buruzko Foru Arauan bi edo bost urte baino aldi luzeagoan sortu eta aldian-aldian lortzen ez diren jarduera ekonomikoaren etekin garbietarako ezarritako tratamendua aplikatuko zaio, bidezkoa izanez gero.

   d) Azkenik, jarduerari atxikitako ondare-elementuen irabaziak edo galerak gehitu edo kendu behar dira, kasuan kasukoa, Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoarekin bat etorriz.

2. Ustiatzen diren sailak mozketarako baimena ematen denetik hiru urte pasatu baino lehen basoberritu behar dira.

Zergaren autolikidazioan frogagiri gisa aurkez daitezke mozketarako baimena ematen duten ebazpenak eta basoberritzeagatik jasotako diru-laguntzak ordaintzeko foru aginduak, baldin eta titularra, finkaren identifikazioa eta basoberritu azalera agertzen badira. Halakorik ezean, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Baso Zerbitzuak emandako frogagiria aurkez daiteke.

Baldin eta aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera basoberritzea ez bada egiten ustiatzen diren sailetan mozketa egiten den urte berean, zergadunak mozketa egiten den ekitaldiko autolikidazioan adierazi behar du basoberritzea ezarrita dagoen bezala eta finkatutako epealdian egiteko asmoa daukala.

3. Aurreko idatz-zatian ustiatzen diren sailak basoberritzeko ezarritako baldintzak betetzen ez dituen zergadunak autolikidazio osagarria egin beharko du, hain zuzen ere artikulu honetako 1. idatz-zatiko b) letrako bigarren paragrafoan ezarritako gastu kengarrien ehunekoa aplikatu den azken zergaldiari buruz.

   Honetarako, zergadunak berriro kalkulatu behar du aurreko paragrafoan aipatzen den urtean baso-jarduerak sortutako etekin garbia, eta horretarako artikulu honetako 1. idatz-zatiko b) letrako lehenengo paragrafoan ezarritako gastu kengarrien ehunekoa aplikatu beharko du. Horren emaitzako kuotarekin batera bidezko berandutza-korrituak ere ordaindu beharko ditu.

   Autolikidazio osagarria aurkezteko epealdia: baldintza betetzen ez den egunetik hori gertatzen den zergaldiko autolikidazioa egiteko ezarritako epealdia amaitu arte.

**33. artikulua. Erregela bereziak nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatzeko.**

Zergari buruzko Foru Arauko 28. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa garatzeko, nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatzeko, 28. artikulu horretako 1. idatz-zatiko b) letran aipatzen den ehunekoa %35ekoa izango da.

Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzeko hauexek dira nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak: abeltzaintza lokabea; ganadua hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak; BEZaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezitik baztertuta dauden nekazariek eta abeltzainek egiten dituzten bestelako lanak eta zerbitzu osagarriak; BEZaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian sartu daitezkeen nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak.

**34. artikulua. Erregela bereziak baxurako arrantzaren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatzeko.**

Zergari buruzko Foru Arauko 28. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa garatzeko, baxurako arrantzaren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatzeko ondoko erregela berezi hauek aplikatu behar dira:

a) Sarrerak eta gastuak, jarduerari atxikitako ondare-elementuen irabaziak eta galerak izan ezik, Zergari buruzko Foru Arauan ezarritako erregela orokorrekin bat etorriz kalifikatu eta zenbatuko dira.

b) Gastu kengarriak frogatzen eta baloratzen gaitz direnez, %90 konputatuko da aurreko a) letran aipatutako sarrerei dagokienez.

c) Aurreko letretan aipatutako sarreren eta gastuen arteko diferentzia kalkulatu behar da. Diferentzia horri Zergari buruzko Foru Arauan bi edo bost urte baino aldi luzeagoan sortu eta aldian-aldian lortzen ez diren jarduera ekonomikoaren etekin garbietarako ezarritako tratamendua aplikatuko zaio, bidezkoa izanez gero.

d) Azkenik, jarduerari atxikitako ondare-elementuen irabaziak edo galerak gehitu edo kendu behar dira, kasuan kasukoa, Zergari buruzko 13/2013 Foru Arauko 25. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoarekin bat etorriz.

### 35. artikulua. Salgaien errepidezko garraioaren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua erabiliz kalkulatzeko arau bereziak.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauko 28. artikuluaren 2. zenbakian ezartzen dena garatuz, salgaien errepidezko garraioaren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua erabiliz kalkulatzerakoan % 55 izango da 28. artikulu horretako 1. zenbakiko b) letran aipatzen den portzentajea.

Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, salgaien errepidezko garraiotzat joko dira apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu Arauemaileak onartzen dituen Ekonomi Jardueren gaineko Zergako tarifen 722 epigrafean zehazten direnak.

## III. KAPITULUA.
## KAPITALAREN ETEKINAK.

## 1. ATALA.
## KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK.

### 36. artikulua. Kapital higiezinaren etekinak, etxebizitzen bidez lortzen direnak.

Zerga honen ondorioetarako, etxebizitzetatik datozen kapital higiezinaren etekinen artean, hots, Zergari buruzko Foru Arauko 32. artikuluko 1. idatz-zatian aipatzen diren horien artean sartu behar dira etxebizitzen edo horien gaineko gozamen-eskubide errealen titularrek lortzen dituzten etekinak, etxebizitza hutsen merkaturatzea sustatzen eta bultzatzen duten Eusko Jaurlaritzaren dekretuetan xedatutakoari atxikitzen bazaizkio, eta etxebizitza horiek lagatzen edo alokatzen badizkiete Sozietateen gaineko Zergaren arautegian higiezinen errentamenduko jarduera kualifikatua egiten duten erakundeentzat ezarrita dagoen araubide berezia duten sozietateei.

### 37. artikulua. Zergari buruzko Foru Arauko 32. artikuluko 2. idatz-zatian aipatzen diren kapital higiezinaren etekinak: gastu kengarriak.

Zergari buruzko Foru Arauko 32. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako kasuetan ondokoak hartuko dira gastu kengarritzat etekin garbia kalkulatzeko: etekinak lortzeko egin behar izan diren gastu guztiak; erabilerak eta denboraren joanak etekinen iturburu diren ondasunetan edo eskubideetan egindako narriaduraren zenbatekoa. Dena den, ondasun higiezin bakoitzeko, gastu kengarrien baturak ezin du ekarri etekin garbia negatiboa izatea.

Bereziki, honako hauek hartuko dira aurreko paragrafoan aipaturiko gastutzat:

a) Etekinen iturburu diren ondasunak edo haiek erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eskuratzeko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen korrituak, eta finantzaketako gainerako gastuak.

b) Estatuarenak ez diren zergak eta errekarguak, bai eta Estatuaren tasak eta errekarguak ere, beraien izendazioa gorabehera, baldin eta konputatzen diren etekinak edo hauek sortu dituzten ondasunak edo eskubideak kargatzen badituzte eta ez badira zehapenak edo zergen arloko betebeharrak berandu betetzearen ondoriozkoak badira.

c) Hirugarrenek, zuzeneko nahiz zeharkako kontraprestazio gisa, edo norberaren zerbitzuen ondorioz, sortzen dituzten diru kopuruak, hala nola, administrazio, jagoletza, atezaintzakoak zein antzekoak.

d) Errentamendua, azpierrentamendua edo eskubideen lagapena edo eraketa formalizatzeko egiten diren gastuak, eta ondasunen, eskubideen edo etekinen inguruko defentsa juridikoak eragiten dituenak.

e) Artapen eta konponketa gastuak. Ondoko hauek hartuko dira horrelakotzat:

- Ondasun materialen erabilera arrunta mantentzeko aldian-aldian egiten diren gastuak (esaterako, instalazioak margotu, entokatu edo konpontzeko egiten direnak).

- Elementuak ordeztekoak, berbarako, berokuntzako instalazioak, igogailuak, segurtasun ateak edo beste batzuk.

Kontzeptu horrengatik ezin dira kendu ondasunak zabaltzeko edota hobetzeko erabiltzen diren kopuruak.

f) Etekinak sortzen dituzten ondasunen edo eskubideen gaineko aseguru kontratuen primak (kontratua erantzukizun zibilekoa, sute asegurukoa, lapurreta asegurukoa, beira-apurtzearen aurkako asegurukoa zein antzeko beste mota batekoa izan daiteke).

g) Zerbitzu edo horniduretan gastatutako kopuruak.

h) Amortizazioetarako erabiltzen diren kopuruak, ondoko artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

**38. artikulua. Ondasun higiezinen amortizazio-gastuak.**

1. Zergari buruzko Foru Arauko 32. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako kasuetan kapital higiezinaren etekin garbia zehazteko gastu kengarritzat hartuko dira ondasun higiezina eta berarekin batera lagatako gainerako ondasunak amortizatzeko erabilitako kopuruak, hain zuzen ere ondasunak baldin eta benetako balio-galerari badagozkio.

2. Amortizazioak ondoko kasuetan dagozkio benetako balio-galerari:

   a) Ondasun higiezinen kasuan: urtean amortizatutako kopurua ez bada ordaindutako eskuraketa-kostuaren %3 baino gehiago (eskuraketa-kostuan ez da sartu behar lurraren kostua).

      Lurzoruaren balioa zein den jakin ezean, balio hori kalkulatzeko ordaindutako eskuraketa-balioa lurzoruaren eta eraikuntzaren urteko katastro-balioen artean laindu behar da.

   b) Ondasun higiezinarekin batera ondasun higigarriak, urtebete baino aldi luzeagoan erabil daitezkeenak, lagatzen badira: urtean amortizatutako kopurua ez bada ordaindutako eskuraketa-kostuei Sozietateen gaineko Zergaren araudian zehaztutako gehieneko amortizazio-aldien ondoriozko gutxieneko koefizienteak aplikatzearen emaitzako zenbatekoa baino gehiago.

3. Etekinak erabiltzeko edo gozatzeko eskubide edo ahalmen errealen titulartasunak sortzen baditu, ordaindutako eskuraketa-kostua amortizatu daiteke.

   Amortizazioa, horrelako kasuan, honako erregela hauen emaitza izango da:

   a) Eskubideak edo ahalmenak indarraldia ezarrita badauka, eragiketa hau egin behar da amortizazioa kalkulatzeko: eskubidea edo ahalmena eskuratzeko kostua indarraldiko urteen kopuruaz zatitu.

   b) Eskubidea edo ahalmena bizi artekoa bada, ordaindutako eskuraketa-kostuaren %3 da.

4. Egiten diren amortizazio guztien batura ezin da izan ondasuna edo eskubidea eskuratzeko ordaindutako zenbatekoa baino gehiago.

**39. artikulua. Zergari buruzko Foru Arauko 32. artikuluko 2. idatz-zatian aipatzen diren kapital higiezinaren etekinak, denboran modu nabarmen irregularrean lortzen direnak, zatika jasotako etekinak eta sortzapenaldiaren zehaztapena.**

1. Zergari buruzko Foru Arauko 30. artikuluko 3. idatz-zatiko lehenengo paragrafoan ezarritako %50eko integrazioa aplikatzeko, denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutako higiezinen kapitalaren etekintzat jarraian adieraziko direnak soilik hartuko dira, baldin eta zergaldi bakarrean egozten badira:

   a) Negozio-lokalen errentamendu-kontratuak intsuldatuta edo lagata lortutako zenbatekoak.

   b) Errentariak, azpierrentariak edo lagapen-hartzaileak higiezinean egindako gaitz-kalteengatik emandako kalte-ordainak.

2. Zergari buruzko Foru Arauko 32. artikuluko 2. idatz-zatian kapital higiezinaren etekinak bi edo bost urte baino aldi luzeagoan sortu badira eta zatika jasotzen badira, Zergari buruzko Foru Arauko 30. artikuluko 3. idatz-zatiko lehenengo paragrafoan ezarritako integrazio-ehunekoak (%60 eta %50) honela aplikatuko dira: sorreraldiko urteen kopurua, datatik datara zenbatuta, zatikapenak hartzen dituen zergaldien kopuruaren artean zatitzearen emaitza bi urte baino gehiago bada, %60; bost urte baino gehiago izanez gero, %50.

3. Sorreraldia bi urte baino luzeagoa izan dela jakin arren benetan zenbatekoa izan den zehazterik ez badago, etekinak hiru urtean sortu direla pentsatuko da.

4. %100etik beherako integrazio-ehunekoa aplikatu ahal bada, gehienez ere 300.000 euroko zenbatekoari aplikatuko zaio urtean. Hortiko gorako zenbatekoa osorik integratuko da (%100).

   %100etik beherako integrazio-ehuneko bat baino gehiago aplikatu behar zaizkien etekinak jaso badira, aurreko paragrafoko muga (300.000 euro) konputatzean lehenbizi integrazio-ehuneko txikiena aplikatu behar zaienak hartuko dira kontuan.

   Etekinak zatika jaso badira, artikulu honetako 2. idatz-zatian azaldu den bezala, eta 300.000 euroko muga aplikatu behar bada, gehieneko kopuru hori modu proportzionalean banatuko da zatikapenak hartzen dituen ekitaldien artean.

## 2. ATALA
## KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK

**40. artikulua. Aseguru-kontratuetako saldoaren zati bat baliatzea.**

Aseguru-kontratu bateko saldoaren zati bat baliatzen bada, kapital higigarriaren etekina kalkulatzeko pentsatuko da berreskuratutako kopurua lehenengo ordaindutako primei dagokiela, errentagarritasuna kontuan hartuta.

**41. artikulua. Geroratutako errentak eratu arte lortutako errentagarritasuna: tributazioa.**

Zergari buruzko Foru Arauko 36. artikuluko 1. idatz-zatiko d) letrako lehenengo paragrafoan ezarritakoari dagokionez, errenta geroratuak eratu arte lortzen diren etekinak ondoko erregelen arabera kargatuko dira:

1. Hauxe da errentagarritasuna: eratzen den errentaren egungo finantza-aktuario balioaren eta ordaindutako primen zenbatekoaren arteko kendura.

2. Errentagarritasuna bizi arteko errenta kobratzen den lehenengo 10 urteetan zehar banatuko da linealki. Errenta aldi baterakoa bada, beraren iraupeneko urteen artean banatuko da linealki (10 urte gehienez).

**42. artikulua. Errenta gisa jasotzen diren erretiro edo elbarritasun prestazioetarako aseguru kontratuak, Zergari buruzko Foru Arauko 36. artikuluko 1. idatz-zatiko d) letrako bigarren paragrafoan aipatzen direnak: betekizunak.**

Zergari buruzko Foru Arauko 36. artikuluko 1. idatz-zatiko d) letrako bigarren paragrafoan ezarritakoa aplikatzeko ondoko betekizun hauek bete behar dira:

1.a. Prestazioa eragiten duten kontingentziak azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko 8. artikuluko 6. idatz-zatian zehaztu dira. Prestazioak jasotzeko berariaz ezarritakoa bete behar da.

2.a. Aseguru-kontratuaren hornikuntzetan mobilizazioa gertatu dela ulertuko da ekonomiaren arloko eskubideez Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bategineko lehenengo xedapen gehigarrian (azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia) ezarritako mugak betetzen ez badira, edota hura garatu duen arautegian enpresen pentsio-konpromisoak gauzatzeko gauzatzen dituzten taldeko aseguruez ezarritakoak betetzen ez badira.

**43. artikulua. Gastu kengarriak kapital higigarriaren etekin batzuetan.**

1. Laguntza teknikoa emanda sortzen diren kapital higigarriaren, ondasun higigarrien, negozioen edo meatzeen errentamenduaren eta azpierrentamenduen etekinen (Zergari buruzko Foru Arauko 39. artikuluko 2. idatz-zatia) zenbateko garbia kalkulatzeko gastu kengarritzat hartuko dira araudi honetako 37. eta 38. artikuluetan ezarritakoak, eta horiez gainera baita behar bezala frogatzen diren zalantzazko kobrantzako saldoak ere.

   Dena den, aurreko paragrafoan aipatutako negozio juridiko bakoitzeko, gastu kengarrien baturak ezin du ekarri etekin garbia negatiboa izatea.

   Zalantzazko kobrantzako saldoak behar bezala frogatutzat joko dira kasu hauetan:

   - Zorduna konkurtsoan dagoenean.

   - Kobrantza egiteko zergadunak egin duen lehenengo kudeaketatik eta zergaldia amaitu arte sei hilabete baino gehiago pasatu direnean kreditua berriztatu gabe.

   Zalantzazko saldoa kobratzen bada, behin haren kenkaria egin eta gero, orduan sarrera gisa zenbatuko da kobrantza hori egiten den ekitaldian.

2. Dena den, Hiri Errentamenduei buruzko 1994ko azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 2. artikuluan aipatzen diren etxebizitzen azpierrentamenduaren ondoriozko etekinak direnean, etekin garbia lortzeko soilik izango da kengarria azpierrentatzaileak errentamendu gisa ordaindutako zenbatekotik azpierrentan hartutako elementuari dagokion parte proportzionala, eta, gainera, %20ko hobaria aplikatuko zaio azpierrentan emandako higiezin bakoitzeko lortutako etekin osoen eta gastu kengarri gisa konputatuko zenbatekoaren arteko diferentziari.

**44. artikulua. Zergari buruzko Foru Arauko 39. artikuluan aipatzen diren kapital higigarriaren etekinak, denboran modu nabarmen irregularrean lortzen direnak, zatika jasotako etekinak eta sortzapenaldiaren zehaztapena.**

1. Zergari buruzko Foru Arauko 39. artikuluko 3. idatz-zatiko lehenengo paragrafoan ezarritako %50eko integrazioa aplikatzeko, denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutako kapital higigarriaren etekintzat jarraian adieraziko direnak soilik hartuko dira, baldin eta zergaldi bakarrean egozten badira:

   a) Errentamendu-kontratua intsuldatu edo azpierrentatuta lortutako zenbatekoak.

b) Errentamenduetan, gaitz edo kalteengatik errentariaren edo azpierrentariaren eskutik jasotzen diren kalte-ordainak.

2. Kapital higigarriaren etekinen sortzapenaldia bi urte baino luzeagoa izan bada eta etekin horiek zatika jasotzen badira, Zergari buruzko Foru Arauko 39. artikuluko 3. idatz-zatiko lehenengo paragrafoan ezarritako integrazio-ehunekoak aplikatu ahal izango dira (%60 edo %50), baldin eta sortzapen-urteen kopurua, datatik datara zenbatuta, zergaldien kopuruaz zatitzearen emaitzako kopurua bi edo bost baino gehiago bada, hurrenez hurren.

3. Sorreraldia bi urte baino luzeagoa izan dela jakin arren benetan zenbatekoa izan den zehazterik ez badago, etekinak hiru urtean sortu direla pentsatuko da.

4. %100etik beherako integrazio-ehunekoa aplikatu ahal bada, gehienez ere 300.000 euroko zenbatekoari aplikatuko zaio urtean. Hortiko gorako zenbatekoa osorik integratuko da (%100).

   %100etik beherako integrazio-ehuneko bat baino gehiago aplikatu behar zaizkien etekinak jaso badira, aurreko paragrafoko muga (300.000 euro) konputatzean lehenbizi integrazio-ehuneko txikiena aplikatu behar zaienak hartuko dira kontuan.

   Etekinak zatika jaso badira, artikulu honetako 2. idatz-zatian azaldu den bezala, eta 300.000 euroko muga aplikatu behar bada, gehieneko kopuru hori modu proportzionalean banatuko da zatikapenak hartzen dituen ekitaldien artean.

**45. artikulua. Norberaren kapitalak, dohainik lortutakoak, hirugarrenei lagata lortutako kapital higigarriaren etekinak.**

1. Zergadunaren heriotzaren zioz dohainik eskualdatzen badira artikulu honetan aipatutako besteren kapitalak erakarri eta erabiltzea ordezkatzen duten mota guztietako aktiboak, ulertuko da ez dagoela kapital higigarriaren etekinik, eta ez da kapital higigarriaren etekin negatiborik konputatuko aktibo horien “inter vivos” kostu gabeko eskualdaketaren ondorioz.

2. Dohaineko eskualdaketa komisarioak testamentu-ahalordea erabiltzearen ondorioz egiten denean edo eraginkortasuna unean bertan duen edozein oinordetza-tituluren bidez egiten denean ere aplikatuko da aurreko zenbakian ezarritakoa. Horri dagokionez, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 5. artikuluan ezartzen direnak hartuko dira oinordetza- titulutzat.

3. Aurreko idatz-zatian aipatu diren oraingo eraginkortasuneko oinordetza-tituluen bidezko kostu gabeko eskualdaketetan, besteren kapitalaren erakarketa eta erabilera islatzen dituzten aktiboen eskualdatzaileari dagokionez eskuraketa-balioa, hurrengo eskualdaketetarako, dohaintza-emaileak dohaintza-hartzaileari ematean dutena izango da, dohaintza-hartzaileak aktiboak dohaintza-emailea hil aurretik eskualdatu ezean. Izan ere, hala gertatzen bada, dohaintza-hartzailea dohaintza-emailearen lekuan subrogatuko da aktibo horien balio eta eskuraketa-datei dagokienez, eta honek oraingo eraginkortasuneko oinordetzako itunaren aurretik izan dituenak atxikiko ditu.

   Aurreko paragrafoan xedatutakoa kasu honetan ere aplikatuko da: aktiboak amortizazioa dela eta edo mugaegunera iristeagatik dohaintza-emailea hil aurretik eskualdatzen direnean.

## IV. KAPITULUA
## ONDAREKO IRABAZIAK ETA GALERAK

**46. artikulua. Ondare-galera konputaezinak.**

Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko e) letran ezarritakoaren arabera zergaldian jokoan izandako galerak zergaldi berean jokoan lortutako irabaziak baino gehiago badira, gaindikina ondare-galera konputaezina da.

Inolaz ere ezin dira konputatu Zergari buruzko Foru Arauko hemezortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren jokoetan gertatzen diren galerak.

### 47. artikulua. Nola zehaztu eskuraketa-balioa.

1. Ondare-elementuak eskualdatzen direnean, beraien eskuraketa-baliotik zerga-ordainketan ken daitezkeen amortizazioen zenbatekoa kendu daiteke, bidezkoa izanez gero; dena dela, gutxieneko amortizazioa konputatu behar da, gastutzat jotzen den kontuan hartu gabe.

   Ondorio horietarako, gutxieneko amortizaziotzat kopuru hau hartuko da: ondare elementuari Sozietateen gaineko Zergari buruzko arautegian aipatutako gehieneko epealdiari dagokion ehunekoa (edo ehuneko finkoa, kasuan kasukoa) aplikatzearen emaitzako kopurua.

2. Ondare-elementuak eskualdatzen badira Zergari buruzko Foru Arauko 26. artikuluak aipatzen duen jaregitea gertatu eta gero, haien eskuraketa-balioa jaregitea gertatu den egunari dagokion koefizientea aplikatuz eguneratuko da.

3. Ondareko galera-irabazien zenbatekoa kalkulatzeko Zergari buruzko Foru Arauko 47. artikuluan ezarritako balorazio-arau bereziak aplikatzen badira, eguneratze-koefizienteak aplikatu behar dira foru arau horretako 45. artikuluan ezarritakoaren arabera, hain zuzen ere eskuraketa-balioa kalkulatzeko kontuan hartu behar diren zenbateko positibo eta negatiboak gertatzen diren urteei dagozkienak.

### 48. artikulua. Negoziatzeko onartutako baloreek sortutako ondare-irabazien tributazioa: aukerako araubidea.

Zergari buruzko Foru Arauko hogeita laugarren xedapen gehigarrian aipatzen den karga berezia aplikatzeko, eskualdaketa-balioa kalkulatzeko foru arau horretako 46. artikuluan eta 47. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letran ezarritako erregelak aplikatu behar dira.

### 49. artikulua. Salbuespena ohiko etxebizitzan berriro inbertitzeagatik.

1. Zergadunaren ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik ondare-irabaziak lortzen badira, irabazi horiek kargatik salbuetsi ahal izango dira, baldin eta eskualdaketan lortzen den zenbateko osoa berriro inbertitzen bada ohiko beste etxebizitza bat eskuratzeko, artikulu honetan ezarritakoarekin bat etorriz. Zergadunak besteren finantzaketa erabili badu eskualdatutako etxebizitza eskuratzeko, orduan, horri dagokionez soil-soilik, eskualdaketa-balioari eskualdaketaren unean amortizatzeko dagoen maileguaren printzipala kenduta geratzen dena hartuko da lortutako zenbateko osotzat.

   Horri dagokionez, berdintzat joko dira etxebizitza eskuratzea eta etxebizitza birgaitzea, Zergari buruzko Foru Arauko 87. artikuluko 6. idatz-zatian ezarritakoaren arabera.

   Etxebizitza ohikotzat hartzeko Zergari buruzko Foru Arauko 87. artikuluko 8. idatz-zatian eta araudi honetako 67. artikuluan xedatutakoa hartuko da aintzat.

2. Besterentzean lortzen den zenbateko osoa berriro inbertitu behar da, aldi batean edo batzuetan, baina, edozelan ere, eskualdaketa-egunetik urte bi pasatu baino lehen.

   Berrinbertsioa epealdiaren barruan egintzat hartuko da salmenta epera edo prezio geroratuarekin egiten denean, baldin eta epeen zenbatekoa helburu horretarako erabiltzen bada epeok hartzen diren zergaldiaren barruan.

   Aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera, berrinbertsioa ez bada egiten besterentzea egiten den urte berean, zergadunak ondare-irabazia lortzen duen ekitaldiko autolikidazioan adierazi beharko du berrinbertsioa aurretik adierazitako baldintza eta epeetan egiteko asmoa daukala.

   Era berean, besterentzean lortzen diren kopuruek berrinbertsioagatiko salbuespenerako eskubidea emango dute, baldin eta kopuruok ohiko beste etxebizitza baten prezioa

ordaintzeko erabiltzen badira, eta betiere etxebizitza hori ohiko etxebizitzaren besterentzea egin den urtearen aurre-aurreko urte bietako epealdian eskuratu behar izan da.

3. Berrinbertsioaren zenbatekoa besterentzean lortutakoa baino gutxiago bada, ondare-irabaziaren zati bat kargatik salbu geratuko da, hain zuzen ere artikulu honetan ezarritakoarekin bat etorriz benetan inbertituriko kopuruari dagokiona.

4. Artikulu honetan ezarritako baldintzetako bat betetzen ez bada, ondare-irabazia kargatuko da.

   Hori gertatzen bada, zergadunak salbuetsita ez dagoen ondare-irabazia irabazi hori lortu duen urteari egotziko eta autolikidazio osagarria egingo du; autolikidazio osagarri horretan bidezko berandutza-korrituak sartuko ditu. Autolikidazio osagarria aurkezteko epealdia: baldintza betetzen ez den egunetik hori gertatzen den zergaldiko autolikidazioa egiteko ezarritako epealdia amaitu arte.

**49 bis artikulua. Salbuespena aplikatzea beren aldeko biziarteko errenta aseguratu bat eratzen duten 65 urtetik gorako zergadunek egindako ondare-elementuen eskualdaketan.**

1. Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko f) letran jasotakoa betetzeko, salbuetsita geratuko dira 65 urtetik gorako zergadunek ondare-elementuak kostu bidez eskualdatzeagatik agerian geratzen diren ondare-irabaziak, baldin eta eskualdaketaren bidez lortutako zenbateko osoa beren aldeko biziarteko errenta aseguratu bat eratzeko erabiltzen badute, artikulu honetan ezartzen diren baldintzetan.

2. Biziarteko errenta sei hilabeteko epean eratu behar da, ondare- elementua eskualdatzen denetik.

   Dena den, ondare-irabaziari atxikipena egin behar bazaio eta atxikipenaren zenbatekoan gutxitutako eskualdaketa-balio osoa erabiltzen bada biziarteko errenta bat eratzeko lehen adierazitako 6 hilabeteko epe horretan, orduan, eskualdaketa egiten den ekitaldiaren hurrengoaren amaierara arte luzatuko da epea atxikipenaren zenbatekoa biziarteko errenta eratzeko.

3. Salbuespena aplikatzeko, baldintza hauek ere bete behar dira:

   a) Biziarteko errentako kontratua zergadunaren (onuraduna) eta aseguru-entitate baten artean sinatu behar da.

      Biziarteko errentako kontratuetan, itzultze-mekanismoak, prestaziorako epe jakinak edo kontra-aseguruko formulak ezarri ahal izango dira, biziarteko errenta eratu ondoren heriotza gertatzen bada.

   b) Biziarteko errentak, gehienez, urtebeteko maiztasuna izango du; hura eratu eta urtebetean hasi behar da jasotzen, eta errenten urteko zenbatekoa ezin izango da gutxitu ehuneko bost baino gehiago, aurreko urtekoarekin konparatuta.

   c) Zergadunak adierazi behar dio aseguru-entitateari kontratatuko biziarteko errenta ondare-elementuak eskualdatzearen ziozko zenbatekoaren berrinbertsioa dela, artikulu honetan jasotako salbuespena aplikatu ahal izateko.

4. Gehienez, 240.000 euro berrinbertitu daitezke biziarteko errenten eraketan, salbuespena aplikatzeko eskubidea izateko.

   Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa bada besterentzean lortutako zenbateko osoa baino, berrinbertitutako kopuruari dagokion ondare-irabaziaren zati proportzionala bakarrik utziko da zergapetu gabe.

   Eskualdaketa baten zenbatekoa biziarteko errenta batean berrinbertitzearen ondorioz 240.000 euroko zenbatekoa gainditzen bada (aurreko berrinbertsioak kontuan hartuta),

orduan, soilik hartuko da berrinbertitutzat 240.000 euroko zenbatekoaren eta aurreko berrinbertsioen zenbatekoaren arteko aldea.

Artikulu honetan xedatutakoaren arabera, berrinbertsioa ez bada egiten besterentzea egiten den urte berean, orduan, zergadunak ondare-irabazia lortzen duen ekitaldiko zergaren autolikidazioan agerrarazi behar du berrinbertsioa lehen adierazitako baldintza eta epeetan egiteko asmoa duela.

5. Artikulu honetan ezartzen diren baldintzetako edozein betetzen ez bada edo eratutako biziarteko errentaren ondoriozko eskubide ekonomikoak guztiz edo partez aurreratzen badira, orduan, lortutako ondare-irabazia zergapetu egingo da.

   Halakoetan, salbuetsita ez dagoen ondare-irabazia irabazi hori lortu zuen urteari egotziko dio zergadunak, eta autolikidazio osagarria egingo du, non dagozkion berandutze-interesak sartuko dituen. Autolikidazio osagarria aurkezteko epe jakina dago: ez-betetzea gertatzen den dataren eta ez-betetzea gertatzen den zergaldiko autolikidazioaren arauzko epearen amaieraren arteko epea.

**49 ter artikulua. Salbuespena mikroenpresa, enpresa txiki edo enpresa ertain sortu berrietan, berritzaileetan edo zilarrezko ekonomiari lotuta daudenetan inbertitzeagatik aplikatu daitekeen kenkariarekin lotutako akzioak eta partaidetzak eskualdatzean.**

1. Baldin eta Zergaren Foru Arauaren 42. artikuluaren g) letraren hirugarren paragrafoan arautzen den berrinbertsiorako epealdian zergadunak erabakitzen badu eskualdatutako zenbatekoa (osorik edo zati bat) ez berrinbertitzea, integratu gabeko errenta zatiaren %50, edo, hala badagokio, berrinbertsioa ez egitea erabaki den eskualdatzearen zenbatekoaren arabera dagokion zati proportzionala, hura lortu den zergaldira egotzi behar du, zenbatekoaren %15 gehituta.

   Aurreko paragrafoan ezartzen denaren arabera zerga-oinarrian integratu beharreko errentari dagokion kuota osoaren zatia erabakia hartzen den zergaldiko kuotarekin batera sartuko da, aurrean aipatutako 100eko 15 aplikatuta, bidezkoa izanez gero.

   Halaber, berrinbertsioa ez bada egiten Zergaren Foru Arauaren 42. artikuluaren g) letraren hirugarren paragrafoan ezartzen den epealdiaren barruan, zergadunak integratu gabeko errenta zatiaren % 50, edo, hala badagokio, berrinbertsioa ez egitea erabaki den eskualdatzearen zenbatekoaren arabera dagokion zati proportzionala, hura lortu den zergaldira egotzi behar du, zenbatekoaren 100eko 15 gehituta.

   Aurreko paragrafoan ezartzen denaren arabera zerga-oinarrian integratu beharreko errentari dagokion kuota osoaren zatia berrinbertsiorako epealdia amaitzen den zergaldiko kuotarekin batera sartuko da, aurrean aipatutako 100eko 15 aplikatuta, bidezkoa izanez gero.

2. Zergaren Foru Arauaren 42. artikuluaren g) letran ezartzen denarekin bat etorriz, inguruabar bereziengatik beharrezkoa izanez gero, Zerga Administrazioak berrinbertsio-plan bereziak onartu ahal izango ditu 100eko 100eko salbuespena aplikatzeko entitateetako akzioak edo partaidetzak eskualdatzean agerian gelditzen diren ondare-irabaziei, hain zuzen ere horiek eskuratzeagatik zergadunak foru arau honen 90. artikuluan ezarritako kenkaria aplika dezakeenean, betiere ondorio horietarako aipatutako aginduaren 3. eta 7. apartatuetan xedatutakoa kontuan hartu gabe.

   Aurreko paragrafoan aipatzen diren inguruabar bereziak gertatzen direla ulertuko da frogatzen denean ezen, bere ezaugarri ekonomikoengatik, inbertsioa nahitaez egin behar dela bi urtetik gorako epealdian, oro har ezarritako eskualdaketaren datatik aurrera, edo, gerora sortutako eta behar bezala arrazoitutako inguruabarrengatik, berrinbertsiorako prozesua ezin denean osatu aipatu epealdian.

3. Aurreko apartatuan aipatzen diren inguruabarrak gertatuz gero, zergadunek Zerga Administrazioari eskatu ahal izango diote berrinbertsioko plan bereziak onesteko.

4. Berrinbertsioko plan berezia honako epealdi hauetan aurkeztu behar da (kasuan kasukoa):

   a) Frogatzen denean ezaugarri ekonomikoak direla-eta inbertsioa nahitaez egin behar dela bi urtetik gorako epealdian oro har ezarritako eskualdaketaren datatik aurrera:

      - Salbuespena eskatzen den ondare-irabazia sortu duen eskualdaketa egin denetik sei hilabete igaro baino lehen.

      - Eskualdaketa egiteko asmoa dagoen egunaren aurreko sei hiletan.

      Azken kasuan, eskualdaketa berrinbertsioko plan berezia onesten denetik sei hilabete pasatu baino lehen egin behar da.

   b) Gerora gertatutako inguruabarrak direla-eta (behar bezala arrazoitu behar dira) berrinbertsiorako prozesua ezin denean osatu eskualdaketa egin denetik bi urte pasatu baino lehen, epealdi hori amaitu baino lehen.

5. Eskabidean honako datu hauek adierazi behar dira:

   a) Eskualdatutako edo eskualdatuko diren akzioen edo partaidetzen ezaugarriak; gainera, adierazi behar da Zergaren Foru Arauaren 42. artikuluaren g) letran aipatzen den salbuespena aplikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla.

   b) Eskualdaketaren benetako edo ustezko zenbatekoa.

   c) Berrinbertsioa egingo den akzioen edo partaidetzen ezaugarriak; gainera, adierazi behar da Zergaren Foru Arauaren 90. artikuluan aipatzen den kenkaria aplikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla, betiere ondorio horietarako horren 3. eta 7. apartatuetan xedatutakoa kontuan hartu gabe.

   d) Berrinbertsioa egiteko plan tenporalaren azalpena.

   e) Berrinbertsioko plan berezia justifikatzen duten inguruabarren azalpena.

   f) Gerora gertatutako inguruabarrak direla-eta (behar bezala arrazoitu behar dira) berrinbertsiorako prozesua ezin bada osatu eskualdaketa egin denetik bi urte pasatu baino lehen, zenbat berrinbertitu den zehaztu behar da.

6. Zerga Administrazioak behar dituen datu, txosten, aurrekari eta frogagiri guztiak eskatu ahal izango dizkio zergadunari. Entzunaldiaren izapidea baino lehen, zergadunak prozeduran zehar noiznahi aurkeztu ahal izango ditu nahi dituen alegazio, agiri eta frogari guztiak.

7. Prozedura bideratu ondoren, eta ebazpen proposamena idatzi aurretik, espedientea zergadunaren eskura jarriko da, eta honek hamabost eguneko epealdia edukiko du nahi dituen alegazioak, agiriak eta frogagiriak aurkezteko.

   Zergadunak azaldutako egitateak, alegazioak eta frogak bakarrik agertzen badira prozeduran eta horiek baino ez badira kontuan hartzen ebazpenerako, ez dago entzunaldiaren izapidea egin beharrik.

8. Prozedura azkentzen duen ebazpenean arrazoiak azaldu behar dira. Horren bidez hauetako bat egingo da:

   a) Zergadunak egindako plana onetsi.

   b) Prozeduran zehar zergadunak egindako plan alternatiboa onetsi.

   c) Zergadunak egindako plana ezetsi.

9. Zerga Administrazioak eskabidea aurkezten denetik edo eskatutako informazio gehigarria jasotzen denetik sei hilabete igaro aurretik ebatziko du. Epealdi horretan berariazko ebazpena jakinarazi ezean, zergadunaren eskabidea ezetsitzat jo beharko da.

10. Zerga Administrazioak onarturiko plan berezian ezarritako berrinbertsiorako epealdian zergadunak erabakitzen badu eskualdatutako zenbatekoa (osorik edo zati bat) ez berrinbertitzea, integratu gabeko errenta zatiaren % 50, edo, hala badagokio, berrinbertsioa ez egitea erabaki den eskualdatzearen zenbatekoaren arabera dagokion zati proportzionala, hura lortu den zergaldira egotzi behar du, zenbatekoaren % 15 gehituta.

    Aurreko paragrafoan ezartzen denaren arabera zerga-oinarrian integratu beharreko errentari dagokion kuota osoaren zatia erabakia hartzen den zergaldiko kuotarekin batera sartuko da, aurrean aipatutako 100eko 15 aplikatuta, bidezkoa izanez gero.

    Halaber, berrinbertsioa ez bada egiten onartu den plan berezian ezarritako epearen barruan, zergadunak integratu gabeko errenta zatiaren % 50, edo, hala badagokio, berrinbertsioa ez egitea erabaki den eskualdatzearen zenbatekoaren arabera dagokion zati proportzionala, hura lortu den zergaldira egotzi behar du, zenbatekoaren 100eko 15 gehituta.

    Aurreko paragrafoan ezartzen denaren arabera zerga-oinarrian integratu beharreko errentari dagokion kuota osoaren zatia berrinbertsiorako epealdia amaitzen den zergaldiko kuotarekin batera sartuko da, aurrean aipatutako 100eko 15 aplikatuta, bidezkoa izanez gero.

**50. artikulua. Talde-inbertsioko erakundeen bazkideen kopurua, ondarea eta gehieneko partaidetza-ehunekoa.**

1. Zergari buruzko Foru Arauko 48. artikuluaren arabera sozietate gisa eraturiko talde-inbertsioko erakundeek eduki behar duten gutxieneko akziodunen kopurua honela zehaztuko da:

    a) Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak araupetutako talde-inbertsioko erakundeetan (Zergari buruzko Foru Arauko 48. artikuluko 1. idatz-zatia) eskualdaketa edo itzulketaren aurretik erakundeak 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen arautegiko 27. artikuluan xedatutakoa betetzeko Balore Merkatuko Komisio Nazionalari bidalitako azkeneko hiruhilekoko txostenean ageri diren akziodunen kopurua.

    b) Zergari buruzko Foru Arauko 48. artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako talde-inbertsioko erakundeetan, eskualdaketa edo itzulketaren aurretik talde inbertsioko erakundeak edo haren gestorak izendatutako merkaturatze-erakunde bakarrak, Espainian egoitza duenak, atal edo azpifunts bakoitzari buruz Balore Merkatuko Komisio Nazionalari bidalitako azken urteko berri-ematean ageri diren akziodunen kopurua. Aurrekoaren ondoreetarako eta hurrengo idatz-zatian ezarritakoaren ondoreetarako, berri-emate horretan atal edo azpifunts bakoitzeko akziodun guztien kopurua agertu behar da, erakundearen guztirako ondarea, atala edo azpifuntsa, eta datuok zein egunetakoak diren. Gehienez ere urtebete egongo da indarrean egun horretatik aurrera.

    Balore Merkatuko Komisio Nazionalak jendaurrean edukiko du informazioa eta letra honetan adierazitako betekizun teknikoak eta prozedurak eskatuko ditu.

2. Sozietate gisako talde-inbertsioko erakundeek parte hartzen duten eragiketetarako Zergari buruzko Foru Arauko 48. artikuluan ezarritako gerorapen-araubideari heldu nahi dioten zergadunek agiri bidez adierazi behar diete eskualdaketa, itzulketa edo eskuraketa eragiketetan bitartekari lanak egiten dituzten erakundeei aurreko hamabi hiletan ez dutela eduki talde-inbertsioko erakundearen kapitalaren %5etik gorako partaidetzarik. Erakunde horiek Zerga Administrazioaren eskuko eduki beharko dituzte zergadunek emandako agiriak zerga-betebeharrak preskribatu arte edo, bestela, azkendu arte.

## V. KAPITULUA
## BALORE EDO PARTAIDETZA HOMOGENEOAK

### 51. artikulua. Balore edo partaidetza homogeneoak: zer diren.

Zerga honen ondoreetarako, ez beste ezertarako, balore edo partaidetza homogeneoak dira jaulkitzaile batek finantza-eragiketa berean ematen dituenak edo helburu berekoak direnak (finantzaketa lortze sistematikoa barne), baldin eta izaera berekoak eta eskualdaketa-araubide berekoak badira eta titularrei eskubide eta betebehar eurak eratxikitzen badizkiete.

Hala ere, balore-multzo baten homogeneotasuna ez dago baloreen arteko desberdintasunen eraginpean; hau da, hura finkatzeko ez da kontuan hartu behar baloreen aleko zenbatekoa, noiz jarri diren zirkulazioan, noiz eman diren, noiz finkatu diren prezioak, nola saldu diren, inbertsiogile kategoria jakinetarako tarte edo multzoak dauden, ez besterik ezer. Bereziki, jaulkipena hainbat epealditan zatikatzeak ez dauka eraginik baloreen homogeneotasunean, ez eta zabalkuntzek ere.

## VI. KAPITULUA
## ALDI-EGOZKETA

### 52. artikulua. Etekinen aldi-egozketa.

1. Jarduera ekonomikoren bat egiten duten zergadunek Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta hura garatu duten arauetan etekinen aldi-egozketarako ezarritako irizpideak soilik aplikatuko dizkiete jardueraren errentei. Nolanahi ere, kontuan hartu behar dituzte Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritako espezialitateak eta hurrengo paragrafoan ezarritakoa. Halaber, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 57. artikuluko 3. eta 4. idatz-zatietan xedatutakoa aplikatuko da bertan aipatzen diren kasuetan egotzi gabeko errentei dagokienez.

2.

    1.a. Egiten duten jarduera ekonomikoaren etekin garbia kalkulatzeko zuzeneko zenbatespen erraztua aplikatzen duten zergadunek kobrantza eta ordainketen irizpidea hautatu ahal izango dute jardueraren sarreren eta gastuen aldi-egozketarako, baldin eta Zergari buruzko Foru Arauko 57. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letran ezarritako guztia betetzen bada.

    Sarreren eta gastuen aldi-egozketarako kobrantza eta ordainketa irizpidea aplikatzea Zerga Administrazioak onetsitzat joko da abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalei buruzko Erregelamenduko 39 bis artikuluan aipatzen den eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuan dagozkion idatzoharrak egiteko unean adierazte hutsagatik. Gutxienez hiru urtean mantendu beharko da.

    2.a. Idatz-zati honetako hautapenak eraginkortasuna galduko du hautapenaren ondoren zergadunak etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate arruntaren bidez zehaztu behar badu.

3. Autore-eskubideak ustiatzearen lagapenaren eraginezko etekinak zenbait urtetan sortzen direnean, zergadunak eskubideak sortu ahala egotzi ahal izango du etekin horien konturako aurrerapena.

4. Aldi-egozketarako irizpideen aldaketak inolaz ere ez du ekarriko gastu edo sarreren bat konputatu gabe geratzea, ez eta beste ekitaldi batean berriz egoztea ere. Egozketa-irizpide bat aldatu aurretik erregularizazioa egin behar da.

5. Pertsona bat atzerrira badoa bizitzen eta ondorioz zergadun izateari uzten badio, Zergari buruzko Foru Arauko 57. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritakoarekin bat etorriz, egotzi

gabeko errenta guztiak Zergaren azken aitorpenaren zergaldiko zerga-oinarrian integratu behar dira. Beharrezkoa izanez gero, autolikidazio osagarria egingo da egoitza aldatzeagatik zergadun izateari uzten dionetik hiru hilabete pasatu baino lehen, eta ez zaio ezarriko zehapenik, ez berandutze-korriturik, ez errekargurik.

## VII. KAPITULUA
## GAUZAZKO ERRENTAK

### 53. artikulua. Enpresen jantokiko gastuak, gauzazko ordainsariak ez direnak.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 17. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letran ezarritakoari dagokionez, zerbitzuak zuzenean eta zeharka egiteko formulak, laneko legerian onartuta daudenak, enpresaren jantokian enplegatuei produktuak prezio beheratuan ematetzat hartuko dira, ondoko baldintza hauek betez gero:

    1.a. Zerbitzua langilearen egun baliodunetan eman behar da.

    2.a. Zerbitzua ezin da egin enplegatuari edo langileari araudi honetako 13. artikuluan ezarritakoaren arabera kargapetik salbuetsita dauden mantenurako sariak sortzen zaizkion egunetan.

2. Zerbitzua zeharkako formulen bidez ematen bada, aurreko idatz-zatian eskatutako betekizunez gainera hauek ere bete behar dira:

    1.a. Zeharkako formulen zenbatekoak ezingo du gainditu eguneko 11 euroko kopurua. Eguneko zenbatekoa handiagoa bada, gauzazko lansari bat egongo da, gehiegizko zenbatekoaren bestekoa. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak aldatu ahal izango du zenbateko hori.

    2.a. Zerbitzua egiteko enplegatuari edo langileari janari-baleak edo antzeko agiriak, txartelak edo ordainbide elektronikoren bat emanez gero, ondokoak bete behar dira:

        a) Zenbakia eduki behar dute eta onuradunaren izena, eta eman duen enpresarena jarrita; paperezkoek balio izendatua ere agertu behar dute.

        b) Eskualdaezinak izan behar dira eta egun batean agortzen ez den zenbatekoa ezin da pilatu hurrengoetarako.

        c) Ez enpresak ez hirugarren batzuek ezin dute zenbatekorik itzuli.

        d) Ostalaritzako establezimenduetan soilik erabil daitezke.

        e) Janari-txartel edo agiriok ematen dituen enpresak enplegatu edo langile bakoitzari emandakoen zerrenda egin eta gorde behar du, eta datu hauek adierazi behar ditu:

            - Janari-txartelak edo antzeko agiriak: agiriaren zenbakia, noiz eman den eta zenbateko nominala.

            - Txartelak eta bestelako ordainbide elektronikoak: agiriaren zenbakia eta egun bakoitzean emandako dirua (data zehaztuta).

### 54. artikulua. Langileen seme-alaben haur hezkuntzako lehen ziklorako diru kopuruak.

Zergari buruzko Foru Arauko 17. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letran langileen gizarte eta kulturaren arloko zerbitzuetarako erabilitako ondasunei buruz ezarritako zeharkako formulak aplikatzeko, ez dira gauzazko ordainsaritzat hartuko urteko 1.000 eurotik gorako kopuruak.

**55. artikulua. Langileak eguneratzeko, gaitzeko eta erreziklatzeko erabiltzen diren kopuruak.**

Zergari buruzko Foru Arauko 17. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letran ezarritakoari dagokionez, ikasketak ez dira gauzazko ordainsaritzat hartuko, baldin eta ikasketok xedatzen badituzte erakunde, enpresa edota enplegatzaileek, eta eurek zuzenean edo zeharka finantzatzen badituzte, langileak eguneratu, gaitu edota birziklatzeko; ikasketok nahitaezkoak badira, jarduerak egiteko edo lanpostuen ezaugarriengatik, eta hori hala izango da, lana benetan beste pertsona edo erakunde espezializatu batzuek egiten badute ere. Kasu horietan, joan-etorri, mantenu eta egonaldi gastuetarako kopuruei dagokienez araudi honetako 13. artikuluan xedatutakoa izango da aginduzkoa.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da ikasketak enplegatzaileak zeharka xedatu eta finantzatu dituela, betiere, enpresa edo entitate horiek merkaturatzen dituzten produktuekin jarduteko beharrezkoa bada langileek behar bezalako prestakuntza izatea, eta enplegatzaileak parte-hartzeko baimena ematen badu.

**56. artikulua. Sozietateen sortzaileen edo sustatzaileen eskubideak.**

Sozietateen sortzaileek eta sustatzaileek euren zerbitzu pertsonalen ordainsari gisa eurentzat gordetzen duten eskubide ekonomiko berezia erakundearen irabazien ehuneko jakin bat jasotzea gaineko bada, eskubidearen balorazioa erakundean ehuneko bereko partaidetza edukitzeko behar den sozietate-kapitalaren %35 da.

**57. artikulua. Langileak teknologia berrietara ohitzeko erabiltzen diren kopuruak .**

Zergari buruzko Foru Arauko 17. artikuluko 2. idatz-zatiko d) letran ezarritakoari dagokionez, ez dira gauzazko ordainsaritzat hartuko enplegatzaileek langileak teknologia berrietara ohitzeko erabiltzen dituzten diru kopuruak. Horien artean sartu behar dira Internet-eko konexioa emateko, ahalbidetzeko edo finantzatzeko kopuruak, eta Internet erabiltzeko behar diren ekipo informatikoak eta terminalak (softwarea eta periferikoak barne) dohainik edo prezio beheratuetan emateak edo haiek eskuratzeko maileguak eta diru-laguntzak emateak eragiten dituenak, enplegatuek lantokitik eta lan-ordutegitik kanpo erabili ahal badituzte ere.

**58. artikulua. Heriotza edo elbarritasuneko arrisku garbiko aldi baterako aseguru kolektiboen primak.**

Zergari buruzko Foru Arauko 17. artikuluko 2. idatz-zatiko f) letran xedatutakoa aplikatzeko, ez da gauzazko ordainsaritzat hartuko hitzarmenean, talde-erabakian edo xedapen baliokidean ezarritakoa dela bide heriotza edo elbarritasunerako kontratatzen diren arrisku garbiko aldi baterako aseguru kolektiboei dagozkien primak.

**58 bis artikulua. Pertsonen garraio kolektiborako zerbitzu publikoaren zeharkako ordainketa-formulak.**

1. Zergaren Foru Arauaren 17.2.g) artikuluan ezartzen denaren ondorioetarako, pertsonen garraio kolektiborako zerbitzu publikoa egiten duten entitateei zeharkako ordaintzeko formula da langileei ematea ordainketak egiteko txartelak edo bestelako baliabide elektronikoak, honako baldintza hauek betez gero:

    1. Pertsonen garraio kolektiboaren zerbitzua erabiltzeko garraio-tituluen kontraprestazio gisa soilik erabili ahal izatea.

    2. Zenbakituta egotea, izenarekin ematea, eta enpresaren izena agertzea.

    3. Eskualdaezinak izatea.

    4. Ez enpresak ez hirugarrenek dirua ezin itzuli izatea.

5. Txartelak edo ordainbide elektronikoak ematen dituen enpresak langile bakoitzari emandakoen zerrenda gorde beharko du; bertan honako datu hauek agertu behar dira:

    a) Agiriaren zenbakia.

    b) Langilearen esku urtean jarritako zenbatekoa.

2. Zeharkako ordainketa-formula hauen bidez lortutako zenbatekoa ez da izango gauzazko lansaria, eta ezin izango da izan 136,36 euro hilean baino gehiago, ez 1.500 euro urtean baino gehiago.

## VIII. KAPITULUA
## ERRENTEN ERATXIKIPENA

### 59. artikulua. Errenten eratxikipenaren araubidean ez dauden erakundeak.

1. Testamentu-ahalordea baliatzearen zain dauden jarauntsiei inolaz ere ezin zaie aplikatu Zergari buruzko Foru Arauko 11. artikuluan ezarritako etekinen eratxikipenaren araubidea.

2. Errenten eratxikipenaren araubidea ezin zaie aplikatu testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dauden jarauntsien etekinei, ondareko irabazi-galerei ez errenta-egozketei; horiek Zergari buruzko Foru Arauko 12. artikuluko 6. idatz-zatian eta araudi honetako hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera kargatuko dira.

3. Errentak eratxikitzeko araubidea ezin izango zaie aplikatu beren zerga-egoitzari dagokion arautegiaren arabera Sozietateen gaineko Zergaren zergadun diren sozietate zibiletako bazkideei, Zergari buruzko Foru Arauko hogeita hamalaugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat.

### 60. artikulua. Testamentu-ahalordea erabili gabe duten jaraunspenen etekinak,ondareko irabazi-galerak eta errenta-egozketak.

1. Eskualdaketa baten ondoriozkoak ez diren ondasun eta eskubideak eransteagatik sortzen diren etekinak eta ondareko irabazi-galerak zein testamentu-ahalordea erabili gabe duten jaraunspenei dagozkien errenta-egozketak jaraunspeneko ondasunen gozamendunei eratxikiko zaizkie, beren jatorriaren edo iturburuaren arabera, baldin eta ondasun eta eskubideon gainean pertsona jakin batentzako edo batzuentzako gozamen-eskubidea ezarri bada, kausatzaileak berak aginduta edo Euskal Zuzenbide Zibileko legeria aplikatuta.

   Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, alargunak edo bizirik dirauen izatezko bikotekideak Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko 2015eko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 43. artikuluan ezarritakoaren arabera egindako xedapen-egintzen ondorioz jaraunspenaren parte diren ondasun eta eskubideak eskualdatuz lortutako ondareko irabazi-galerak zein Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauaren 35. artikuluan aipatutako kapital higigarriaren etekinak (besteren kapitalen erakarketa eta erabilera ordezten dituzten aktiboak —jaraunspenekoak—eskualdatuz lortzen badira) jaraunspenari berari eratxikiko zaizkio beti, baldin eta eskualdaketa horiek ez badute eragiten Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena, eta 2002ko urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauaren II. tituluko I. kapituluan (arau horrek Bizkaiko Lurralde Historikoaren Tributu-Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunei egokitzen du) ezarritakoaren arabera tributatuko dute.

   Araudi honen 23. artikuluko 1. zenbakian xedatutakoa gorabehera, jarduera ekonomikoen etekinak izaera horrekin egotziko zaizkio gozamendunari, eta ez da kontuan hartuko ea gozamendunak berak ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean esku hartzen duen ala ez jarduerari afektaturiko produkzio-bideak edo giza baliabideak bere kabuz antolatzen.

2. Gozamen-eskubide bati lotuta ez dauden ondasunen eta eskubideen etekinak, ondareko irabazi-galerak eta errenta-egozketak jaraunspenari berari eratxikiko zaizkio, eta 2002ko urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauaren II. tituluko I. kapituluan (arau horrek Bizkaiko Lurralde

Historikoaren Tributu-Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunei egokitzen du) eta 2002ko abenduaren 3ko 183/2002 Foru Dekretuaren II. tituluan (foru-dekretu horrek urriaren 15eko 7/2002 Foru Araua garatu zuen, eta foru-arau horren bidez, berriz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara moldatu zen) ezarritakoaren arabera tributatuko dute.

3. Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzko 2015eko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 140. artikuluan ezarritako ezkontza ondoko erkidegoaren etekinak, ondareko irabazi-galerak eta errenta-egozketak, testamentu-ahalordea erabili bitartean, erdi bana esleituko zaizkie ezkontide alargunari eta testamentu-ahalordea erabili gabe duen jaraunspenari, artikulu honen aurreko bi zenbakietan ezarritako erregelen arabera.

### IX. KAPITULUA
### AURREZKIAREN ERRENTA

**61. artikulua. Aurrezkiaren errenta eta norberaren kapitalak lotutako erakundeei lagata lortutako etekinak.**

Zergari buruzko Foru Arauko 63. artikuluko b) letran ezarritakoari dagokionez, norberaren kapitalak zergadunarekin lotura duten erakundeei lagata lortzen diren etekinak finantza-erakundeengandik jasotzen badira eta erakunde ordaintzaileari lotutzat jotzen diren pertsonen antzeko ezaugarriak dituzten beste kolektibo batzuei eskainitakoen aldean desberdinak ez badira, aurrezkiaren errentan sartu behar dira nahitaez.

## IV. TITULUA
## LIKIDAZIO-OINARRI OROKORRA

**62. artikulua. Erretiroa.**

1. Zergari buruzko Foru Arauko 70. artikuluko 5. idatz-zatian eta 71. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritakoari dagokionez ondoko kasuan gertatuko da erretiroa: bazkideak, partaideak, mutualistak edo aseguratuak erretiratzea onartzen duenean berari dagokion Gizarte Segurantzaren araubidean edo araubide horren ordezko edo alternatiba diren erakundeetan. Horri dagokionez, aurreratutako erretiroa, malgua, partziala eta onartzen diren beste formula baliokide batzuk erretirotzat hartuko dira.

   Hala ere, baldin eta bazkide, partaide, mutualista edo aseguratu batek erretiro partzialari heltzen badio, zerga-oinarritik kendu daitezke erretiro osorako egindako ekarpenak eta kontribuzioak.

2. Ezinezkoa bada aurreko idatz-zatian aipatutako erretiroari heltzea, erretiroaren kontingentzia gizarte aurreikuspeneko planaren estatutuetan ezarritako adinean gertatuko da (ezin da izan hirurogei urtetik behera); estatutuetan erretiratzeko adinik zehazten ez bada, Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean ezarritako adinera iristean gertatuko da.

3. Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean erretiratzeko ezarritako adinetik aurrera ezindurik gertatzen diren zergadunak erretiratutzat joko dira artikulu honetan ezarritakoaren ondoreetarako.

**63. artikulua. Bermatutako aurreikuspen-planak.**

1. Zergari buruzko Foru Arauko 70. artikuluko 1. idatz-zatiko 5. zenbakiko b) letran xedatutakoari dagokionez, aseguru-kontratu baten estaldura nagusia erretiroa dela pentsatuko da baldin eta urte bakoitzean erretirorako eta mendekotasunerako batutako hornidura matematikoa gutxienez planari ekin zaionetik heriotza eta desgaitasunerako kapitala eratzeko ordaindutako prima guztien batura halako hiru bada.

2. Bermatutako aurreikuspen-planetako kopuruak pentsio-planei buruzko arauetan ezarritako kasuetan soilik baliatu ahal izango dira aldez aurretik.

Aldez aurretik baliatzeko eskubidearen balioa hornidura matematikoaren zenbatekoa izango da; kopuru horri ezin aplikatu izango zaio ez zehapenik ez gasturik ez deskonturik.

Hala ere, erakundeak lotutako inbertsiorik badauka, aldez aurretik baliatzeko eskubidearen balioa aktiboen merkatuko balioa izango da.

3. Bermatutako aurreikuspen-plan baten hartzaileak hornidura matematiko osoa edo zati bat mugi dezake hartzaile den bermatutako beste aurreikuspen-plan batera edo batzuetara edo kide den sistemako (banakoa zein taldekoa) pentsio-plan batera zein batzuetara. Behin kontingentziara helduz gero, planak bide ematen duenean soilik mugitu ahal izango dituzte kopuruak.

   Horretarako, hartzaileak edo onuradunak hornidura jasoko duen aseguru-erakundera edo erakunde kudeatzailera jo behar du eta eskaera aurkeztearekin batera zehaztu behar du bermatutako zer aurreikuspen-planetatik hartu behar den hornidura eta zein den aseguru-erakundea (beharrezkoa bada, zenbatekoa ere bai). Eskaerarekin batera sorburuko aseguru-erakundeari berri-ematea aurkeztu behar zaio hornidura plan batetik bestera aldatzeko agindu dezan. Horrez gainera hartzaileak edo onuradunak baimena eman behar dio aseguru-erakundeari beraren izenean sorburuko aseguru-erakundeari eskatu diezaion hornidura matematikoa beste planera aldatzeko, eta horrekin batera aldaketarako behar den finantza-informazio eta zerga-informazio guztia ere bai.

   Hitzarmena edo kontratua dela bide aukera badago hornidura-mugimenduak egiteko eskaerak bitartekarien bidez edo beste erakunde batzuen merkataritza-sareen bidez kudeatzeko, horien bidez aurkezten diren eskaerak aseguru-erakundean edo erakunde kudeatzailean aurkeztutzat joko dira.

   Hornidura jasotzen duen aseguru-erakundeak edo erakunde kudeatzaileak bi gauza egin behar ditu beharrezko dokumentazio osoa bere esku daukanetik bi egun baliodun pasatu baino lehen: hornidura-aldaketarako arauz ezarritako guztia betetzen denez egiaztatu eta eskaera jakinarazi sorburuko aseguru-erakundeari. Jakinarazpenean ondoko datu hauek zehaztu behar ditu, gutxienez: hornidura bermatutako zer aurreikuspen-planek jasoko duen eta zein den aseguru-erakundea, eta transferentzia jasoko den kontuaren datuak; edo, bestela, hornidura jasoko duen pentsio-plana eta hura atxikita dagoen pentsio-funtsa, funts hori kudeatzen duen erakundea (gordailuzaina), eta transferentzia jasoko den kontuaren datuak.

   Eskaera eta beharrezko dokumentazioa jasotzen dituenetik bost egun baliodun pasatu baino lehen sorburuko aseguru-erakundeak banku-transferentzia agindu behar du eta hornidura plan batetik bestera aldatzeko behar den finantza-informazio eta zerga-informazio guztia bidali behar dio hura jasoko duen aseguru-erakundeari edo erakunde kudeatzaileari.

   Sorburuko aseguru-erakundeak hornidura jasoko duen bermatutako aurreikuspen-plana bermatzen badu edo hornidura jasoko duen pentsio-plana kudeatzen badu, hartzaileak ondoko datuak zehaztu behar ditu eskaeran: zenbat diru mugitu nahi duen eta hauetako bat, hornidura bermatutako zer aurreikuspen planek edo zer pentsio-planek jasoko duen (pentsio-planak jasoko badu, zer pentsio-funtsi atxikita dagoen ere bai). Sorburuko aseguru-erakundeak hiru egun balioduneko epealdia edukiko du transferentzia agintzeko eskaera aurkezten denetik aurrera.

   Hornidura matematikoa baloratzeko, mugimendua gertatzen den eguna hartuko da aintzat. Dena den, aseguru-kontratuan ezar daiteke baloraziorako mugimendua gertatzen egunaren bezpera hartu behar dela aintzat.

   Erakundeak lotutako inbertsiorik badauka, mugitzen den hornidura matematikoaren balioa aktiboen merkatuko balioa izango da.

   Mugitzen den kopuruari ezin zaio aplikatu zehapenik, ez gasturik, ez deskonturik.

Idatz-zati honetan aipatzen diren hornidura-mugimenduak egiteko hauxe erabil daiteke: martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuko 49.3 artikuluko azkenaurreko paragrafoan baimendutako sistema (dekretu horren bidez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia onetsi zen eta otsailaren 20ko 304/2004 Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Plan eta Funtsen Araudia aldatu zen).

Artikulu honetako 1. idatz-zatian ezarritako betekizuna betetzeko, mugimendua bermatutako aurreikuspen-plan batetik halako beste plan batera egiten bada edo pentsio-plan batetik bermatutako aurreikuspen plan batera, aseguru-kontratu berriaren primak eta hornidura matematikoa bakarrik konputatuko dira. Hori dela eta, artikulu honetako 1. idatz-zatian ezarritako betekizuna sorburuko bermatutako aurreikuspen-planean ere bete behar da mugimendua gertatzen den unean.

**64. artikulua. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen eskubide sendotuak baliatzen direnean autolikidazio osagarria aurkezteko epealdia.**

Zergari buruzko Foru Arauko 70. artikuluko 4. idatz-zatian, 72. artikuluko 4. idatz-zatian eta bederatzigarren xedapen gehigarriko 3. idatz-zatiko c) letran eta 4. idatz-zatiko azken paragrafoan ezarritakoa aplikatzeko, gizarte-aurreikuspeneko sistemetako eskubide sendotuak aldez aurretik baliatzeagatik zerga-oinarrian bidegabe aplikatutako murrizketak berrezartzeko egiten diren autolikidazio osagarriak eskubideak baliatzen direnetik zergaldiko autolikidazioa aurkezteko epealdia amaitu arte aurkez daitezke.

**65. artikulua. Gizarte-aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenen eta kontribuzioen gaindikinak, zerga-oinarria murrizteko erabiltzen ez direnak: zerga-tratamendua.**

1. Partaideek, mutualistek, aseguratuek eta bazkideek eskatu dezakete ekitaldi batean egindako ekarpen eta kontribuzioetatik zerga-oinarria murrizteko (Zergari buruzko Foru Arauko 71. artikuluko 3. idatz-zatia, 72. artikuluko 2. idatz-zatia eta bederatzigarren xedapen gehigarriko 3. idatz-zatiko b letra) erabiltzen ez dituzten kopuruak hurrengo bost ekitaldietako zerga-oinarriak murrizteko aplikatzeko.

2. Eskaera Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioan egin behar da, hain zuzen ere egindako ekarpenek edo kontribuzioek, mugak gainditzeagatik edo zerga-oinarria aski ez izateagatik, zerga-oinarri orokorrean murrizketarik eragin ez duten ekitaldiko autolikidazioan.

3. Gaindikinak hurrengo bost ekitaldietan egotzi behar dira, hain zuzen ere zerga-oinarri orokorretik konpentsazio-pentsioen eta mantenurako urtekoen zenbatekoa kenduta geratzen den saldoa positiboa den lehenengo ekitaldian. Horretarako Zergari buruzko Foru Arauko 71. artikuluko 3. idatz-zatian, 72. artikuluko 2. idatz-zatian eta bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak eta mugak errespetatu behar dira.

4. Zergaldi batean gaindikina gertatzen bada zergadunaren beraren ekarpenak eta sustatzaileak edo bazkide babesleak egindakoak Zergari buruzko Foru Arauan ezarritako mugez gainekoak izateagatik, murrizketak lehentasun-hurrenkera honen arabera aplikatuko dira:

    1. Aurreko ekitaldietako ekarpenen murrizketak.

    2. Aurreko ekitaldietako kontribuzioen murrizketak.

    3. Ekitaldiko kontribuzioen murrizketak.

    4. Ekitaldiko ekarpenen murrizketak.

# V. TITULUA
# KUOTAKO KENKARIAK

## I. KAPITULUA
## DESGAITASUNAGATIK EDO MENDEKOTASUNAGATIK APLIKA DAITEKEEN KENKARIA

### 66. artikulua. Desgaitasunaren edo mendekotasunaren gradua frogatzea.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 23. eta 82. artikuluetan aipatutako desgaitasuna Zerga Administrazioari frogatzeko Zuzenbidean onartutako frogabideak erabil daitezke.

   Hala ere, ondoko kasuetan pertsonaren legezko desgaitasuna frogatutzat joko da:

   a) Foru Aldundiko organo eskudunak, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionalak edo kasuan kasuko autonomia erkidegoko organoak ziurtatzen duenean.

      Hori dela eta, ez da beharrezkoa ziurtagiriak horretarako berariaz eginak izatea; aitzitik, aipatutako organoek egindako beste edozein agirik ere balio du, baldin eta bertan argi eta garbi zehazten bada zenbatekoa den desgaitasunaren gradua eta nolako lotura duen Zergari buruzko Foru Arauko 23. eta 84. artikuluetan, hurrenez hurren, aipatutako baremoekin.

   b) Baldin eta Gizarte Segurantzak edo Klase Pasiboen Araubide Bereziak aitortutako prestazioa jasotzen bada ezintasun iraunkorragatik, hura aitortzeko Zergaren Foru Arauaren 23. eta 82. artikuluetan ezarritako desgaitasun-gradua eskatuz gero.

      Hain zuzen ere, honako hauei 100eko 33ko desgaitasuna edo handiagoa frogatutzat emango zaie: ezintasun iraunkor osoaren, erabateko ezintasun iraunkorraren edo baliaezintasun handiaren ziozko pentsioa aintzatetsita daukaten Gizarte Segurantzako pentsiodunak; zerbitzurako ezintasun iraunkorragatik edo baliaezintasunagatik erretiro-pentsioa aintzatetsita daukaten klase pasiboetako pentsiodunak.

      Nolanahi ere, epaile batek pertsona bati ordezkapen-ahalmenak dituen kuradoretza ezartzen badio, zerga honi buruzko araudian 100eko 65eko desgaitasuna edo handiagoa daukaten pertsonez ezarritako xedapen bereziak aplikatuko dira.

2. Zergari buruzko Foru Arauko 82. artikuluan aipatzen den mendekotasuna onartuko zaie 2011ko otsailaren 11ko 147/2011 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera desgaitasuna aitortuta duten pertsonei (dekretu horren bidez, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak mendekotasuna balioztatzeko ezarritako baremoa onetsi da).

   Mendekotasuna eta beraren gradua frogatzeko Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunaren, Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren edo autonomia-erkidego bakoitzean dagokion organoaren ziurtagiria aurkeztu behar da.

   Hori dela eta, ez da beharrezkoa ziurtagiriak horretarako berariaz eginak izatea; aitzitik, aipatutako organoek egindako beste edozein agirik ere balio du, baldin eta bertan argi eta garbi zehazten bada zein den desgaitasunaren gradua eta nolako lotura duen artikulu honetako 1. zenbakian aipatutako baremoekin.

3. Zergari buruzko Foru Arauko 23. artikuluko 3. idatz-zatian eta 82. artikuluan aipatzen diren kenkariak edo hobariak aplikatzeko ezinbestekoa da frogatzea Zergaren sortzapenaren egunean desgaitasuna edo mendekotasuna dakarten inguruabarrak gertatzen direla.

   Hala ere, desgaitasunak edo mendekotasunak berariaz adierazita badauka iraunkorra dela, edo Zergaren sortzapen-eguna beraren kalifikazioa baliozkoa den aldian barruan badago, ez da beharrezkoa izango desgaitasuna edo mendekotasuna frogatzen duen agiriaren erreferentzia sortzapen-eguna izatea.

## II. KAPITULUA
## OHIKO ETXEBIZITZA ESKURATZEAGATIK APLIKA DAITEKEEN KENKARIA

### 67. artikulua. Ohiko etxebizitza zer den.

1. Oro har, ohiko etxebizitzatzat hartuko da zergaduna gutxienez hiru urte jarraian bizi den eraikina.

   Hala ere, etxebizitza ohikotzat hartuko da, nahiz eta bertan hiru urte jarraian bizi ez, zergaduna hiltzen denean edo ezinbestean etxebizitza aldatzera behartzen duen zerbait gertatzen denean, esaterako: etxebizitza ez egokitzea zergadunaren edo harekin bizi den ondorengoaren edo aurreko ahaidearen, ezkontidearen edo izatezko bikoteko kidearen desgaitasun mailara edo Zergaren kuota osoan kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duen pertsonarenera; senar-emaztegaiak ezkontzea; senar-emazteak banantzea; izatezko bikotea desegitea, lantokia aldatzea; lehen enplegua lortu edo enplegua aldatzea; inguruabar ekonomikoengatik aipatu aldian etxebizitzaren ordainketari aurre ezin egin izatea; edo arrazoitutako antzeko beste egoerak gertatzea.

   Ez dira ohiko etxebizitzaren kontzeptuaren barruan sartuko lorategiak, parkeak, igerilekuak eta kirol instalazioak, garajeak eta, oro har, eranskinak edo beste edozein osagai edo elementu, etxebizitza berez ez dena, salbu eta elementu horiek etxebizitzarekin batera erregistroko finka bakar bat direnean.

   Familia unitateko kideak hiri-lurreko ondasun higiezin bat baino gehiagoren titularrak badira, horietako bat bakarrik hartuko da ohiko etxebizitzatzat. Horretarako, familia unitateak bere bizitza interesen eta harreman pertsonal, sozial eta ekonomikoen gune nagusitzat duena hartuko da ohikotzat.

2. Etxebizitza bat zergadunaren ohiko egoitza izan dadin, zergaduna bera benetan eta iraunkortasunez bizi behar da bertan hamabi hilabetez etxebizitza erosi edo obrak amaitu direnetik aurrera.

   Hala ere, etxebizitzak ez dio ohikoa izateari uzten honako inguruabar hauek gertatzen direnean:

   a) Zergaduna hiltzen denean edo etxebizitza okupatzea eragozten duen zerbait gertatzen denean, artikulu honetako 1. idatz-zatian ezarritakoarekin bat etorriz.

   b) Zergadunak ohiko etxebizitza karguagatik edo enpleguagatik badauka eta eskuratutako etxebizitza erabiltzen ez badu; honelako kasuetan lehen aipatutako hamabi hileko epealdia kargua edo enplegua uzten duen egunetik aurrera zenbatu behar da.

   Lokalak etxebizitza gisa gaitzen badira, etxebizitza lehen aldiz erabili edo okupatzeko lizentzia ematen denetik aurrera hasiko da zenbatzen atal honetako lehenengo paragrafoan aipatzen den hamabi hileko epealdia.

3. Aurreko paragrafoetan ezarritako salbuespenak aplikatu behar direnean, etxebizitza aldatzea nahitaez dakarten edo etxebizitzan bizitzea eragozten duten inguruabarrak gertatu arte aplikatuko da ohiko etxebizitza erosteagatiko kenkaria, salbu eta zergadunak karguagatik edo enpleguagatik erabiltzen duenean ohiko etxebizitza (horrelakoetan kontzeptu honen kenkariak aplikatu ahal izango ditu egoera horrek dirauen artean, etxebizitza erabiltzen ez badu).

   Hori dela eta, aurrekoarekin parekatuko da zergadunak etxebizitzaren beharra konpentsatzeko kopuruak jasotzea eta, gainera, etxebizitza familia unitatetik kanpoko pertsonek ez erabiltzea.

4. Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko b) eta c) letretan eta 49. artikuluan ezarritako salbuespenak aplikatzeko, ez beste ezertarako, ondoko kasuan zergadunak ohiko etxebizitza eskualdatu duela pentsatuko da: artikulu honetan ezarritakoaren arabera

eraikina une horretan beraren ohiko etxebizitza denean edo, bestela, eskualdatu aurreko bi urteetan ohikoa izateari utzi dionean.

Era berean, Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko b) eta c) letretan ezarritako salbuespenak aplikatzeko, ez beste ezertarako, zergaduna mendekotasun-egoeran badago, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean xedatutakoaren arabera, edo gaixotasun larria duela egiaztatzen badu, eta bere ohiko etxebizitza aldatu beharra badu, harekin alboko lerroan edo zuzenekoan laugarren gradura arteko odolkidetasun bidezko ahaide direnek zaintzeko, haien ohiko etxebizitzan, edo egoitza batera joan beharra badu, ulertuko da lekualdatzea egin aurretik ohiko etxebizitza zuen higiezinak izaera hori mantenduko duela, adierazitako arrazoiak direla-eta; betiere, higiezin horri ez bazaio bestelako erabilerarik ematen.

**68. artikulua. Ohiko etxebizitza eskuratzea.**

1. Ondoko kasu hauek ohiko etxebizitza eskuratzetzat hartuko dira:

   a) Etxebizitza handitzea, baldin eta bizi izateko den azalera handitzen bada, bai haize ageriko aldea itxiz, bai beste edozelan, modu iraunkorrean eta urtaro guztietan zehar.

   b) Eraikuntza; zergadunak zuzenean ordaintzen baditu obrak egitearen ondoriozko gastuak, edo obren sustatzaileari konturako kopuruak ematen badizkio, betiere obra horiek, gehienez, lau urteko epealdian amaitzen direnean, inbertsioa hasten denetik zenbatuta.

   c) Higiezinaren azalerako eskubidea eskuratzea, baldin eta higiezina ohiko etxebizitza izango bada eta herri titulartasuneko lurzoruaren gainean eraikitzen bada.

   d) Ohiko etxebizitzan egokitzapenerako egiten diren obra eta instalazioak, bai eta eraikinaren elementu erkideak aldarazteko egiten direnak ere, baldin eta nahitaezko pasabide badira hiri-lurreko finkaren eta herriko bidearen artean, berbarako, eskailerak, igogailuak, karrajuak, atariak edo arkitekturako beste edozein osagai, eta desgaituen edo mendekotasunean daudenen sentimenezko komunikaziorako edo haien segurtasunaren sustapenerako oztopoak gainditzeko eragingailu elektronikoak ezartzeko egiten direnak ere bai.

   Kontzeptu honen barruan sartuta daude, halaber, letra honetako azken paragrafoan aipatutako pertsonek errentari, azpierrentari edo gozamendun gisa hartutako etxebizitzak egokitzeko egiten dituzten obrak eta instalazioak.

   Egokitzapenerako obrei eta instalazioei dagokienez, araudi honetako 66. artikuluan aipatutako organoetako batek ziurtatu behar du beharrezkoak direla desgaitasuna edo mendekotasuna daukaten pertsonen irisgarritasunerako eta sentimen-komunikaziorako, hau da, haiek duintasunarekin eta modu egokian bizitzeko.

   Obra horiek desgaitasuna edo mendekotasuna daukan zergadunak berak egin behar ditu, edo desgaituta edo mendekotasunean dagoen aurreko, ondorengo, ezkontide edo izatezko bikotekide batekin bizi den zergadunak, edo Zergari buruzko Foru Arauko 82. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duen desgaitu edo mendeko batekin bizi den zergadunak, edo ohiko etxebizitzaren elementu erkideak eraldatzeko obrak ordaindu behar dituzten jabekideek.

2. Epaileak onartutako konkurtsoaren ondorioz sustatzaileak ez baditu eraikuntza obrak lau urteko epealdian amaitzen (artikulu honetako 1. idatz-zatiko b) letra), edo ezin baditu etxebizitzak epealdi horretan eman, epealdia beste lau urte luzatuko da.

   Kasu horietan hamabi hileko epealdia, aurreko artikuluko 2. paragrafoko lehenengo paragrafoan aipatzen dena, etxebizitza ematen den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Paragrafo honetan ezartzen den epealdia luzatzeak ondoreak sortu ditzan ezinbestekoa da zergadunak zergaldiko autolikidazioari, hau da, hasierako epealdia bete ez den zergaldikoari, etxebizitzan egindako inbertsioen frogagiriak eranstea, edo egoera horietarik bat gertatu dela frogatzen duen agiria.

Idatz-zati honetako kasuetan zergadunak ez dauka dirurik sartu beharrik eraikuntza-obrak amaitzeko lau urteko epealdi orokorra ez betetzeagatik.

3. Zergadunari leporatu ezin zaizkion aparteko inguruabarrengatik obrak bertan behera utzi behar badira eta ondorioz ezin badira amaitu artikulu honetako 1. idatz-zatiko b) letran aipatzen den lau urteko epealdian, zergadunak epealdia luzatzeko eskatu ahal izango dio Zerga Administrazioari lau urteko epealdia amaitu ondoko hilean.

   Eskaeran epealdia zergatik ez den bete azaldu behar da, eta eraikuntza-obrak amaitzeko zenbat denbora beharko den zehaztu behar da (ezin da izan lau urte baino luzeagoa).

   Aurreko paragrafoan adierazitakoari dagokionez, zergadunak frogagiri egokia aurkeztu beharko du.

   Aurkeztutako agiriak ikusita, Zerga Administrazioak erabakiko du eskatu den luzapen hori bidezkoa denez, bai eta epealdia zenbat luzatuko den ere (luzapenak ez dauka nahitaez zergadunak eskatutakoa izan behar).

   Epealdiak luzatzeko eskaerak berariaz ebazten ez badira hiru hileko epealdian, ezetsitzat hartu behar dira.

   Luzapena ematen bada, obrak bertan behera geratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

4. Hurrengoak ez dira etxebizitzaren eskuraketatzat hartuko:

   a) Etxebizitza artatzeko eta konpontzeko egiten diren gastuak, araudi honetako 37. artikuluan ezarritakoaren arabera.

   b) Hobekuntzak.

   c) Garaje-sailak, lorategiak, parkeak, igerilekuak eta kirol instalazioak erostea, eta, oro har, eranskinak edo beste edozein elementu erostea, baldin eta ez badira ohiko etxebizitzaren kontzeptuaren barruan sartzen araudi honetako 67. artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoaren arabera.

5. Birdoikuntzatzat hartuko da jabeak bere ohiko etxebizitzan ondare urbanizatu eta eraikiaren birdoikuntzarako jarduketa babestuei buruzko Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan xedatua dela bide jarduketa babestu kalifikatutako obrak egitea. Halaber, birdoikuntzatzat hartuko dira abenduaren 12ko 2066/2008 Errege Dekretuarekin edo haren ordezko arauekin bat etorriz babesteko moduko jarduketa kalifikatzen direnak.

   Aurreko paragrafoan ezarritakoari dagokionez, jabeak ohiko etxebizitzan egindako obratzat hartuko dira zergadunak bere lokal bat etxebizitza gisa gaitzeko asmoarekin egindako lanak, baldin eta beraren ohiko etxebizitza izango bada araudi honetako 67. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

**69. artikulua. Etxebizitza-kontuak.**

1. Kreditu-erakundeetan beste edozein ezarpen motatatik bereizitako kontuetan gordailatzen diren kopuruak ohiko etxebizitzaren eskuraketarekin parekatuko dira kasu honetan: kenkarirako eskubidea sortzen duten kopurua zergadunaren ohiko etxebizitza erosteko erabiltzen bada sei urte pasatu baino lehen.

Aurreko baldintza ez da beteko gordailatutako kopurua beste etxebizitza-kontu batean ezarrita.

2. Ondoko kasuetan kenkaria aplikatzeko eskubidea galduko da:

   a) Zergadunak etxebizitza-kontuan gordailatutako kopuruak, kenkaria aplikatzeko eskubidea sortu dutenak, ohiko etxebizitza erosteko ez beste xede baterako erabiltzen baditu eta Zergaren sortzapena gertatu aurretik kreditu-erakunde bereko edo beste bateko beste kontu batean oso-osorik birjartzen ez badira edo kontu horretara aldatzen ez badira. Gordailatutako kopuruen zati bat erabiltzen bada, erabilitako kopuruak zergadunak lehenengo gordailatutakoak direla pentsatuko da.

   b) Kontua irekitzen denetik sei urte pasatzen badira kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen duten kopuruak ohiko etxebizitza erosteko erabili gabe.

   c) Ondoren egiten den ohiko etxebizitzaren eskuraketan ez badira betetzen kenkari hau aplikatzeko eskubidea ematen duten baldintzak.

3. Zergadun bakoitzak etxebizitza-kontu bat bakarrik eduki dezake.

4. Etxebizitza-kontuak bereizita identifikatu behar dira Zergaren autolikidazioan; gutxienez datu hauek adierazi behar dira:

   - Kontua dagoen erakundea.

   - Kontuaren zenbakia.

   - Kontua ireki den eguna.

   - Ekitaldian zenbatean gehitu den kontuaren saldoa.

5. Aplikatutako kenkariak egiteko eskubidea galduz gero, zergadunak ondoko hauek batu behar dizkio kenkarirako baldintzak bete ez dituen zergaldiko zerga-kuotari: kendutako kopuruak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 26. artikuluan aipatzen diren berandutze-korrituak.

**70. artikulua. Ohiko etxebizitza eskuratzeagatik aplika daitekeen kenkaria eta berrinbertsioagatiko salbuespena.**

Ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatiko salbuespena hautatzen bada, zergadunak, Zergari buruzko Foru Arauko 87. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritako 36.000 euroko zenbatekoa gutxitu ahal izateko, lehenbizi ondare-irabazi salbuetsiaren %18 egotzi behar du etxebizitza saldu duen ekitaldian.

**71. artikulua. Epaile baten erabakiagatik diru kopuruak ordaindu behar izatea familia etxebizitzarako.**

1. Epaileak erabakita, zergadunari bakarrik ezarri bazaio familiaren etxebizitza dela eta Zergari buruzko Foru Arauko 87. artikuluko 1. idatz-zatian aipatzen diren kopuruetako bat ordaindu beharra, eskubidea edukiko du bere autolikidazioan artikulu horretan aipatutako kenkaria aplikatzeko.

   Kasu horretan, kenkari gisa erabilitako kopuruek gutxitu egingo dute zergadun horren Zergari buruzko Foru Arauko 87. artikuluan aipatzen den 36.000 euroko zenbatekoa.

2. Betebehar hori bi zergadunei ezarri bazaie, kenkaria bien artean hainbanatuko da eta bakoitzak berari dagokion proportzioa aplikatuko du bere autolikidazioan, Zergari buruzko Foru Arauko 87. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritako ehunekoak eta muga kontuan hartuta.

Gainera Zergari buruzko Foru Arauan eta araudi honetan ezarritako gainerako baldintzak eta mugak ere aplikatuko dira.

### 71.bis artikulua. Kenkaria zilarrezko ekonomiarekin lotutako mikroenpresetan, enpresa txikietan edo enpresa ertain inbertitzeagatik.

1. Zergaren Foru Arauaren 90. 2 b) artikuluan xedatzen denari dagokionez, entitate baten sozietate-xedea zuzenean lotuta dago zilarrezko ekonomiaren sektorearekin haren jardunaren zuzeneko helburua adineko pertsonen beharrizan berezietara egokitutako ondasunak eta zerbitzuak diseinatzea, ekoiztea edota hornitzea denean, batez ere honako eremu hauetan: osasuna eta zaintza, komunikazioa, ekonomiaren eta finantzen inguruko aholkularitza, trebakuntza eta talentuaren aprobetxamendua, aisia eta entretenimendua, segurtasuna, garraioa eta etxebizitza.

   Aurreko paragrafoan aipatzen den zuzeneko lotura egoteko, entitateak adineko pertsonen beharrizan berezietara egokitutako ondasunak eta zerbitzuak diseinatzen, ekoizten edota hornitzen lortutako diru-sarrerak beraren diru-sarrera guztien % 50 izan behar dira gutxienez.

   Aurreko paragrafoan aipatzen den baldintza Zergaren Foru Arauaren 90. artikuluko kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten akzioak edo partaidetzak eskuratzen diren zergaldian bete behar da, eta gutxienez hurrengo 5 zergaldietan ere bai.

2. Zergaren Foru Arauaren 90.6 artikuluan ezartzen denaren arabera, akzioak edo partaidetza harpidetu edo eskuratu zaizkion entitateak ziurtagiria egin behar du esanez ezarritako baldintzak bete direla, eta bertan zehaztu behar da zer eremutan dagoen entitatearen sozietate-xedea (aurreko zenbakian aipatu direnetako bat).

## III. KAPITULUA
## BESTE KENKARI BATZUK

### 72. artikulua. Kenkaria inbertsioengatik eta beste jarduera batzuengatik.

Zerga honen zergadunek aktibo ez-korronte berrietan egindako inbertsioak sustatzeko eta zenbait jarduera egitea sustatzeko Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko V. tituluko III. kapituluan eta hamabosgarren xedapen gehigarrian zehazten diren kenkariak aplikatu ahal izango dituzte, betiere kenkari-portzentaje eta -muga berdinekin.

# VI. TITULUA
# ZERGAREN KUDEAKETA

## I. KAPITULUA
## AITORTZEKO BETEBEHARRA

### 73. artikulua. Aitortzeko betebeharra.

1. Zergadunek zergari buruzko Foru Arauaren 102. artikuluan xedatutakoaren arabera aurkeztu beharko dute zerga honen ziozko aitorpena.

2. Zergadunei laguntzeko abiarazi dituen jarduketen esparruan, Ogasun eta Finantza Sailak aitorpen-zirriborro bat jarriko du haien esku, tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko. Zirriborro horrek dirua itzultzeko edo ordaintzeko proposamena izango du, sailak dituen datuak, aurrekariak edo bestelako elementuak kontuan hartuta.

   Aurreko paragrafoan aipatutako zirriborroak ez die ondorio juridikorik ekarriko zergadunei, harik eta zirriborroak aitorpen-izaera titulu honen III. kapituluan ezarritako moduan lortu arte.

3. Ogasun eta Finantza Sailak eskainitako aitorpen-zirriborroetatik abiatuta, zergadunek, beharrezkoa bada, zirriborroetan dauden datu guztiak –eurei dagozkienak– aldatu eta/edo osatu beharko dituzte, eta ezarriko diren dokumentuak eta frogagiriak aitorpenarekin batera aurkeztu, Administrazioak tributu-betebeharra zenbatesteko edo dagokion itzulketa zehazteko behin-behineko likidazioaren bidez; likidazio hori Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko Foru Arauaren 122. artikuluko 3. apartatuaren a) letran aipatutakoa da.

4. Aurreko 1. apartatuan jasotako betebeharra betetzeko, zergadunek bide hauek baliatu ahal izango dituzte:

   a) Bide digitala, egoitza elektronikoaren bidez eta Zerga Administrazioak gailu mugikorretan erabiltzeko eskura jarritako software-aplikazioaren bidez.

   b) Telefonoa.

   c) Aurrez aurre, araudi honen 73 quater artikuluan ezarritako baldintzetan.

**73 bis artikulua. Autolikidazioa egin beharraren salbuespena.**

1. Ez dute aurkeztu behar Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidaziorik errentak ondoko iturrietatik soilik lortzen dituzten zergadunek:

   a) Lan-etekin gordinak, urtean 14.000 euroko mugarekin banakako tributazioan kasu honetan izan ezik: etekin horiek hurrengo artikuluaren h) letran jasotako kasuetako batean badaude.

      Muga hori baterako tributazioan aplikatuko da, halako etekinak lortzen dituzten zergadun bakoitzari dagokionez..

   b) 14.000 eurotik gorako lan-etekin gordinak, urtean 20.000 euro artekoak, banakako tributazioan; araudi honen hurrengo artikuluan jasotzen diren kasuetako batean sartuta daudenean izan ezik.

      Muga hori baterako tributazioan aplikatuko da, horrelako etekinak lortzen dituzten zergadun bakoitzari dagokionez.

   c) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare-irabaziak, salbuetsiak barne kasu bietan, guztira urtean 1.600 euro baino gehiago ez badira. Letra honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko talde-inbertsioko erakundeen akzioen edo partaidetzen eskualdaketek edo itzulketek sortzen dituzten ondare-irabaziei, baldin eta araudi honetako 96. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera atxikipen-oinarria ez bada zehaztu behar zerga-oinarrian integratu beharreko zenbatekoa aintzat hartuta.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa gorabehera, kontura egindako ordainketen itzulketa lortzeko ezinbestekoa izango da autolikidazioa aurkeztea.

**73 ter artikulua. Autolikidazioa egin beharra: kasu bereziak.**

1. Aurreko artikuluko 1. idatz-zatiko b) letran aipatutako kasuetan, ondoko zergadun hauek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztu behar dute:

   a) Ordaintzaile batek baino gehiagok emandako lan-etekinak jasotzen diren kasu guztietan.

      Hala ere, 20.000 euroko mugaraino lan-etekin gordinak jasotzen dituzten zergadunek ez dute aitorpenik aurkeztu beharko, baldin eta bigarren ordaintzaileengandik eta gainerako ordaintzaileengandik jasotako zenbatekoen baturak, zenbatekoen arabera, ez badu urteko 2.000 euroko zenbatekoa gainditzen

b) Ordaintzaile bakar batengandik lan-etekinak jasoz gero, ekitaldian lanedo administrazio-kontratu bat baino gehiago sinatu badituzte, edo indarrean dagoena luzatu badute.

c) Ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen konpentsazio-pentsioak edo mantenurako urtekoak, gurasoek epai-erabaki bidez mantenurako urtekoak jasotzen dituztenak ez beste batzuk, jasotzen dituzten zergadunek.

d) Euskadiko foru erakundeek onetsitakoa ez beste arautegi baten arabera kalkulatutako lanaren atxikipenak edo konturako sarrerak, edo foru aldundi batean sartu ez direnak, jasan dituzten zergadunek.

e) Ordainsariak giza lanetan edo eguneko lansaritan jasotzen dituzten zergadunek.

f) Arrantzontzietako langileek, baldin eta ordainsari gisa, ordainsari oso edo partzial gisa, arrantzuaren balioaren edo haren bolumenaren parte bat jasotzen badute.

g) Ordainsariak emaitzen arabera edo antzeko parametroen arabera jasotzen dituzten zergadunek, baldin eta ordainsariak atxikipenaren edo kontura egindako sarreren ehunekoa kalkulatzeko kontuan izan direnak baino handiagoak badira, Zergari buruzko Arauko 108. artikuluan ezarrita dagoen bezala.

h) Salbuespena, hobaria, murrizketa, kenketa edo zeinahi zerga-hobari gozatzeko eskubidea edukitzeko ezarritako baldintza, epe edo inguruabarretako bat betetzen ez duten zergadunek, hobariak berekin dakarrenean Zerga Administrazioari haren berri jakinarazi beharra edo zerbait erregularizatu edo ordaindu beharra.

2. Aurreko idatz-zatiko a) - g) bitarteko letretan ezarritako inguruabarretako batean egoteagatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztu behar duten zergadunek ondokoen artean hauta dezakete:

- Zerga berari buruzko xedapen orokorren arabera ordaindu.

- Zerga lanaren etekinak soilik kontuan edukita ordaindu, arau hauek aplikatuz:

  a) Lanaren etekinetarako ezarritako atxikipen-ehunekoen taulak aplikatuko zaizkio sortutako mota honetako etekinen guztirako zenbatekoari (zenbateko honetan ez dira sartu behar Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluan xedatutakoaren arabera salbuetsita dauden etekinak). Horretarako atxikipena aplikatu behar zaien etekinen zenbatekoa kalkulatzeko arauak hartuko dira kontuan, bai eta Zerga sortzen den egunean indarrean dauden atxikipen-taulak finkatzeko eta aplikatzeko arauak ere.

  b) Aurreko a) letran ezarritako eragiketaren emaitzako kopurutik lanaren etekinen gainean egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoa kenduko da. Horren emaitzako kopurua Foru Aldundiari ordaindu beharko zaio; ordainketa araudi honetako 76. artikuluko 2. idatz-zatian ezartzen denarekin bat etorriz zatikatu ahal izango da. Zerga ordaintzeko prozedura honetan ez da inolaz ere diru kopururik itzuliko.

  c) Ezin da aplikatu gastu kengarririk, ez hobaririk, ez murrizketarik, ez kenkaririk, ez baterako tributazioari buruzko araurik, ez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arautegian ezarritako onurarik.

## II. KAPITULUA
## GAI OROKORRAK

### 73 quater artikulua. Aurrez aurreko bidea.

1. Araudi honen 73. artikuluaren 4. apartatuko c) letran xedatutakoaren ondorioetarako, aurretiko hitzorduaren bidez, tributu-arloko laguntza ematen den Bizkaiko Foru Ogasunaren

bulegoetan zergaren aitorpenak aurkezteko aurrez aurreko laguntza eskainiko zaie zergadunei, baldin eta, zenbatekoa dena dela, honako errenta-mota hauetako edozein jaso badute soilik:

- Lanaren etekinak.

- Aurrezki-produktuen etekinak, salbu eta etekinok atzerriko baloreetatik datozenean.

- Errentamenduetatik eratorritako etekinak, bi errentamenduko mugarekin, turismo-errentamenduen ondoriozko errentak izan ezik.

- Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantzako jarduera ekonomikoen etekinak (jarduerari lotutako ondare-elementuak eskualdatzetik eratorritako ondare-irabaziak edo -galerak daudenean izan ezik), zuzeneko zenbatespen-metodoaren modalitate sinplifikatuan.

- Ikastaro edo hitzaldietatik eratorritako jarduera ekonomikoen etekinak, baldin gastu-egozpenik egiten ez bada.

- Higiezinen eskualdaketak, jaraunspen edo dohaintza bidez eskuratutakoak izan ezik, bai eta irabazpidezko sozietateen desegiteak edo gehiegizko adjudikazioen ondoriozko indibiso-amaitzeak.

- Inbertsio-funtsen eskualdaketak.

- Akzioen eskualdaketak, 5 eragiketako mugarekin eta baldin ekitaldiko salmenten zenbateko globala 10.000 eurotik gorakoa ez bada. Kanpo geratzen dira hauekin egindako eragiketak: kriptodirua, warrantak, gerokoak eta diferentzien araberako kontratuak. Ez da laguntzarik emango aurreko ekitaldietatik konpentsatzeko dauden partidak dituzten aitorpenetan, salbu eta 2020ko ekitaldikoak edo ondorengo ekitaldietakoak badira eta Bizkaiko Foru Ogasunaren datuetan jasota badaude.

2. Aurreko 1. apartatuan ezarritako zenbatekoak eta mugak aldatu ahal izango dira Ogasun eta Finantzen Saileko titularraren foru-agindu bidez.

### 73 quinquies artikulua. Identifikazio- eta sinadura-bitartekoak.

1. Zerga honi dagozkion betebeharrak betetzeko eta eskubideak baliatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren administrazio elektronikoari buruzko araudian ezarritako identifikazio- eta sinadura-bitartekoetako edozein erabili ahal izango dute zergadunek.

   Zehazki, zerga honekin lotutako betebeharrak betetzeko eta eskubideak baliatzeko, zerga-administrazioak BAK gakoa aktibatzeko kode bat jarri ahal izango du zergadunaren esku.

2. Erregelamendu honen 73.4 artikuluan aipatutako telefono bidea erabiltzen denean, zergadunaren identifikazioa eta sinadura bide horri egokitutako kontraste-datuak erabiliz egiaztatuko dira.

### 73 sexies artikulua. Ordezkaritza-gakoa.

1. Zerga-administrazioak gako bat jarriko du zergadunen esku, beren ordezkaritza hirugarren bati eman ahal izateko.

   Ordezkaritza egiaztatuta dagoela joko da baldin eta aitorpenaren titularra ez beste pertsona batek sartzen badu ordezkaritza-gakoa aitorpen-zirriborroa izapidetzeko.

   Ordezkaritza eman zaion pertsonaren kasuan, ordezkaritza-gakoak 5 urteko balioa izango du, lehenengo aldiz baliatzen denetik; denbora horretan, pertsona horrek zergadunaren

ordezkari gisa erabili ahal izango du, gakoa eman zen zergaldia dela-eta egin beharreko jarduketak egiteko.

2. Zerga-administrazioak zergadunen baten esku ordezkaritza-gakorik jartzen ez badu, administrazio horri eskatu ahal izango zaio gakoa, horretarako ezarriko diren kanalen bitartez.

3. Zergadunek aukera izango dute zerga-administrazioari eskatzeko artikulu honetan araututako gakoa desaktibatu dezala. Gakoaren desaktibazioak berez ekarriko du haren bidez emandako ordezkaritza ere errebokatzea.

**73 septies artikulua. Ordezkaritza.**

1. Zerga honekin lotutako betebeharrak betetzen eta eskubideak baliatzen laguntzeko, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 38. eta 44. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Zerga Administrazioak ofiziozko inskripzioak egingo ditu ahalordetzeen erregistro elektroniko nagusian, honako kasu hauetan eta kasu bakoitzean ezartzen diren baldintzekin:

   a) Ezkontideetako edo izatezko bikotekideetako bat hiltzen bada, bizirik dirauen ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen alde, jarauntsiaren ordezkari gisa, mortis causa oinordetzak arautzen dituen legeria zibilaren arabera. Inskripzioak 5 urteko balioa izango du, heriotzaren datatik zenbatzen hasita.

      Letra honetan aipatzen den kasuan, bizirik dirauen ezkontide edo izatezko bikotekide horrek hirugarren bati ordezkaritza ematen badio Zerga Administrazioaren aurrean jarduteko, oro bat ulertuko da ordezkariak gaikuntza duela hildako zergadunak egin gabe dituen tributu-betebeharrei dagokienez, espresuki kontrakoa adierazten ez bada.

      Letra honetan xedatutakoa gorabehera, hildakoaren oinordekoek edo testamentugileak jarauntsiaren administratzaile izateko izendatutakoek aukera izango dute bizirik dirauen ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen aldeko ofiziozko inskripzioaren aurka egiteko eskubidea baliatzeko. Horretarako, beren izaera egiaztatu beharko dute.

   b) Familia-unitate bateko kide diren zergadun adingabeen kasuan, bi gurasoen aldeko ordezkaritza, edo guraso bakarraren aldeko ordezkaritza, bat bakarrik izanez gero. Hori guztia, kontrakoaren froga sinesgarririk ezean.

   c) Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 34.3. artikuluan adierazitako entitateen kasuan, entitateotako kide, jaraunsle, erkide edo partaideen aldeko ordezkaritza. Inskribatutako ordezkaritzak 5 urteko balioa izango du, inskribatzen den egunetik zenbatzen hasita.

      Letra honen aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, bertan aipatzen diren entitateek aukera izango dute beren kide, jaraunsle, erkide edo partaideen aldeko ordezkaritzaren ofiziozko inskripzioaren aurka egiteko eskubidea baliatzeko. Horretarako, entitate horien legezko ordezkariek beren izaera egiaztatu beharko dute, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 44.3 artikuluan ezarritako baldintzetan.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 38 artikuluan aipatutako oinordekoek beren izaera egiaztatu beharko dute, eta haien inskripzioa ahalordetzeen erregistroa nagusian egin dadila eskatu, aurreko apartatuaren a) letrako lehen paragrafoan adierazitako kasuetan izan ezik.

**74. artikulua. Jakinarazpenak.**

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 107.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, zerga honen aitorpenarekin eta likidazioarekin lotutako prozedurei buruzko

jakinarazpenak bitarteko elektronikoak erabiliz gauzatuko dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, egoitza elektroniko horretan agerraldia eginez.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa alde batera utzi gabe, posta arruntez egingo zaie jakinarazpena Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri jarri zaien jakinarazpenaren edukira sartu ez diren zergadunei, salbu eta haiek jakinarazpen elektronikoa lehentasunezkotzat ezarri badute edo beren zerga-betebeharrak eta Ogasun eta Finantza Sailarekin komunikatzekoak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez bete behar badituzte, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudian ezarritakoaren arabera.

### 75. artikulua. Zerga-administrazioak parametro eta presuntzio jakin batzuk baliatzea.

Aitorpen-zirriborroa sortzeko (horretarako baino ez), zerga-administrazioak parametro edo presuntzio jakin batzuk erabili ahal izango ditu emaitza lortzeko, zeinak zergadunak aldatu ahal izango baititu aitorpenean.

Hain zuzen, aurkeztutako aitorpenean ondasun edo eskubide batzuen eskuratze-balioa jaso behar bada eta zerga honetan betebehar materialak sortzen badira eskubide eta ondasun horien eskualdatzearen ondorioz, orduan, zergadunaren esku jarriko den aitorpen-zirriborroan adieraziko den eskuratze-balioa zero euro izango da, zerga-administrazioak ez badauzka hura zenbatesteko beharrezko diren datuak.

## III. KAPITULUA
## AITORPEN-ZIRRIBORROAK

### 75 bis artikulua. Itzultzeko emaitza duen aitorpen-zirriborro baten gaineko jarduketak.

1. Ogasun eta Finantza Sailak eskura jarritako aitorpen-zirriborro baten ondorioz dirua itzuli behar bada:

   a) Zergadunak espresuki adierazten badu ados dagoela zirriborroan dauden datuekin, orduan, zerga hau dela-eta egin beharreko aitorpena aurkezteko betebeharra bete dela ulertuko da, behin-behineko likidazioa egingo da, eta zergadunari aitorpenaren ondorioz ordaindu beharreko zenbatekoa ordainduko zaio, aitorpena aurkeztu eta hurrengo zazpi egun naturaletan, non eta ez dagoen desadostasunik Zerga Administrazioak dituen datuen eta aurkeztutako aitorpenean jasotako datuen artean.

      Aurreko paragrafoan adierazitako kasuan, behin-behineko likidazioak aurkeztu den aitorpenaren emaitza bera badu, ez da nahitaezkoa izango behin-behineko likidazio horren jakinarazpen espresurik egitea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 100.4 artikuluaren lehenen tartekian xedatutakoaren arabera; eta aitorpen bidez hasitako prozedura (foru-arau horren 122. artikuluan aipatzen dena) amaitutzat joko da banku-transferentzia bidez diru-sarrera egiten denean.

      Zergadunak Zerga Administrazioak eskura jarri dion aitorpen-zirriborroaren datu ekonomikoak aldatzen baditu, apartatu honen c) letran adierazitako baldintzetan aurkeztu beharko du aitorpena.

   b) Zergadunak aitorpen-zirriborroak dituen datuen araberako aitorpena aurkeztu duela joko da, baldin eta datu ekonomikook ez baditu ez berretsi eta ez aldatu Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren foru-agindu bidez zehaztuko den dataren aurretik, eta aipatutako epean espresuki adierazi ez badu ez duela nahi bere aitorpena aurkeztutzat jotzea zirriborroak dituen datuen arabera.

      Kasu horretan, zerga honen aitorpena aurkezteko betebeharra beteta geratuko da; behin-behineko likidazioa egingo da, eta aitorpenaren ondorioz ordaindu beharreko zenbatekoa ordainduko zaio zergadunari, aipatutako foru-aginduaren bidez zehaztuko den epean.

Aurreko paragrafoan adierazitako kasuan, ez da nahitaezkoa izango behin-behineko likidazio horren jakinarazpen espresurik egitea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 100.4 artikuluaren lehenen tartekian xedatutakoaren arabera; eta aitorpen bidez hasitako prozedura (foru-arau horren 122. artikuluan aipatzen dena) amaitutzat joko da banku-transferentzia bidez diru-sarrera egiten denean.

Zergadunak Zerga Administrazioak eskura jartzen dion aitorpen-zirriborroaren datuak aldatzen baditu, ezin izango da inola ere ulertu aurkezpena letra honetan xedatutakoarekin bat aurkeztu denik. Hori gertatzen bada, hurrengo c) letran xedatutakoarekin bat jardungo da.

c) Zergadunak espresuki adierazten badu ez duela nahi aitorpena aurkeztutzat jotzea zirriborroaren datuekin bat –aurreko b) letran xedatutakoaren arabera–, edo apartatu honen a) letrako hirugarren paragrafoan adierazitako kasuan badago, orduan, behartuta egongo da aitorpena beren-beregi ezarriko den borondatezko epearen barruan aurkeztera, eta, beharrezkoa bada, zerga likidatzeko beharrezkoak diren datuak eta dokumentazioa aldatu eta/edo aurkeztu beharko ditu. Letra honetan adierazitako kasuan, eta alde batera utzita behin-behineko likidazioa berrikus litekeela (behin-behineko likidazioak berrikusteko prozedura, egiaztapen mugatuko prozedura edo ikuskapen-prozedura baten bidez), ondoren adierazi bezala jardungo da:

a') Zergadunak aurkeztutako aitorpenaren ondorioz dirua sartu behar bada, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazioa egingo du, eta dagokion zenbatekoa ordainduko da, araudi honen 76. artikuluan ezarritako moduan.

Kasu horretan, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazio bat ematen badu eta haren emaitza eta datuak eta zergadunak lehenago aurkeztu duen aitorpenean (haren ondorioz, zenbateko bat sartu behar da) jasotakoak desberdinak ez badira, ez da nahitaezkoa izango behin-behineko likidazio horren jakinarazpen espresurik egitea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 100.4 artikuluaren lehen tartekian xedatutakoaren arabera; eta aitorpen bidez hasitako prozedura (foru-arau horren 122. artikuluan aipatutakoa) amaitutzat joko da aitorpena aurkezteko borondatezko epea amaitzen denetik zenbatzen hasten den epe gehigarriaren azken egunean. Araudi honen 76. artikuluaren 2. apartatuan xedatutakoa garatzeko zergaldi bakoitzerako emango den foru aginduan ezarriko da epe hori. Hala ere, zerga-zorra aurreko tartekian aipatzen den unean baino lehenago ordaintzen bada, zorra sartzen den unean joko da amaitutzat aitorpen bidez hasitako prozedura.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako inguruabarra gertatu ezean edo borondatezko epeaz kanpo aurkeztutako aitorpenen ondoriozko behin-behineko likidazioen kasuan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 60. artikuluaren 1. apartatuko b) letran xedatutakoa aplikatuko da. Horrek, nolanahi ere, ez du eragotziko zerga-betebeharra gerora egiaztatzea behin-behineko likidazioak berrikusteko edo egiaztapen mugatuko prozeduren bidez edo ikuskapen-prozeduren baten bidez.

b') Zergadunak aurkeztutako aitorpenaren ondorioz dirua itzuli behar bada, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazioa egingo du, eta dagokion zenbatekoa ordainduko zaio zergadunari, aurreko a) letrako lehenengo paragrafoan ezarritako baldintzetan.

Aurreko paragrafoan adierazitako kasuan, behin-behineko likidazioaren emaitza eta datuak eta zergadunak lehenago aurkeztu duen aitorpenean (haren ondorioz, zenbateko bat itzuli behar da) jasotakoak desberdinak ez badira, ez da nahitaezkoa izango behin-behineko likidazio horren jakinarazpen espresurik egitea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 100.4 artikuluaren lehen tartekian xedatutakoaren arabera; eta aitorpen bidez hasitako prozedura (foru-arau horren 122. artikuluan aipatutakoa) amaitutzat joko da banku-transferentzia bidez diru-sarrera egiten denean.

Apartatu honen c) letran adierazitako inguruabarretan zergadunak aitorpena aurkezten ez badu, ez-betetzat joko da zerga honen aitorpena aurkezteko betebeharra, zeina araudi honen 73. artikuluan aipatzen baita.

2. Aitorpena ez da aurkeztutzat joko aurreko 1. apartatuaren b) letran adierazitako zirriborroaren datuen arabera, kasu hauetan:

   a) Zergadunen esku jarri den aitorpen-zirriborroaren ondorioz zenbateko bat itzuli behar bada, zergadun horiek ondorengoengatiko kenkaria beren aurrekoetako baten kasuan aplikatzeko eskubidea sortzeko baldintzak betetzen badituzte (kenkari hori zergari buruzko Foru Arauaren 79. artikuluan aipatzen da).

   b) Zerga-administrazioak ez badauka zergadunaren titulartasuneko banku-kontuari buruzko datua, non dagokion zenbatekoa itzuliko baitu.

   c) Zergadunek ez badute aurkeztu eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuaren edukia, horretarako ezarritako borondatezko epearen barruan; liburu hori zergari buruzko Foru Arauaren 114. artikuluan jasota dago.

   d) Errentak eratxikitzeko araubidea (zergari buruzko Foru Arauaren 11. artikuluan jasoa) aplikatu behar zaien entitateetako bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideen kasuan, baldin eta jarduera ekonomikoen ondoriozkoak ez diren ondare-irabaziak edo etekinak eratxiki bazaizkie, edo jardueera ekonomikoen ondoriozko etekinak eratxiki bazaizkie 140 eta 184 ereduak epearen barruan aurkeztu gabe.

   e) Arrazoi teknikoak direla-eta hala ezartzen bada Ogasuneko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

3. Aurreko 1. apartatuan xedatutakoa gorabehera, zerga-administrazioak, datu berriak daudela ikusita, hasiera batean emandako aitorpen-zirriborroa aldatu ahal izango du, zergadunak aurretik adostasuna adierazita, aitorpena aurkeztu baino lehen.

### 75 ter artikulua. Sartzeko emaitza duten aitorpen-zirriborroen gaineko jarduketak.

1. Ogasun eta Finantza Sailak eskura jarritako aitorpen-zirriborroaren ondorioz zenbateko baten diru-sarrera egin behar bada eta zergaduna zirriborroarekin ados badago, espresuki adierazi beharko du adostasuna, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, aitorpenak aurkezteko borondatezko epea amaitu baino lehen.

   Aurreko kasuan, zerga hau dela-eta egin beharreko aitorpena aurkezteko betebeharra bete dela joko da, eta zergadunak tributu-zorra ordaindu beharko du, araudi honen 76. artikuluan xedatutakoarekin bat; horrez gainera, aplikatu behar izango da hurrengo 2. apartatuaren a) letrako bigarren eta hirugarren paragrafoetan xedatzen dena.

2. Zergadunak ez badu espresuki adierazten ados dagoela, borondatezko epearen barruan aurkeztu beharko du aitorpena. eta, hala badagokio, zergaren likidazioa egiteko behar diren datuak eta dokumentazioa aldatu edo aurkeztu beharko ditu, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

   Apartatu honetan adierazitako kasuan, eta alde batera utzita behin-behineko likidazioa berrikus litekeela (behin-behineko likidazioak berrikusteko prozedura, egiaztapen mugatuko prozedura edo ikuskapen-prozedura baten bidez), ondoren adierazi bezala jardungo da:

   a) Zergadunak aurkeztutako aitorpenaren ondorioz dirua sartu behar bada, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazioa egingo du, eta dagokion zenbatekoa ordainduko da, araudi honen 76. artikuluan ezarritako moduan.

      Kasu horretan, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazio bat ematen badu eta haren emaitza eta datuak eta zergadunak lehenago aurkeztu duen aitorpenean (haren ondorioz, zenbateko bat sartu behar da) jasotakoak desberdinak ez badira, ez da

nahitaezkoa izango behin-behineko likidazio horren jakinarazpen espresurik egitea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 100.4 artikuluaren lehen tartekian xedatutakoaren arabera; eta aitorpen bidez hasitako prozedura (foru-arau horren 122. artikuluan aipatutakoa) amaitutzat joko da aitorpena aurkezteko borondatezko epea amaitzen denetik zenbatzen hasten den epe gehigarriaren azken egunean. Araudi honen 76. artikuluaren 2. apartatuan xedatutakoa garatzeko zergaldi bakoitzerako emango den foru aginduan ezarriko da epe hori. Hala ere, zerga-zorra aurreko tartekian aipatzen den unean baino lehenago ordaintzen bada, zorra sartzen den unean joko da amaitutzat aitorpen bidez hasitako prozedura.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako inguruabarra gertatu ezean edo borondatezko epeaz kanpo aurkeztutako aitorpenen ondoriozko behin-behineko likidazioen kasuan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 60. artikuluaren 1. apartatuko b) letran xedatutakoa aplikatuko da. Horrek, nolanahi ere, ez du eragotziko zerga-betebeharra gerora egiaztatzea behin-behineko likidazioak berrikusteko edo egiaztapen mugatuko prozeduren bidez edo ikuskapen-prozeduren baten bidez.

b) Zergadunak aurkeztutako aitorpenaren ondorioz dirua itzuli behar bada, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazioa egingo du, eta dagokion zenbatekoa ordainduko zaio zergadunari, aurreko 75 bis artikuluaren 1. apartatuko a) letrako lehenengo paragrafoan ezarritako baldintzetan.

Aurreko paragrafoan adierazitako kasuan, behin-behineko likidazioaren emaitza eta datuak eta zergadunak lehenago aurkeztu duen aitorpenean (haren ondorioz, zenbateko bat itzuli behar da) jasotakoak desberdinak ez badira, ez da nahitaezkoa izango behin-behineko likidazio horren jakinarazpen espresurik egitea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 100.4 artikuluaren lehen tartekian xedatutakoaren arabera; eta aitorpen bidez hasitako prozedura (foru-arau horren 122. artikuluan aipatutakoa) amaitutzat joko da banku-transferentzia bidez diru-sarrera egiten denean.

Apartatu honetan adierazitako inguruabarretan zergadunak aitorpena aurkezten ez badu, ez-betetzat joko da zerga honen aitorpena aurkezteko betebeharra, zeina araudi honen 73. artikuluan aipatzen baita.

**75 quater artikulua. Hildakoen aitorpenak, itzultzeko emaitza dutenak.**

Aurreko 75 bis artikuluaren 1. apartatuaren a) edo b) letretan adierazitako inguruabarrak hildakoen kasuan gertatzen badira, itzuli beharreko zenbatekoa hil den zergadunaren titulartasuneko banku-kontuan sartuko da.

Zerga-administrazioak ez badauka zergadunaren titulartasuneko banku-kontuari buruzko datua, itzuli beharreko zenbatekoa Erregelamendu honen 73 septies artikuluaren 2. apartatuan aipatutako oinordekoaren edo oinordekoen titulartasuneko banku-kontuan sartuko da.

Administrazioak aitorpen-zirriborroa egingo du, eta bertan hil den zergadunaren titulartasuneko banku-kontua jasoko du. Aipatutako banku-kontuari buruzko datua Administrazioaren esku ez badago, zirriborro hori egin ahal izango du, eta bertan ezkontideari edo izatezko bikotekideari dagokion banku-kontua jasoko du, horren berri izanez gero.

Nolanahi ere, dagokion itzulketaren zenbateko osoa banku-kontu bakar batean sartuko da.

**76. artikulua. Tributu-zorrak sartzeko eta ordaintzeko epeak eta banku-helbideratzea.**

1. Zergaldi bakoitzari dagokion aitorpena borondatez aurkezteko epea Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren foru-agindu bidez ezarriko da.

2. Zergari buruzko Foru Arauaren 103.2 artikuluan ezarritako ahalmena baliatuta, baldin eta zergadunak borondatezko epearen barruan aurkeztutako aitorpen bat dela-eta dirua sartu behar badu Zerga-administrazioak egindako behin-behineko likidazioaren ondorioz,

sortutako tributu-zor hori epe gehigarria amaitu aurretik sartu beharko du, edo hura geroratzeko edo zatikatzeko eskatu. Aitorpena aurkezteko borondatezko epea amaitzen denetik aurrera zenbatuko da epe gehigarria, egun baliodunetan, eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru-agindu baten (aurreko apartatuan aipatua) bidez ezarriko da, ekitaldi bakoitzean. Zergadunak, tributu-zorra ordaintzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduan ezarritako bideak erabili beharko ditu.

Halako kasuetan, zergadunak sarrera egiteko banku-helbideratzea aukeratu badu, dagokion zordunketa epe gehigarriaren barruan egingo da. Aitorpena aurkezteko borondatezko epea amaitzen denetik aurrera zenbatuko da epe gehigarria –aurreko paragrafoan aipatutako Foru Arauan ezarria, egun baliodunetan.

3. Zergadunak aitorpena borondatezko epea amaitu ondoren aurkezten badu eta haren emaitza dirua sartzea bada, orduan, Zerga-administrazioak egindako behin-behineko likidazioaren ondoriozko tributu-zorra Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 60. artikuluaren, 1. apartatuaren a) letran ezarritako epean ordaindu beharko du, non eta banku-helbideratzea ez duen aukeratu. Kasu horretan, kontuko zordunketa Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduaren 17.1.b) artikuluan xedatutako epean egingo da, bai eta aitorpena epez kanpokoa izateagatiko errekargua ere (Zergei buruzko Foru Arauaren 27. artikuluan aipatua).

4. Zerga honi dagozkion itzulketak eskuratzeko, derrigorrezkoa izango da banku-helbideratzearen sistema erabiltzea.

   Banku-helbideratzea derrigorrezkoa ez bada ere, zergadunak aukera izango du hura erabiltzeko; baina, edozein kasutan ere, Bizkaiko Foru Ogasunaren zerga-bilketako laguntzaile diren entitateetako bat baliatuko du horretarako. Gainera, beharrezkoa izango da Bizkaiko Foru Ogasunak IBAN kodearen titulartasunaren berri izatea eta IBAN kode horren titulartasuna aurkeztutakoaren aitortzailearena izatea.

   Aukera hori baliatu ondoren, ezin izango da ezeztatu.

5. Halaber, zergadunak aurkeztutako aitorpen bat —aurkezteko borondatezko epearen barruan aurkeztua— dela-eta egindako behin-behineko likidazio baten ondoriozko tributu-zor bat zatitu ahal izango da, errekargurik gabe, bi epetan:

   a) Lehenengoa, zenbatekoaren 100eko 60koa, artikulu honen 2. apartatuan adierazitako epean.

   b) Bigarrena, gainerako 100eko 40a, aitorpena aurkeztu behar den urte bereko azaroaren 10a baino lehen.

   Ordainketa zatitzeko sistema horri heldu ahal izateko, ordainketak helbideratuta egon beharko du Bizkaiko Foru Ogasunaren zerga-bilketako laguntzaile diharduten erakundeetako batean.

6. Salbuespenez, Foru Aldundiak, egoki iritzitako txostenak eman daitezela agindu ondoren, zergari buruzko Foru Arauaren 103.3 artikuluan aipatutako ondasunen ematea onartu ahal izango du, tributu-zorra edo, hala badagokio, zehapenak ordaintzeko.

**77. artikulua. Egindako aukerak zuzentzea.**

1. Zergari buruzko Foru Arauaren 105. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, zergadunek artikulu horretan jasotzen diren aukerak erabili beharko dituzte, aukera horiek ondorioak sortu behar dituzten zergaldiko aitorpena aurkezten dutenean; gero aldatu ahal izango dira, ondoren zehazten diren epeetan:

   a) Aipatutako 105. artikuluaren a), d), e), f), h), i), j) eta k) letretan adierazitako aukerak, zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitzen den egunera arte.

Halaber, 105. artikulu horren d) letran aipatutako desgaitasun edo mendekotasunagatiko kenkaria aplikatzeko aukera zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren aldatu ahal izango da, apartatu honen c) letran ezarritakoarekin bat.

b) Artikulu beraren g) letran aipatutako baterako tributazioaren aukera ezin izango da aldatu aitorpena egiteko borondatezko epean zehar; epe hori amaitu ostean, aldiz, aldatu ahal izango da, hurrengo artikuluan xedatutakoarekin bat, eta bertan jasotako berezitasunekin.

c) 105. artikulu horren b) eta c) letretan adierazitako aukerak, aitorpena aurkezteko borondatezko epea amaitu ondoren; hori hala izango da, non eta zerga-administrazioak ez duen egiten tributu-betebeharraren elementu guztiak edo batzuk aitortu, erregularizatu, egiaztatu, ikuskatu, berretsi edo likidatzeko edozein ekintza, zergapekoak haren ezagutza formala duela.

2. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zerga honen zergadunei aplikatu beharrekoa izango zaie Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuak onetsitako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 48. artikuluan xedatutakoa, jarduera horien ondoriozko etekinei dagokienez.

**78. artikulua. Baterako tributazioaren aukera baliatzeko prozedura eta haren jakinarazpena.**

1. Zergari buruzko Foru Arauaren 97.4 artikuluan xedatutakoarekin bat, aitorpena aurkezten duen familia-unitateko lehen kideak baliatu behar du baterako tributazioaren aukera; horretarako, familia-unitatea osatzen duen beste ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen ordezkaritza-gakoa izan beharko du, eta ezin izango da aldatu aitorpena aurkezteko borondatezko epean zehar.

   Behin aitorpena aurkezteko borondatezko epe hori amaituta, baliatutako aukera aldatu ahal izango da, behin baino ez, zuzentzeko idazki bat Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuta; hori hala izango da, non eta zerga-administrazioak ez duen egiten tributu-betebeharraren elementu guztiak edo batzuk aitortu, erregularizatu, egiaztatu, ikuskatu, berretsi edo likidatzeko edozein ekintza, zergapekoak haren ezagutza formala duela.

   Zuzentzeko idazkia aurkeztu behar duen ezkontideak edo izatezko bikotekideak familia-unitateko beste ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen ordezkaritza-gakoa izan beharko du.

2. Aurretik baliatutako tributazioaren aukera aldatzea beste xederik ez duen zuzentze-idazkiak ez du inola ere ekarriko epez kanpo aurkeztutako aitorpenaren ziozko errekargua aplikatzea; errekargu hori, zehazki, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan aipatzen da.

3. Zerga-administrazioak zergadunaren esku jarritako aitorpen-zirriborroan baterako tributaziorako proposamena egiten bada, ezkontide edo izatezko bikotekideetako edozeinek atzera bota ahal izango du aukera hori, familia-unitatea osatzen duen beste ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen ordezkaritza-gakoa izan beharrik gabe. Hori gertatzen bada, zerga-administrazioak familia-unitatea osatzen duen beste ezkontideari edo izatezko bikotekideari jakinaraziko dio aukera aldatu egin dela.

4. Baldin eta zerga-administrazioak behin-behineko likidazio berri bat egiten badu artikulu honen 1. apartatuan adierazitako zuzentze-idazkia aurkeztearen ondorioz, honela jardungo da:

   a) Behin-behineko likidazioa dela-eta zenbateko bat sartu behar bada, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko Foru Arauaren 60. artikuluaren 1. Apartatuaren b) letran adierazitako epean sartu beharko da likidazio horren ondoriozko zorra.

b) Behin-behineko likidazioa dela-eta zenbateko bat itzuli behar bada, zerga-administrazioak dagokion zenbatekoa ordainduko du, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko Foru Arauaren 30. artikuluan adierazitako moduan.

# VII. TITULUA
# KONTURAKO ORDAINKETAK

## I. KAPITULUA
## ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK. ARAU OROKORRAK

### 79. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituzten pertsonek eta erakundeek titulu honetako xedapenak aplikatuko dituzte kasu honetan: artikulu honetako 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera atxikipenak eta konturako sarrerak Bizkaiko Foru Aldundiari ordaindu behar bazaizkio.

   Nolanahi ere, erakunde ordaintzaileari Sozietateen gaineko Zergaren Bizkaiko Lurralde Historikoko arautegia aplikatu behar bazaio, titulu honetan xedatzen dena aplikatu behar zaie ondoko hauen gainean egiten diren atxikipenei eta konturako ordainketei:

   - Administrazio kontseiluetako eta haien ordezko batzordeetako eta beste ordezkaritza-organo batzuetako administratzaileek eta kideek jasotzen dituzten ordainsariak.

   - Denetariko erakundeen funtsetako partaidetzei esker lortzen diren etekinak, eta obligazioen eta antzeko tituluen korrituak eta gainerako kontraprestazioak.

   Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Zerga ordainarazteko eskumena daukan administrazioak ezarriko ditu autolikidazioa aurkezteko lekuari, moduari eta epealdiari buruzko arauak.

2. Ondoko etekin hauen gaineko atxikipenak edo konturako sarrerak Bizkaiko Foru Aldundiari ordaindu behar zaizkio:

   a) Euskal Autonomia Erkidegoan ematen diren lanen eta zerbitzuen ondoriozkoak. Lanak edo zerbitzuak lurralde erkidean eta Bizkaian edo Bizkaian eta beste edozein lurralde historikotan egiten badira, edo ezin bada zehaztu non egiten diren, ulertuko da lanak edo zerbitzuak Bizkaian egiten direla baldin eta langilea atxikita dagoen lan-zentroa Bizkaian badago. Era berean, telelanaren kasuan, atzerrian egiten diren lan eta zerbitzuetan, eta ontzi handietan, itsasontzi txikietan, itsas artefaktuetan edo itsasoko plataforma finkoetan egiten direnetan, ulertuko da lanak edo zerbitzuak Bizkaian egiten direla baldin eta langilea atxikita dagoen lan-zentroa Bizkaian badago.

   b) Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen araubide publikoetatik, Enpleguaren Nazio Erakundetik, montepio, mutualitate, enplegua sustatzeko funts, pentsio-plan eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetatik hartutako pentsio, hartzeko pasibo eta prestazioen etekinak, eta enpresa eta beste erakunde batzuen prestazio pasiboen etekinak, baldin eta hartzaileak Bizkaian badauka ohiko egoitza.

   c) Administrazio kontseiluetako eta haien ordezko batzordeetako eta beste ordezkaritza-organo batzuetako administratzaileek eta kideek jasotzen dituzten ordainsariak, erakunde ordaintzailearen zerga-egoitza Bizkaian badago.

      Erakundea Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboa bada eta zerga hori Bizkaian ordaindu behar badu bere eragiketen bolumenaren proportzioan, atxikipenak bolumen horren proportzioan dagozkio Bizkaiari. Horretarako Sozietateen gaineko Zergaren azken autolikidazioan adierazitako proportzioa aplikatuko da.

d) Jarduera ekonomikoen etekinen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak, baldin eta atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituenak Bizkaian badauka ohiko etxebizitza edo zerga-egoitza. Edozein kasutan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak berak ordaindutako etekinei dagozkienak eskatuko ditu.

e) Denetariko erakundeen funtsetako partaidetzei esker lortzen diren etekinak, eta obligazioen eta antzeko tituluen korrituak eta gainerako kontraprestazioak, baldin eta etekinak ordaintzen dituen erakundeak Sozietateen gaineko Zerga Bizkaian bakarrik ordaintzen badu.

Erakundea Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboa bada eta zerga hori Bizkaiko Foru Aldundiari ordaindu behar badio bere eragiketen bolumenaren proportzioan, atxikipenak bolumen horren proportzioan dagozkio Bizkaiari. Horretarako Sozietateen gaineko Zergaren azken autolikidazioan adierazitako proportzioa aplikatuko da.

f) Bizkaiko Foru Aldundiak, udalek eta Bizkaiko Lurralde Historikoko lurralde-administrazioko eta erakunde-administrazioko gainerako izakiek jaulkitako zor eta jesapenen korrituak eta gainerako kontraprestazioak, ordaintzen diren lekua gorabehera.

g) Bankuen, aurrezki kutxen, kreditu kooperatiben eta horiekin parekatutako erakundeen eta bestelako kreditu-erakundeen eta finantza-erakundeen eragiketa pasiboen korrituak eta gainerako kontraprestazioak, baldin eta etekinen jasotzailearen ohiko etxebizitza edo zerga-egoitza Bizkaian badago.

h) Kapitalizazio-eragiketen eta bizitza edo elbarritasun aseguruen kontratuen ondoriozko etekinak, baldin eta onuradunak (edo aseguru-hartzaileak, erreskateetan) Bizkaian badauka ohiko etxebizitza edo zerga-egoitza.

i) Kapitalak ezarrita lortzen diren biziarteko edo aldi baterako errentak, baldin eta onuradunaren ohiko etxebizitza edo zerga-egoitza Bizkaian badago.

j) Jabetza intelektualak sortzen dituen etekinak, baldin eta hartzailea egilea ez bada, eta jabetza industrialak sortzen dituenak eta laguntza teknikoa emanda lortzen direnak, baldin eta ordaintzen dituen pertsonak edo erakundean Bizkaian badauka zerga-egoitza.

k) Bizkaian dauden ondasunak, eskubideak, negozioak, meatzeak eta antzekoak errentatuta lortzen diren etekinak.

l) Higiezin baten gaineko hipotekarekin bermatutako maileguen korrituak, bermatzen den ondasuna Bizkaian badago.

Hipotekatutako ondasunak Bizkaian eta lurralde erkidean badaude, edo Bizkaian eta beste lurralde historiko batean, Bizkaiko Foru Aldundiak, atxikipena eskatzeko, hipotekatutako ondasunen balioaren proportzioan hainbanatuko ditu korrituak; salbuespena: berme-asignazio berezia badago, kopuru hori izango da hainbanaketaren oinarria.

m) Higiezin baten gaineko hipotekarekin edo eskualdaketarik gabeko bahiarekin bermatutako maileguen korrituak, bermea Bizkaian inskribatuta badago.

n) Mailegu soilen korrituak, salerosketan geroratutako prezioak eta kapitalak ezarrita lortutako beste etekin batzuk, baldin eta establezimendua Bizkaian badago edo atxikipena egin behar duen erakundearen edo pertsonaren ohiko etxebizitza edo zerga-egoitza Bizkaian badago.

o) Talde-inbertsioko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatuta edo itzulita lortzen diren ondare-irabazien gaineko atxikipenak, baldin eta akziodunaren edo partaidearen ohiko etxebizitza edo zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badago.

p) Joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan emandako sariak direla-eta egiten diren atxikipenak eta konturako sarrerak (sariok ondasun, produktu edo zerbitzu jakinen eskaintzari, sustapenari edo salmentari lotuta egon zein ez), baldin eta sarien ordaintzailearen ohiko etxebizitza edo zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badago. Bizkaiko Foru Aldundiak ordaindutako etekinen gainekoak berak eskatuko ditu.

q) Ondasun higiezinen errentamenduak eta azpierrentamenduak sortzen dituzten etekinen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak, baldin eta atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituenak Bizkaian badauka ohiko etxebizitza edo zerga-egoitza.

r) Erakundeei ordaindu arren errentak egozteko araubidearen arabera Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunei egotzi behar zaizkien kopuruen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak, baldin eta atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituenak Bizkaian badauka ohiko etxebizitza edo zerga-egoitza.

s) Harpidetza-eskubideen eskualdaketari dagozkion atxikipenak edo konturako sarrerak, baldin eta akziodunaren edo partaidearen ohiko etxebizitza edo zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badago.

3. Bizkaiko Foru Aldundiari ez dagokio Estatuaren Administrazioak bere funtzionarioei edo lan edo administrazio araubideko langileei emandako ordainsari aktiboen zein pasiboen atxikipenak egitea, hartzailea ez den beste pertsona batek sortutako pentsioak barne, salbu eta Bizkaian dauden erakunde autonomo, enpresa-entitate publiko, Estatuko merkataritza-sozietate, Estatuari atxikitako partzuergo, Estatuko fundazio, transferitu gabeko unibertsitate publiko eta portu-agintaritzetako funtzionario eta enplegatuei eginikoak.

4. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura egiten diren zatikako ordainketak titulu honetan ezarritakoaren arabera eskatuko dira. Ohiko etxebizitza Bizkaian daukaten zergadunek Bizkaiko Foru Aldundiari egin behar dizkiote ordainketak.

**80. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga: atxikipenak eta konturako ordainketak egin beharra.**

1 Araudi honetako 83. artikuluan aipatzen diren pertsonek eta erakundeek hurrengo artikuluan azaltzen diren errentak ordaintzen badituzte, atxikipenak egin behar dituzte hartzaileei dagozkien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kargen konturako ordainketa gisa eta Foru Ogasunari ordaindu behar dizkiote, araudi honetako arauekin bat etorriz.

2 Errenta gauzatan ordainduz gero, araudi honetako 83. artikuluan aipatutako pertsonek eta erakundeek konturako sarrera egin behar dute hartzaileari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kargaren konturako ordainketa gisa, araudi honetako arauekin bat etorriz.

3 Araudi honetan ezarritakoari dagokionez, atxikitzaileari buruz ezarritakoa konturako sarrerak egin behar dituenari ere badagokiola, konturako ordainketa biok batera arautzen direnean.

**81. artikulua. Atxikipena edo konturako sarrera aplikatu beharreko errentak.**

1. Hauexek dira atxikipena edo konturako sarrera aplikatu behar zaien errentak:

a) Lanaren etekinak.

b) Kapital higigarriaren etekinak.

c) Jarduera ekonomiko hauen etekinak:

- Profesionalen jardueren etekinak.

- Nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren etekinak.

- Basogintzako jardueren etekinak.

- Araudi honetako 94. artikuluko 6. idatz-zatiko 2. zenbakian aipatzen diren enpresa-jardueren etekinak, baldin eta enpresaren etekin garbia kalkulatzeko zenbatespen objektiboaren metodoa erabiltzen bada.

d) Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzen duten akzioak edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako ondare-irabaziak, eta harpidetza-eskubideen eskualdaketatik datozenak.

2. Halaber, ondoko errenta hauei ere atxikipena edo konturako sarrera aplikatu behar zaie, kalifikazioa gorabehera:

a) Hiri-higiezinen errentamenduak edo azpierrentamenduak sortzen dituen etekinak.

Hori dela eta, errentamenduaz esana azpierrentamenduari ere badagokio.

b) Jabetza intelektualaren eta industrialaren ondoriozko etekinak; laguntza teknikoa emanda lortzen diren etekinak; ondasun higigarriak, negozioak eta meatzeak errentatuta lortzen diren etekinak; aurreko ondasun horiek azpierrentatuta lortzen diren etekinak; irudia ustiatzeko eskubidearen lagapenak sortzen dituen etekinak.

c) Joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan ematen diren sariak, kontuan hartu gabe ondasun, produktu edo zerbitzu zehatz batzuen eskaintzari, sustapenari edo salmentari lotuta dauden edo ez.

3. Zergari buruzko Foru Arauko hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriko 6. zenbakian adierazitako kasuetan, konturako ordainketa bat egin beharko da, kapital higigarriaren etekin positiboak lortu badira eta etekinoi foru arau horretako 9. artikuluko 32. zenbakiko salbuespena aplikatu bazaie.

**82. artikulua. Atxikipena edo konturako sarrera egin beharraren salbuespena.**

Ondoko kasuetan ez da aplikatu behar atxikipenik ez konturako sarrerarik:

a) Salbuetsitako errentak, Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluko 24. zenbakian ezartzen dena izan ezik, eta joan-etorrietarako gastuetarako eta ohiko mantenu eta egonaldi gastuetarako dietak eta kopuruak, kargapean ez daudenak.

b) Banco de España banketxeak jaulkitako balore jakin batzuen etekinak, hain zuzen ere monetaren merkatuan esku hartzeko tresna arautzaile diren baloreenak, eta Altxorraren letren etekinak.

Hala eta guztiz ere, kreditu-etxeek eta gainerako finantza-erakundeek beren bezeroekin Altxorraren letren gaineko eragiketetan oinarritutako kontuen kontratuak egiten badituzte, atxikipena aplikatu behar diete kontu horien titularrek lortutako etekin guztiei.

c) Obligazioak akzio bihurtzeagatiko primak.

d) Egoitza Espainian duten finantza-establezimenduek eta kreditu-erakundeen atzerriko establezimendu iraunkorrek ordaintzen dituzten atzerriko kontuen etekinak.

e) Erakundeek ondare-sozietateen araubidean dauden zergaldietan ematen dituzten dibidenduak eta partaidetzak.

f) Etekin esplizituko finantza-aktiboak eskualdatuta edo itzulita lortzen diren etekinak, baldintza hauek betez gero:

1.a Bakoitzak bere idaztoharra eduki behar du kontuetan.

2.a Espainiako bigarren mailako balore-merkatu ofizial batean negoziatu behar dira.

Halako finantza-aktiboen eskualdaketan, amortizazioan edo diru-itzulketan parte hartzen duten finantza-erakundeek kalkulatu egin beharko dute balioaren titularrari egozteko moduko etekina, eta gainera, horren berri emango diete titularrari eta zerga-administrazioari; azken horri, halaber, lehen aipatu diren eragiketetan parte hartzen duten pertsonen datuak ere eman beharko zaizkie.

Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak prozedura egokia ezarri ahal izango du letra honetan araututako atxikipenaren salbuespena gauzatzeko.

f) letra honetan ezarritakoa gorabehera, kreditu-etxeek eta gainerako finantza-erakundeek beren bezeroekin aurreko baloreen gaineko eragiketetan oinarritutako kontuen kontratuak egiten badituzte, atxikipena egin beharko dute kontu horien titularrek lortutako etekinak direla eta.

Gainera, atxikipena aplikatu behar zaio kupoia mugaeguneratu aurreko 30 egunetan egiten diren finantza-aktiboen eskualdaketetan kupoi korrituaren baliokidea den prezioaren zatiari, baldintza hauek betez gero:

- Eskuratzailea egoitza Espainiako lurraldean ez daukan pertsona edo erakundea izatea edo Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboa izatea.

- Eskualdatutako baloreen ondoriozko etekin esplizituak eskuratzaileari dagokionez atxiki beharretik salbuetsita egotea.

g) Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko jokoa araupetu duen azaroaren 8ko 4/1991 Legean eta zorizko, eskaintzazko eta apustuzko jokoen zehapen, administrazio eta zerga alderdiak arautu dituen otsailaren 25eko 16/1977 Errege Lege-Dekretuan ezarritakoaren babesean antolatutako jokoen ondorioz ematen diren sariak eta 300 euroko edo kopuru horretatik beherako atxikipen-oinarria dutenak edo, Zergari buruzko Foru Arauko hemezortzigarren xedapen gehigarriko kargapeko sarien kasuan, xedapen horretan ezarritako zenbatekora iristen ez diren sariak.

h) Hiri-higiezinen errentamenduak edo azpierrentamenduak sortzen dituen etekinak, ondoko kasu hauetan:

- Enpresa batek etxebizitza alokatzen dionean enplegatu bati.

- Errentariak urtean errentatzaileari ordaindutako errenten zenbatekoa 900 euro baino gehiago ez denean.

- Errentatzailearen jarduera apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu Arauemaileak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako Tarifak onartzen dituenak, jasotako tarifen lehen atalaren 861 taldeko epigrafeetako batean sailkatuta dagoenean, edota, bestela, hiri ondasun higiezinak errentan edo azpierrentan emateko ahalbidetzen duen beste edozein epigraferen arabera tributatu beharra izanik, errentan edo azpierrentan ematen diren ondasun higiezinen katastroko balioari 861 taldeko epigrafeetan ezarritako kuota kalkulatzeko arauak aplikatuz zero kuota ateratzen ez denean.

Horretarako, errentatzaileak betekizun hori betetzen duela frogatu beharko dio errentariari Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezartzen duen bezala.

i) Akzioen edo partaidetzen jaulkipen prima itzultzeak edo sozietatearen kapitala bazkideei ekarpenak itzuliz txikitzeak sortzen dituzten etekinak, banatu gabeko mozkinenak direnean izan ezik, Zergari buruzko Foru Arauko 41. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letrako bigarren paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz.

j) Enpresak borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetara, pentsio-planetara, enpresen gizarte aurreikuspeneko planetara edo gizarte aurreikuspeneko mutualitateetara eginiko kontribuzioak edo ekarpenak, araudi honetan ezarritakoaren arabera.

k) Talde-inbertsioko erakundeen partaidetza edo akzioak itzuli edo eskualdatuta lortutako ondare-irabaziak, baldin eta, Zergari buruzko Foru Arauko 48. artikuluan ezarritakoaren arabera, konputatu behar ez badira.

l) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 45. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuta agerian jartzen diren errentak.

m) Talde-inbertsioko erakundeen partaidetza edo akzioak itzuli edo eskualdatuta lortutako ondare-irabaziak, baldin eta erakunde hauek jaulkiak badira:

   1. Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzen duen Erregelamenduko 79. artikuluan arautzen dituen funts kotizatuak eta kapital aldakorreko inbertsioko indize sozietate kotizatuak.

   2. Atzerrian eratutako inbertsio kolektiboko erakundeak, aurreko 1. zenbakian aipatutakoen antzekoak eta Zergaren Foru Arauaren 52. artikuluan aurreikusitakoez bestelakoak, merkatu arautu batean nahiz negoziazio-sistema aldeaniztun batean kotizatzen dutenak, edozein dela ere erreproduzitzen, errepikatzen edo erreferentziatzat hartzen duten indizearen osaera, baldin eta, gainera, itzulketa edo eskualdaketa ez bada egiten jurisdikzio ez-kooperatibotzat jotzen den herrialde edo lurralde batean kokatutako merkatu batean.

**83. artikulua. Atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituztenak.**

1. Oro har, ondoko hauek atxikipena edo konturako sarrera egin behar dute betebehar honi loturiko errentaren bat ordaintzen dutenean:

   a) Pertsona juridikoek eta gainerako erakundeek, are jabe-erkidegoek eta errenta-eratxikipenaren araubidean dauden erakundeek ere.

   b) Jarduera ekonomikoren bat egiten duten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek, jardueran errentaren bat ordaintzen dutenean.

   c) Egoitza Espainian ez duten pertsona fisiko, juridiko eta gainerako erakundeek, Espainian establezimendu iraunkorraren bidez jarduten badute.

   d) Espainiako lurraldean egoitzarik ez duten pertsona fisikoek eta pertsona juridikoek eta gainerako erakundeek, bertan establezimendu iraunkorrik gabe dihardutenek, ordaintzen dituzten lanaren etekinei dagokienez eta atxikipena edo konturako sarrera egin beharra dakarten gainerako etekinei dagokienez, baldin eta etekin horiek gastu kengarriak badira Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 12/2013 Foru Arauko 24. artikuluko 2. idatz-zatian aipatzen diren errentak lortzeko.

   Pertsona edo erakunde batek ez du errentarik ordaintzen ordainketa egiteko bitartekotza-lana besterik egiten ez duenean.

   Hauxe da ordainketa egiteko bitartekotza hutsa: hirugarren baten kontura eta agindura diru-kopuru bat ordaintzea.

Ez dira hartuko ordainketa egiteko bitartekotza-lantzat ondoren aipatuko diren eragiketak. Horrenbestez ondoko kasu hauetan aurrean aipatutako pertsonek eta erakundeek nahitaez egin behar dituzte atxikipena eta sarrera:

- Espainiako lurraldean bizi direnen atzerriko jabetza-baloreak dituztenean gordailatuta edo halako baloreen ondoriozko errenten kobrantza kudeatzen dutenean (ezinbestekoa da errentei Espainian atxikipenik ez aplikatzea).

- Langileei Gizarte Segurantzaren konturako prestazioak ordaintzen dizkietenean.

- Langileei hirugarrenek emandako eskupekoak, zerbitzuen ordainsariak eta antzekoak ordaintzen dizkietenean.

- Nekazaritzako kooperatibek, euren kideen ustiapenetako produktuak banatzen edo merkaturatzen dituztenean.

2. Kontuan eduki:

a) Erakunde egoiliarrek eta establezimendu iraunkorrek euren zerbitzuan ari diren zergadunei atxikipenak egin behar dizkiete, baldin eta zergadunekin Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluan adierazitako lotura duen beste erakunde batek, egoiliarra izan nahiz ez, zergadun horiei lanaren etekinak ordaintzen badizkie, edo Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen establezimendu iraunkorraren titularra den atzerriko erakundeak establezimendu iraunkorreko langileei lanaren etekinak ordaintzen badizkie.

b) Finantza-aktiboen gaineko eragiketetan ondoko hauek egin behar dute atxikipena:

1.a. Finantza-aktiboen amortizazioan edo itzulketan lortutako etekinetan, pertsona edo erakunde jaulkitzaileak. Hala ere, finantza-erakunde bati aginduz gero eragiketa horiek egiteko, atxikipena eragiketaren ardura daukan finantza-erakundeak egin behar du.

Jaulki ostean finantza-aktibo bihurtutako igorpen-tresnen kasuan, tresnok mugaeguneratutakoan atxikipena egin behar duena fede-emaile publikoa edo tresna hori kobratzeko aurkeztean esku hartzen duen finantza-erakundea da.

2.a. Finantza-aktiboen eskualdaketan lortutako etekinetan (aurreko zenbakian aipatu diren igorpen-tresnak barnean sartuta), eskualdaketa hori finantza-erakunde baten edo batzuen bitartez bideratzen bada, eskualdatzailearen kontura jarduten duen bankua, kutxa edo finantza-erakundea.

Zenbaki honetan xedatutakoa aplikatzeko, eskualdatzaileak finantza-aktiboak saltzeko agindua ematen dion bankuak, kutxak edo finantza-erakundeak haren kontura diharduela pentsatuko da.

3.a. Aurreko idatz-zatietan aipatzen ez diren kasuetan eragiketan nahitaez parte hartu behar duen fedemaile publikoak egin behar du atxikipena.

c) Herri Zorraren baloreen eskualdaketetan, eragiketan aritu den Herri Zorraren Merkatuko erakunde kudeatzaileak egin behar du atxikipena.

d) Talde-inbertsioko erakundeen kapital edo ondareko akzio edo partaidetza adierazgarrien eskualdaketetan ondokoek egin behar dute atxikipena edo konturako sarrera:

1.a. Inbertsio-funts bateko partaidetza itzuliz gero, sozietate kudeatzaileak. Salbuespena: partaidetza partaideen kontura ari den erakunde merkaturatzaile

baten izenean erregistratuta badago, erakunde horrek egin behar du atxikipena edo konturako sarrera.

2.a. Kapital aldakorreko inbertsio-sozietate batek, burtsan edo baloreak negoziatzeko bestelako merkatu edo sistema batean akziorik ez daukan batek, zergadunak zuzenean edo merkaturatzaile baten bidez berari eskuratutako akzioak berrerosten baditu, sozietateak berak. Salbuespena: sozietate kudeatzaile batek esku hartu badu, berak egin behar du.

3.a. Egoitza atzerrian daukaten talde-inbertsioko erakundeen kasuan, erakunde merkaturatzaileek edo haien akzio nahiz partaidetzak merkaturatzerako ahalmena duten bitartekariek, eta sorospidez, itzulketa egiten dutenean, balizko harpidedunen artean baloreak jarri edo banatzeaz arduratutako erakundeak edo erakundeek.

4.a. Zerbitzugintza askean ari diren erakunde kudeatzaileen kasuan, zerga-neurri batzuk onetsi dituen apirilaren 6ko 2/2004 Foru Arauko bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera izendatutako ordezkariak.

5.a. Aurreko zenbakietan ezarritakoarekin bat etorriz atxikipenik egin behar ez den kasuetan, konturako ordainketa egin beharko du eskualdaketa egin edo itzulketa lortzen duen bazkideak edo partaideak. Konturako ordainketa hori araudi honen 95., 96.1 eta 97. artikuluetan dauden arauekin bat etorririk egingo da.

e) Zerbitzuak emateko askatasunez diharduten aseguru-erakundeek Espainian egindako eragiketetan, Europako esparru ekonomikoko beste estatu kide batean helbideratuta dauden aseguru- erakundeek egin behar dute atxikipena edo konturako sarrera.

f) Europar Batasuneko beste estatu batean helbideratuta dauden pentsio-funtsek Espainiako legeriaren mende dauden enpleguko pentsio-planak aurrera badaramatzate Espainiako lurraldean (Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an enpleguko pentsio funtsen edo haien entitate kudeatzaileen jarduerei eta ikuskapenari buruz emandako 2003/41/EE Zuzentarauan araututakoarekin bat), orduna, funts horiek atxikipena egin behar dute Espainian egindako eragiketak direla eta.

g) Zergari buruzko Foru Arauko hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriko 6. zenbakian adierazitako kasuetan, zergadunak epe luzerako aurrezki-plana kontratatuta duen kreditu-entitateak edo aseguru-entitateak dagokion konturako ordainketa egin beharko du. Konturako ordainketa hori araudi honetako 89. artikuluan, 92. artikuluko 6. zenbakian eta 93. artikuluko 3. zenbakian ezarritako arauekin bat egin behar da.

h) Harpidetza-eskubideen eskualdaketetan, entitate gordailuzainak egin behar du zerga honi dagokion atxikipena edo konturako sarrera, eta, halako entitaterik ez balego, eskualdaketan hartu duen finantza-bitartekariak edo fede-emaile publikoak egin beharko luke.

3. Atxikipena egin behar duten subjektuek sarrera Bizkaiko Foru Aldundiari egin beharra onartu behar dute; hura ez betetzeak ez ditu salbuetsiko bestea egin beharretik.

   Etekina Bizkaiko Foru Aldundiak ordaintzen badu, atxikipena eta berari dagokion sarrera zuzenean egingo dira.

**84. artikulua. Atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa.**

1. Atxikipenaren zenbatekoa izango da atxikipen-oinarriari dagokion atxikipen-tasa aplikatzean lortzen den emaitza; izan ere, tasa hori hurrengo II. kapituluan ezarritakoaren araberakoa izango da. Atxikipen-oinarria ordaindutako guztirako zenbatekoa izango da. Hala ere, kontuan hartuko da bai araudi honetako 87. artikuluan lanaren etekinez xedatzen dena, bai 92. artikuluan kapital higigarriaren etekinez xedatutakoa, bai eta 96. artikuluan inbertsio kolektiboko erakundeen akzioen eta partaidetzen eskualdaketetatik edo itzulketetatik datozen ondare-irabaziez xedatutakoa ere.

2. Gauzazko ordainsariengatik egin beharreko konturako ordainketaren zenbatekoa kalkulatzeko hurrengo III. kapituluan ezarritakoaren araberako ehunekoa aplikatu behar zaio ordainsarien balioari (hau araudi honetan ezarritakoaren arabera kalkulatu behar da).

### 85. artikulua. Noiz sortzen den atxikipena edo konturako sarrera egin beharra.

1. Oro har, atxikipena edo konturako sarrera egin beharra errentak ordaintzen diren unean sortzen da.

2. Kapital higigarriaren etekinei dagokienez araudi honen 93. artikuluan ezarritakoa aplikatu behar da.

3. Inbertsio kolektiboko erakundeen akzioen eta partaidetzen eskualdaketan edo itzulketan zein harpidetza-eskubideen eskualdaketan sortutako ondare-irabaziei dagokienez araudi honen 97. artikuluan ezarritakoa aplikatu behar da.

### 86. artikulua. Atxikipenak eta konturako sarrerak: aldi-egozketa.

Atxikipenak eta konturako sarrerak atxikipena edo konturako sarrera aplikatu behar zaien errentak egozten diren epealdiari egotzi behar dizkiote zergadunek, noiz egin diren kontuan hartu gabe.

## II. KAPITULUA
## ATXIKIPENEN KALKULUA

## 1. ATALA
## LANAREN ETEKINAK

### 87. artikulua. Lanaren etekinen gaineko atxikipenen zenbatekoa.

1. Lanaren etekinen gainean egin beharreko atxikipena kalkulatzeko lanaren etekinen zenbateko osoari jarraian azalduko diren ehunekoetatik egokia aplikatu behar zaio:

   a) Oro har, zergadunaren etekinak eta inguruabar pertsonalak kontuan harturik hurrengo artikuluko taularen eta jarraibideen arabera aplikatu behar den ehunekoa.

   b) Administrazio kontseiluetako, horien ordezko batzordeetako eta beste ordezkaritza-organoetako administratzaile eta kide izateagatik jasotako ordainsarien gaineko atxikipen-ehunekoa %35 izango da.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa aplikatzeko, lanaren errenta jakin batzuei Zergari buruzko Foru Arauko 19. edo 20. artikuluan aipatutako ehunekoak aplikatu behar bazaizkie, errenta horien zenbateko osoa kalkulatzeko aipatu ehuneko horiek erabiliko dira.

3. Jasotzaile bati lanaren errentak diruz eta gauzaz ordaintzen zaizkionean, atxikipena ordaindutako kontraprestazio edo onura guztien gainean egingo da.

4. Atxikipen-ehunekoa kalkulatzeko kontuan edukiko dira aurreikus daitezkeen diruzko zein gauzazko ordainsariak, finkoak zein aldakorrak.

   Hala ere, ez dira zenbatuko atxikipen-ehunekoa kalkulatzeko kontuan eduki beharreko oinarrian borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetako bazkide babesleek ordaintzen dituzten kontribuzioak, ez eta enpresek pentsio-planetara, enpresen gizarte-aurreikuspeneko planetara eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateetara egiten dituzten ekarpenak, zerga-oinarri orokorra txikitzen dutenak, honako muga honekin: Zergaren Foru Arauaren 71. artikuluaren 1. zenbakian xedatzen dena ordainsarien zenbatekoari aplikatzearen emaitzako kopurua.

   Halaber, ez dira zenbatuko atxikipen-ehunekoa kalkulatzeko kontuan eduki beharreko oinarrian Gizarte Segurantzako kotizazio hauek: arautegiko xedapenak betetzeko,

kooperatibek bazkide langileen gizarte-estaldurarako eta laguntza-estaldurarako ordaintzen dituztenak; Gizarte Segurantzari laguntzen dioten mutuek aldi baterako ezintasunean dauden langile autonomoen alde ordaintzen dituztenak.

Aurreko paragrafoetan aipatutako ehunekoa ordaindutako kontraprestazioen eta onuren guztirako zenbatekoari aplikatzearen emaitzako kopurua ordaindutako diru-etekinetatik kenduko da.

5. Halaber, hurrengo letretan xedatutakoa aplikatu behar zaien zergadunek artikulu honetako 1. zenbakiko a) letran xedatutakoa aplikatzeko eskatu ahal izango diote atxikipena egin behar duen pertsonari edo erakundeari, berezitasun hauekin:

   a) Zergaren Foru Arauaren 56.bis artikuluan xedatzen dena aplikatzea hautatzen duten zergadunek 100eko 30eko murrizketa aplikatuko dute dagokien atxikipen-tasan.

   b) Zergari buruzko Foru Arauko 92.2 artikuluan xedatutakoa aplikatzea aukeratzen duten zergadunek %50eko murrizketa aplikatu beharko dute dagokion atxikipen-tasan.»

**88. artikulua. Atxikipen-ehunekoen taula eta ehunekook aplikatzeko erregelak.**

1. Atxikipen-portzentajeen taula orokorra:

| Urteko etekina (€) | | Ondorengoen kopurua | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Honetatik | Honetara | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | Gehiago |
| 0,00 | 14.000,00 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 14.000,01 | 15.410,00 | 5 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 15.410,01 | 16.230,00 | 6 | 4 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 16.230,01 | 17.370,00 | 7 | 5 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 17.370,01 | 18.680,00 | 8 | 6 | 4 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 18.680,01 | 19.970,00 | 9 | 7 | 5 | 2 | 0 | 0 | 0 |
| 19.970,01 | 21.520,00 | 10 | 8 | 6 | 3 | 0 | 0 | 0 |
| 21.520,01 | 23.350,00 | 11 | 10 | 8 | 5 | 1 | 0 | 0 |
| 23.350,01 | 24.970,00 | 12 | 11 | 9 | 6 | 3 | 0 | 0 |
| 24.970,01 | 26.930,00 | 13 | 12 | 10 | 7 | 4 | 0 | 0 |
| 26.930,01 | 29.260,00 | 14 | 13 | 11 | 9 | 6 | 2 | 0 |
| 29.260,01 | 32.010,00 | 15 | 14 | 13 | 10 | 8 | 4 | 0 |
| 32.010,01 | 35.330,00 | 16 | 15 | 14 | 12 | 9 | 6 | 0 |
| 35.330,01 | 39.900,00 | 17 | 16 | 15 | 13 | 11 | 8 | 0 |
| 39.900,01 | 43.590,00 | 18 | 17 | 16 | 15 | 13 | 10 | 2 |
| 43.590,01 | 46.980,00 | 19 | 18 | 17 | 16 | 14 | 12 | 4 |
| 46.980,01 | 50.950,00 | 20 | 19 | 18 | 17 | 15 | 13 | 7 |
| 50.950,01 | 55.350,00 | 21 | 20 | 20 | 18 | 17 | 15 | 9 |
| 55.350,01 | 59.890,00 | 22 | 21 | 21 | 19 | 18 | 16 | 11 |
| 59.890,01 | 63.800,00 | 23 | 22 | 22 | 21 | 19 | 18 | 12 |
| 63.800,01 | 68.040,00 | 24 | 23 | 23 | 22 | 21 | 19 | 14 |
| 68.040,01 | 72.840,00 | 25 | 25 | 24 | 23 | 22 | 20 | 16 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 72.840,01 | 78.390,00 | 26 | 26 | 25 | 24 | 23 | 22 | 17 |
| 78.390,01 | 84.410,00 | 27 | 27 | 26 | 25 | 24 | 23 | 19 |
| 84.410,01 | 89.690,00 | 28 | 28 | 27 | 26 | 25 | 24 | 20 |
| 89.690,01 | 95.680,00 | 29 | 29 | 28 | 27 | 27 | 25 | 22 |
| 95.680,01 | 102.280,00 | 30 | 30 | 29 | 29 | 28 | 27 | 23 |
| 102.280,01 | 110.120,00 | 31 | 31 | 30 | 30 | 29 | 28 | 25 |
| 110.120,01 | 118.780,00 | 32 | 32 | 31 | 31 | 30 | 29 | 26 |
| 118.780,01 | 128.700,00 | 33 | 33 | 32 | 32 | 31 | 30 | 28 |
| 128.700,01 | 139.880,00 | 34 | 34 | 33 | 33 | 32 | 32 | 29 |
| 139.880,01 | 153.200,00 | 35 | 35 | 34 | 34 | 33 | 33 | 31 |
| 153.200,01 | 167.790,00 | 36 | 36 | 36 | 35 | 35 | 34 | 32 |
| 167.790,01 | 185.460,00 | 37 | 37 | 37 | 36 | 36 | 35 | 33 |
| 185.460,01 | 207.280,00 | 38 | 38 | 38 | 37 | 37 | 36 | 35 |
| 207.280,01 | 230.150,00 | 39 | 39 | 39 | 38 | 38 | 37 | 36 |
| 230.150,01 | Hortik aurrera | 40 | 40 | 40 | 39 | 39 | 39 | 37 |

2. Taula aplikatzeko erregela orokorrak.

1.a. Taula aplikatzeko kontuan hartu behar diren ondorengoak Zergari buruzko Foru Arauko 79. artikuluan aipatutako kenkarirako eskubidea sortzen dutenak baino ez dira. Horri dagokionez, familiaren egoera izango da, egutegiko urteko lehenengo egunean dagoena, edo harremanen hasierako egunekoa, baldin eta harremanok hasi badira egutegiko urtearen lehenengo egunaren ondoren.

Ez dira kontuan hartuko atxikipena aplikatzen den zergaldian 30 urte baino gehiago beteko dituzten ondorengoak, Zergari buruzko Foru Arauko 82. artikuluan aipatutako kenkarirako eskubidea sortzen dutenean izan ezik.

2.a. Taula aplikatzen denean kontuan hartu behar den ordainsari kopurua hartukizun osoaren arabera zehaztuko da, zergadunak, kontratuko arau edo hizpaketa aplikagarriak eta aurreikus daitezkeen gainerako inguruabarrak direla bide, egutegiko urtean hartuko bide dituen diruzko eta gauzazko ordainsariak kontuan harturik.

Urteko hartukizun osoan, hartu bide diren ordainsari finkoez gain aldakorrak ere sartuko dira.

Ordainsari horietariko bati Zergari buruzko Foru Arauko 19. edo 20. artikuluetan xedatutakoa aplikatu behar bazaio, ordainsariaren gaineko atxikipenaren ehunekoa kalkulatzeko, etekina aipatutako artikuluetan adierazitako ehunekoetatik egokia dena aplikatuz sortzen den kopurua izango da.

3.a. Hala ezarritako atxikipen-ehunekoa ordaindutako ordainsari guztiei aplikatuko zaie. Ordainsari horietariko bati Zergari buruzko Foru Arauko 19. edo 20. artikuluetan xedatutakoa aplikatu behar bazaio, kalkulatutako atxikipen-ehunekoa 19. eta 20. artikuluetan ezarritakoaren araberako ehunekoa aplikatzearen emaitzako etekinari aplikatuko zaio.

Urtean zehar ordainsarien kopurua aldatzen bada, beste atxikipen-ehuneko bat kalkulatu behar da aldaketa kontuan hartuta. Ehuneko berria aldaketa gertatuz geroztik soilik aplikatuko da.

Urtebetetik beherako kontratu edo harremanaren hasieran ezarritako iraunaldia amaitutakoan langileak enplegatzaile berari zerbitzuak egiten jarraitzen badu, edo egutegiko urtea amaitu aurretik berriro hasten bada haren zerbitzuan lanean, beste atxikipen-ehuneko bat kalkulatu beharko da eta horretarako kontuan hartuko dira bai lehenago hartu dituen ordainsariak eta bai aurrerantzean hartuko bide dituenak, beti ere egutegiko urte batean.

4.a. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoaren araberako atxikipen-ehunekoa ezin da izan %15 baino txikiagoa, etekinak besteren menpeko lan-harreman berezien ondoriozkoak badira, edo %2 baino txikiagoa, urtebetetik beherako kontratu edo harremanen kasuan.

Hala ere, aurreko paragrafoan aipatutako %15eko gutxieneko atxikipen-ehunekoa ezin zaie aplikatu presondegietan zigortuta daudenen etekinei, ez eta pertsona ezinduen lan-harreman berezien etekinei ere.

3. Taula aplikatzeko arau zehatzak.

1.a. Etekinak pentsioak edo hartzeko pasiboak badira, ondorengo bat duten zergadunei taulan dagokien zutabean ageri diren atxikipen-ehunekoak aplikatu behar zaizkie.

Aplikatu beharreko atxikipen-ehunekoa zehazteko, ez beste ezertarako, ekitaldian zehar pentsiodun edo hartzeko pasiboen titular bihurtu direnek jasotako pentsioen edo hartzeko pasiboen urteko kopuruak kalkulatuko dira.

Hala ere, zergadunak atxikipenen taula orokorra aplikatzea aukeratu ahal izango du, bere inguruabar pertsonalen arabera, eta hala egiten badu ez da urteko kopurua kalkulatu beharko.

2.a. Etekinak enplegatzaileekiko noizean behin eta eguneroko harremanen ondorioz giza lanetan edo eguneko lansaritan jasotzen dituzten eskulangileen kasuan, taula aplikatzean kontuan eduki beharreko zenbatekoa kalkulatzeko ondoko eragiketa egin behar da: 100ez biderkatu jasotako giza lanaren edo eguneko soldataren zenbatekoa.

3.a. Arrantzontzietako langileek ordainsari gisa, ordainsari osoa zein partziala, arrantzu-balioaren edo haren bolumenaren parte bat jasotzen badute, atxikipenaren ehunekoa Gizarte Segurantzaren Itsasoko Langileen Araubide Berezian daudenen kotizazio oinarriak finkatzeko urtero Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak ematen duen aginduko 2. taldean Bizkairako ezarritako oinarrien arabera kalkulatuko da, arrantzontzien erregistro gordineko tona kopurua gorabehera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, erregistro gordinean 150 tona baino gehiago dituzten inguraketa modalitateko arrantzontzietako arrantza teknikarien eta makineriako buruen kasuan, aipatutako oinarriak bikoiztu egingo dira.

Atxikipen-ehunekoa inolaz ere ezin da izan %2 baino gutxiago.

4.a. Lanaren etekinen jasotzaileak, epaile baten ebazpena dela bide, konpentsazio-pentsioa eman behar badio bere ezkontideari edo izatezko bikotekideari, horren zenbatekoari atxikipen-ehunekoa kalkulatzeko kontuan hartu beharreko ordainsarien zenbatekoa kendu ahal zaio.

Horretarako, zergadunak murrizketaren berri eman behar dio ordaintzaileari araudi honetako 107. artikuluan ezarri den bezala, bai eta pentsioa ezarri duen epailearen ebazpenaren hitzez hitzezko lekuko-agiria ere.

Erregela honetan ezarritako murrizketa aplikatzeko ezinbestekoa da langileak kontratu mugagabea edukitzea. Gainera, epaileak pentsioa emateko agintzen duen zergaldiaren hurrengo zergalditik aurrera soilik aplikatu ahal izango da.

Erregela honetan ezarritako kasuetan kalkuluaren emaitzako atxikipen-ehunekoa %2 baino gutxiago bada, %2 aplikatuko da.

4. Langile aktibo desgaituak:

Langile aktibo desgaituei artikulu honetako 1. zenbakian atxikipen-portzentajeen taula orokorra aplikatuko zaie. Dena dela, taula orokorra aplikatuz ateratzen den atxikipen-portzentajeari hurrengo eskalan ageri diren puntuak kenduko zaizkio, langilea honako egoera hauetako batean badago:

a) %33koa edo handiagoa eta %65ekoa baino txikiagoa den desgaitasun-gradua duten langile aktiboak.

b) Desgaitasun-gradua %33koa edo handiagoa eta %65 baino txikiagoa izanik, mugitzeko gaitasuna murriztuta duten langile aktibo desgaituak. Langileok halakotzat joko dira, baldin eta desgaitasun-gradua aitortu, adierazi eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskinean agertzen den baremoko A, B eta C letretan adierazitako egoeretako batean badaude, edo baremo horretako D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen badituzte.

c) %65ekoa edo handiagoa den desgaitasun-gradua duten langile aktiboak.

| Urteko etekina (€) | | Desgaitasun maila | |
|---|---|---|---|
| Honetatik | Honetara | 4. a) atala | 4. b) eta 4.c) atalak |
| 0,00 | 24.970,00 | 9 | 12 |
| 24.970,01 | 32.010,00 | 7 | 12 |
| 32.010,01 | 46.980,00 | 6 | 10 |
| 46.980,01 | 55.350,00 | 5 | 10 |
| 55.350,01 | 78.390,00 | 4 | 8 |
| 78.390,01 | 118.780,00 | 3 | 6 |
| 118.780,01 | 185.460,00 | 2 | 5 |
| 185.460,01 | Hortik aurrera | 1 | 3 |

## 2. ATALA
## KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK

### 89. artikulua. Kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipenen zenbatekoa.

1. Kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipeneko eta konturako sarrerako portzentajea 100eko 19 izango da. Portzentaje hori 100eko 15a izango da jabetza intelektualetik datozen kapital higigarriaren etekinetarako, zergaduna egilea ez denean.

2. Kapital higigarriaren etekin positiboetan egin beharreko atxikipena edo konturako ordainketa -araudi honetako 81. artikuluko 3. zenbakian aipatzen dena- kalkulatzeko, atxikipen-oinarriari %19ko tasa aplikatu behar zaio.

### 90. artikulua. Finantza-aktiboen kontzeptua eta sailkapena.

1. Finantza-aktibotzat jotzen dira besteren kapitalak bereganatzea eta erabiltzea adierazten duten balore negoziagarriak, haiek dokumentatzen diren era kontuan hartu gabe.

2. Etekin inplizituko finantza-aktiboak dira etekina honela kalkulatzen zaienak: jaulkipenean, lehen aldiz merkaturatzean edo endosuan ordaindutako zenbatekoa ken eragiketaren mugaegunean itzultzeko agindutako zenbatekoa, baldin eta eragiketaren etekina, osorik

edo zati batean, inplizituki, besteren baliabideak eskuratzeko erabiltzen diren balore higigarrienetariko edozeinen bitartez finkatzen bada.

Jaulkipen-, amortizazio- eta itzulketa-primak etekin inplizituen barruan sartuko dira.

Etekin inplizituaren kontzeptutik kanpo daude merkaturatzeko primak edo hobariak, jaulkipen-prezioaren gainean egindakoak, baldin eta merkatuko praktiken barruan sartzen badira eta beren osoan diru-sarrera badira xedapen honetan araututako finantza-aktiboak jaulki eta zirkulazioan jartzen parte hartzen duen bitartekari edo merkaturatzaile finantzarioarentzat.

Etekin inplizituko finantza-aktibotzat joko da igorpena egiteko edozein tresna, baita merkataritzako eragiketetan endosua edo eskualdaketa egiten den uneaz gero sortutakoak ere, salbu eta endosu edo lagapena hornitzaileen kreditu baten ordain gisa egiten denean.

3. Etekin esplizituko finantza-aktibotzat hartuko dira norberaren kapitalak hirugarrenei lagatzearen ordainez itundutako korrituak eta beste edozein ordainsari mota sortzen dituztenak, baldin eta aurreko paragrafoan ezarrita dagoen eran etekin inplizituen kontzeptuan sartuta ez badaude.

4. Etekin mistoko finantza-aktiboek etekin esplizituko finantza-aktiboen araubideari jarraituko diote, baldin eta sortzen duten mota horretako urteko eskudirua jaulkipenaren unean indarrean dagoen erreferentzia-tasaren berdina edo hura baino handiagoa bada, nahiz eta jaulkipen-, amortizazio- edo itzulketa-baldintzetan era inplizituan beste etekin gehigarriren bat finkatu. Erreferentzia-tasa hori honako hau izango da hiruhileko natural bakoitzean: aurreko hiruhilekoan Estatuaren bonuekin egindako azken enkantean ateratako batez besteko prezio haztatu eta biribilduari dagokion tasa efektiboaren 100eko 80. Horretarako, lau urteko edo hortik beherako epea duten finantza-aktiboak badira, hiru urterako bonuen enkanteko prezioa hartuko da; lau urtetik gorako epea baina gehienez zazpi urtekoa duten finantza-aktiboak badira, bost urterako bonuen enkanteko prezioa hartuko da; eta, azkenik, epe handiagoa duten finantza-aktiboak badira, Estatuaren hamar, hamabost edo hogeita hamar urterako obligazioen enkanteko prezioa hartuko da. Eperen baterako erreferentzia-tasa zehaztu ezin bada, prestatutako jaulkipenaren epetik hurbileneko epearen erreferentzia-tasa aplikatuko da.

   Idatz-zati honetan xedatutakoaren ondorioetarako, etekin aldakor edo flotatzailea duten finantza-aktiboen jaulkipenei begira, eragiketaren barne-errendimenduaren tasa hartuko da eragiketa horren korritu efektibotzat, eta etekin esplizituak bakarrik hartuko dira kontuan; gainera, tasa hori, hala denean, sortutako etekinen behin betiko zenbatekoa aldizka finkatzeko balio duen parametroaren hasierako balorazioa erreferentzia hartuta kalkulatuko da.

   Aurrekoa gorabehera, etekin mistoko zor publikoa bada eta prezioen indize bat hartzen bada erreferentziatzat haren kupoiak eta amortizazioaren zenbatekoa kalkulatzeko, lehenengo lerroaldeko ehunekoa 100eko 40 izango da.

**91. artikulua. Finantza-aktiboak eskualdatu, itzuli eta amortizatzeko zerga-betekizunak.**

1. Eskualdaketaren, amortizazioaren edo itzulketaren unean atxikipena egin behar zaien etekin inplizituko tituluak edo finantza-aktiboak eta etekin esplizituko finantza-aktiboak besterenganatzeko edo itzultzeko, derrigorrez frogatu behar da aktibo horiek atxikipena egitera behartuta dauden fede-emaile edo finantza-erakundeek parte hartuz eskuratu direla aldez aurretik, eta eragiketa horren prezioa ere frogatu behar da.

   Igorpen tresna bat zirkulatzen jarri eta gero finantza-aktibo bihurtzen denean, jada lehenengo endosu edo lagapena fede-emaile publiko edo finantza-erakunderen baten bitartez egin behar da, endosu-hartzailea edo eskuratzailea finantza-erakunde bat denean izan ezik. Fede-emaile edo finantza-erakundeak dokumentuan agerraraziko du hura finantza-aktiboa dela, eta haren lehenengo eskuratzaile edo edukitzailearen identifikazioa jarriko du.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoari dagokienez, pertsona edo erakunde jaulkitzaileak, haren kontura jarduten duen finantza-erakundeak, fede-emaile publikoak edo eskuratzailearen nahiz gordailugilearen kontura jardun edo esku hartzen duen finantza-erakundeak, kasu bakoitzean dagokionak, honako hauek frogatzen dituen agiria luzatu beharko du:

   a) Eragiketaren eguna eta aktiboaren identifikazioa.

   b) Eskuratzailearen izena.

   c) Eskuratzailearen edo gordailugilearen identifikazio fiskaleko zenbakia.

   d) Eskuraketa-prezioa.

   Ziurtagiri horren hiru ale egingo dira: bi ale eskuratzaileari emango zaizkio eta bestea ziurtapena egiten duen pertsonaren edo erakundearen eskuetan geratuko da.

3. Finantza-erakundeek edo fede-emaile publikoek ez dute bitartekaritza edo kontu-hartzailetza lanik egingo mota honetako aktiboen eskualdaketetan, eskualdatzaileak aktiboen eskuraketa artikulu honetan xedatutakoaren arabera justifikatzen ez duenean.

4. Artikulu honetan aipatutako finantza-aktiboak jaulkitzen dituzten pertsona edo erakundeek ezingo dituzte haien diru-itzulketarik egin, edukitzaileak aurrez eskuratu dituenik frogatzen ez duenean aurreko 2. idatz-zatian adierazitakoaren arabera egindako ziurtagiriaren bitartez.

   Jaulkitzaileak edo eragiketaren arduradun diren finantza-erakundeek, aurreko paragrafoarekin bat etorririk tituluaren edo aktiboaren edukitzaileari diru-itzulketarik egin behar ez badiote, zenbateko horretako gordailua egin beharko dute, eta agintari judizialen esku utzi.

   Aktibo bat berrerosi, erreskatatu, ezereztu edo aurretiaz amortizatzeko, finantza-erakundearen edo fede-emaile publikoaren bitartekotza edo esku-hartzea behar da. Aktiboa jaulki duen erakundea edo pertsona eskuratzaile huts moduan geratuko da, titulua berriro zirkulazioan jarriz gero.

5. Tituluaren edukitzaileak, egin duen eskuraketaren egiaztagiria galduz gero, ziurtagiriaren bikoiztua eskatu ahal izango dio ziurtagiria egin zuen pertsona edo erakundeari.

   Pertsona edo erakunde horrek agiri hori bikoiztua dela agerraraziko du, baita agiriaren luzapen-data zein den ere.

6. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, dohaineko eskualdaketetan, eskuratzailea eskualdatzailearen erosketa-balioan subrogatuko da, kostu horren behar bezalako justifikaziorik tartean bada.

**92. artikulua. Kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipen-oinarria.**

1. Oro har, kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipen-oinarria eskatu ahal den edo ordaindu den kontraprestazio osoa izango da. Ondorio horietarako ez da inola ere kontuan hartuko Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluko 24. zenbakian ezarritako salbuespena.

2. Finantza-aktiboen amortizazio, itzulketa edo eskualdaketetan, atxikipenaren oinarria izango da aktiboon amortizazio-, itzulketa- edo eskualdaketa-balioaren eta eskuraketa- edo harpidetza-balioaren arteko diferentzia positiboa. Erosketaren ziurtagirian ageri dena hartuko da eskuraketa-baliotzat. Horretarako ez dira kenduko eragiketaren inguruko gastuak.

   Eskualdatzaileari dagokion atxikipena gorabehera, erakunde jaulkitzaileak eskuratzen badu berak jaulkitako finantza-aktiboren bat, atxikipena eta sarrera egingo da gero, tituluaren edozein eskualdaketa motatan, amortizazioan izan ezik, lortzen duen etekinaren gainean.

3. Atxikipenak egin beharra araudi honetako 82. artikuluko f) letrako azken paragrafoan ezarritakoaren ondorioz sortzen bada, atxikipen-oinarria eskualdatutako balorearen kupoi korrituaren baliokidea den prezioaren zatia izango da.

4. Zergari buruzko Foru Arauko 37. artikuluan arautzen diren etekinei Zergari buruzko Foru Arauko 39. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako ehunekoak aplikatu ahal bazaizkie, ehuneko horiek kontuan harturik kalkulatuko da atxikipen-oinarria.

5. Aseguru-kontratuetatik jasotako zenbatekoetan eta kapitalak ezartzearen ondorioz jasotzen diren biziarteko errentetan eta beste errenta batzuetan, atxikipen-oinarria izango da Zergari buruzko Foru Arauarekin bat etorririk kalkulatutako zerga-oinarrian sartu beharreko zenbatekoa.

6. Zergari buruzko Foru Arauko hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriko 6. zenbakian ezarritako konturako ordainketa egin behar denean, haren oinarria hau izango da: plana indarrean egon den bitartean lortu diren eta foru arau horretako 9. artikuluko 32. zenbakiko salbuespena aplikatu zaien kapital higigarriaren etekin positiboen zenbatekoa

**93. artikulua. Kapital higigarriaren etekinei atxikipenak eta konturako sarrerak aplikatu beharra sortzea .**

1. Oro har, atxikitzeko eta konturako sarrera egiteko betebeharra sortuko da atxikipenaren edo konturako sarreraren menpean dauden kapital higigarriaren etekinak, diruzkoak eta gauzazkoak, galdagarriak diren unean, edo, lehenago bada, etekinok ordaindu edo ematen diren unean.

   Korrituak galdagarriak izango dira, zehazki, kontratuan edo eskrituran haiek likidatzeko edo kobratzeko ezarritako mugaegunetan, edo kontuan beste era batera aitortzen direnean, nahiz eta hartzaileak haien kobrantza ez erreklamatu edo etekinak eragiketaren printzipalari pilatu. Dibidenduak, berriz, haiek banatzeko erabakian ezarritako egunean izango dira galdagarriak, edo, egun hori zehaztu ezean, banaketa erabakitzen den egunaren biharamunetik aurrera.

2. Finantza-aktiboak eskualdatu, amortizatu edo itzultzetik datozen kapital higigarriaren etekinen kasuan, atxiki beharra eskualdaketa, amortizazio edo itzulketaren unean sortuko da.

   Eskualdaketa formalizatzen den egunean egingo da atxikipena, kobratzeko itundutako baldintzak edozein izanda ere.

3. Zergari buruzko Foru Arauko hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriko 6. zenbakian ezarritako konturako ordainketa egin beharra —halakorik egin behar denean— foru arau horretako 9. artikuluko 32. zenbakian ezarritako epea amaitu aurretik metatutako kapitala erabiltzen den unean sortuko da, edo xedapen gehigarri horretako 1. zenbakiko c) letran ekarpenentzat ezarritako muga betetzen ez den unean.

## 3. ATALA
## JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINAK

**94. artikulua. Jarduera ekonomikoen etekinen gaineko atxikipenen zenbatekoa.**

1. Etekinak lanbide-jarduera baten kontraprestazioa direnean, ordaindu diren sarrera osoen %15eko atxikipen-tasa aplikatuko da.

   Hori horrela izanik ere, lanbide-jarduerari ekin dioten zergadunen kasuan, atxikipen-tasa %7 izango da jarduera hasi den zergaldian eta hurrengo bietan, baldin eta jarduera hasi aurreko urtean beste lanbide-jarduerarik egin ez badute.

Honen aurreko lerroalde bietan ezarri den atxikipen-tasa aplikatzeko, inguruabar hori gertatu dela jakinarazi behar diote zergadunek etekinen ordaintzaileari, eta ordaintzaileak gorde egin beharko du zergadunak behar bezala sinatutako jakinarazpen hori.

Atxikipen-tasa %7 izango da honako hauei ordaindutako etekinetan:

- Udal zerga-biltzaileei.

- Kanpoko laguntzaileen zerbitzuak erabiltzen dituzten aseguru- bitartekariei.

- Estatuko Loteria eta Apustuen Estatu Sozietatearen merkataritzako ordezkariei.

- Apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu Arauemaileak aplikatzeko jarraibideekin batera onartutako jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifetako bigarren sailataleko 851, 852, 853, 861, 862, 864 eta 869 taldeetan eta hirugarren sailataleko 01, 02, 03 eta 05 taldeetan sartutako jarduerak garatzen dituzten zergadunak; edo jarduera profesional horren kontraprestazioa zerbitzu- prestazio baten ondoriozkoa bada, zeina bere izaeragatik eta besteren kontura eginez gero sartuta geratuko bailitzateke lan-harreman berezi honen aplikazio-eremuan: arte eszenikoetan, ikus-entzunezkoetan eta musika-arteetan lan egiten duten artisten eta jarduera hori garatzeko beharrezkoak diren jarduera teknikoak edo laguntzekoak egiten dituzten pertsonen artekoan. Betiere, letra honetan ezarritako kasuetako edozeinetan, beharrezkoa izango da aurreko ekitaldiari dagozkion halako jarduera ekonomiko guztien etekin osoen bolumena 15.000 eurotik beherakoa izatea eta zergadunak ekitaldi horretan jarduera ekonomikoetan lortutako etekin osoak eta haren lanaren etekin osoak batera ehuneko 75 baino gehiago izatea. Atxikipen-tasa hau aplikatzeko, zergadunek inguruabar horien berri eman beharko diote etekinen ordaintzaileari, eta ordaintzaileak gorde egin beharko du jakinarazpena, behar bezala sinatuta.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoari dagokionez, honako hauek hartuko dira profesional-jardueratzat:

a) Oro har, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako Tarifen bigarren eta hirugarren ataletan sailkatutako jardueretatik sortutakoak. Tarifa horiek apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu Arauemaileak onetsi zituen.

b) Zehazki, honako pertsona hauek lortutako etekinak profesional-jardueren etekintzat hartuko dira:

1.a. Obren egile edo itzultzaileek (jabetza intelektual edo industrialetik datozen etekinak). Egile edo itzultzaileek euren lanak zuzenean argitaratzen dituztenean, lortzen dituzten etekinak enpresa-jardueren etekinei batuko zaizkie.

2.a. Komisiodunek. Komisioduntzat hartuko dira alderdi interesdunak kontratua egiteko elkarrengana hurbildu besterik egiten ez dutenak.

Aitzitik, komisiodunei dagozkien eragiketak bakarrik egiten ez dituztela usteko da, baldin eta haiek, aurreko paragrafoan deskribatutako funtzioaz aparte, merkataritza-eragiketa horien arriskua eta zoria ere beren gain hartzen badute. Horrelakoetan, lortzen den etekina enpresa-jardueren etekinei batuko zaie.

3.a. Irakasleek, irakaskuntzaren izaera edozein dela ere, jarduera euren egoitzan, etxe partikularretan edo akademian nahiz establezimendu irekian egiten badute. Norberaren establezimenduetan edo akademietan irakastea enpresa-jardueratzat hartuko da.

4.a. Hitzaldiak, mintegietako txostenak edo ikastaroak edo antzeko jarduketak, lan-harremanen ondorioz egiten ez direnak.

3. Ez dira profesional-jardueren etekintzat hartuko enpresa baten soldatapean dauden pertsonek jasotzen dituzten diru kopuruak, baldin eta enpresan betetzen dituzten eginkizunak direla-eta izena eman behar badute beren elkargoetan, ezta, orokorrean, lan-harremanen edo menpeko harremanen ondoriozkoak ere. Diru kopuru horiek lanaren etekinen barruan sartuko dira.

4. Etekinak nekazaritzako edo abeltzaintzako jarduera baten kontraprestazioak badira, honako atxikipen-ehuneko hauek aplikatuko dira:

   - Txerri azienda gizentzeko eta hegazti-hazkuntzako abeltzaintza jardueretan: 100eko 1.

   - Gainerako kasuetan: 100eko 2.

   Ehuneko horiek ordaindutako sarrera osoen gainean aplikatuko dira, diru-laguntza arruntak eta kapitalekoak eta kalte-ordainak aparte utzita.

   Horren ondoreetarako hauexek dira nekazaritza edo abeltzaintzako jarduerak: ustiategietan zuzenean produktu naturalak (landare-produktuak edo animalia-produktuak) lortzeko egiten diren jarduerak, gero produktu horiek eraldatu, landu edo manufakturatzeko prozesurik egiten ez bada.

   Produktuak eraldatu, landu edo manufakturatzeko prozesutzat hartuko dira Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako tarifetan industria jarduerei dagokien epigraferen batean alta emanda egon behar diren jarduera guztiak.

   Honako hauek hartuko dira nekazaritzako edo abeltzaintzako jardueratzat:

   a) Abeltzaintza lokabea.

   b) Nekazariek edo abeltzainek nekazaritzako edo abeltzaintzako lan edo zerbitzu osagarriak egitea, euren ustiategietan erabili ohi diren bitartekoekin.

   c) Ganadua hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak.

5. Baldin eta etekinak basogintzako jarduera baten kontraprestazio badira, 100eko 2ko atxikipena aplikatuko zaie ordaindu diren sarrera osoei, salbu eta diru-laguntza arruntei eta kapitalekoei eta kalte-ordainei.

6.

   1.a. Etekinak jarduera baten kontraprestazio badira eta jarduera horren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaz zehazten bada, 100eko 1eko atxikipena aplikatuko zaie ordaindutako sarrera osoei.

   2.a. Idatz-zati honetan ezarritakoa Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako tarifen lehenengo ataleko honako talde eta epigrafe hauetan sailkatuta dauden jarduerei aplikatuko zaie:

| JEZeko taldea edo epigrafea | Jarduera ekonomikoa |
|---|---|
| 314 eta 315 | Metalezko arozgintza, eta metalezko egitura eta galdaren fabrikazioa. |
| 316.2, 3, 4 eta 9 | Burdingintza, sarrailagintza eta torlojugintzako gaien fabrikazioa, alanbrearen eratorriak, etxeko tresneria eta beste ataletan ez dauden metalezko gaien fabrikazioa. |
| 453 | Janzkiak eta horien osagarriak seriean egitea, salbu eta horiek guztiak gehienbat beste batzuei aginduta |

| | |
|---|---|
| | egiten direnean. |
| 453 | Janzkiak eta horien osagarriak seriean egitea, enpresak berak zuzenean eginda, baldin eta soilik beste batzuentzat eta agindupean egiten badira. |
| 463 | Arozgintzako piezak, parketa eta eraikuntzarako zurezko egiturak seriean fabrikatzea. |
| 468 | Zurezko altzarien industria. |
| 474.1 | Testuak edo irudiak inprimatzea. |
| 501.3 | Igeltserotza era eraikuntzako orotariko lan txikiak. |
| 504.1 | Instalazio eta muntaketak (iturgintza, hotz, bero eta aire-girotzekoak izan ezik). |
| 504.2 eta 3 | Iturgintzako, hotz, bero eta aire-girotzeko instalazioak. |
| 504.4, 5, 6, 7 eta 8 | Tximistorratzak eta antzekoak instalatzea. Mota guztietako sukaldeak muntatu eta instalatzea, euren osagarri guztiekin. Mota guztietako jasogailuak muntatu eta instalatzea. Mota guztietako eraikin eta eraikuntzetan telefonoa, telegrafoa, haririk gabeko telegrafoa eta telebista instalatzea. Metalezko muntaketak eta industria instalazio osoak; baina makineria eta instalatu edo muntatu behar diren osagaiak saldu eta ekarri gabe. |
| 505.1, 2, 3 eta 4 | Estaldurak, zolak eta zoladurak ematea, eta isolamenduak instalatzea. |
| 505.5 | Arozgintza eta sarrailagintza. |
| 505.6 | Edozein motatako pintura, eta paper, ehun edota plastikozko estaldurak, eta eraikin eta lokalen akabera eta dekorazioa. |
| 505.7 | Igeltsu eta eskaiolazko lanak, eta eraikin eta lokalen dekorazioa. |
| 722 | Salgaiak errepidez garraiatzea. |
| 757 | Etxe-aldaketen zerbitzua. |

3.a. Ez da idatz-zati honetan aurreikusten den atxikipena egin beharko baldin eta jarduera ekonomikoa egiten duen zergadunak, Zergari buruzko Foru Arauko 107. artikuluko 5. idatz-zatian xedatutakoarekin bat, ordaintzaileari jakinarazten badio zuzeneko zenbatespenaren metodoa -edozein modalitatetan- erabiltzen duela jardueraren etekin garbia zehazteko. Jakinarazpenean honako datu hauek eman behar dira:

a) Jakinarazlearen izen-abizenak, zerga-egoitza eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Jarduera ekonomikoa errenta-eratxikipenaren araubidean dagoen erakunde baten bitartez egiten bada, aurreko datuez gainera ondoko hauek ere jakinarazi behar dira: erakunde horren izena edo izen soziala eta identifikazio fiskaleko zenbakia, bai eta hura ordezkaria dela ere.

b) Aurreko 2. zenbakiko jardueretatik zein egiten duen; Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako epigrafea adierazi behar da.

c) Jarduera horren etekin garbia kalkulatzeko zuzeneko zenbatespenaren metodoa (edozein modalitate) erabiltzen duela.

d) Data eta jakinarazlearen sinadura.

e) Jakinarazpenaren hartzailea den pertsona edo erakundearen identifikazioa.

Zergadunak, geroago, berriz ere zenbatespen objektiboaren metodoa erabiliko badu jardueraren etekinak zehazteko, horren berri eman behar dio ordaintzaileari, aurreko a), b), d) eta e) idatz-zatietan zehazten diren datuekin batera, atxikipena egiteko betebeharra sortu aurretik betiere.

Ordaintzaileak datuen jakinarazpenak gorde behar ditu beti, behar bezala sinatuta.

4.a. Aurreko 2. zenbakian zehazten diren datuak zuzen ez jakinarazteak Zergari buruzko Foru Arauko 118. artikuluan xedatzen denaren araberako zerga-ondorioak izango ditu.

5.a. Zergadunak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiko 33. artikuluko 2. idatz-zatian xedatzen den moduan egiten badio uko zenbatespen objektiboaren metodoari, ulertuko da zergadunak zuzeneko zenbatespenaren metodoaz zehaztuko duela bere jardueraren etekin garbia Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazioa aurkezten duen egunetik aurrera.

## 4. ATALA
## ONDARE-IRABAZIAK

### 95. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeen akzioen eta partaidetzen eskualdaketa edo itzulketetatik zein harpidetza-eskubideen eskualdaketetatik datozen ondare-irabazien gaineko atxikipenen zenbatekoa.

1. Inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak eta partaidetzak eskualdatuz edo itzuliz lortutako ondare-irabazien gaineko atxikipenaren zenbatekoa kalkulatzeko, 100eko 19ko tasa aplikatu behar zaio atxikipen-oinarriari.

2. Harpidetza-eskubideak eskualdatuz lortutako ondare-irabazien gaineko atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa irabaziaren 100eko 19 izango da. Edo, betebehar hori entitate gordailuzaina bada, entitate horrek zergadunari emateko jasotzen duen zenbatekoaren 100eko 19.

### 96. artikulua. Talde-inbertsioko erakundeen akzioen eta partaidetzen eskualdaketetatik edo itzulketetatik datozen ondare-irabazien gaineko atxikipenen oinarria.

1. Talde-inbertsioko erakundeen akzioen eta partaidetzen eskualdaketetatik edo itzulketetatik datozen ondare-irabazien gaineko atxikipenen oinarria zerga-oinarrian sartu beharreko zenbatekoa izango da, Zergari buruzko araudiari jarraituz kalkulatua.

2. Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak arautzen dituen inbertsio-funtsetako partaidetzen itzulketetan, ostera, partaidetzak itzultzen dituztenak, horiek eduki dituzten bitartean, aldi berean beste erakunderen batean erregistratutako partaidetza homogeneoen titularrak ere izan badira, edo bestela, itzultzen diren partaidetzak beste partaidetza edo akzio batzuen itzulketa edo eskualdaketa batetik, batzuetatik edo hurrenez hurreneko batzuetatik badatoz, eragiketa horiei Pertsona Fisikoen gaineko Errentari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauko 48. artikuluko 1. idatz-zatian aurreikusitako geroratze araubidea aplikatu bazaie eta itzulketa edo eskualdaketa horietarikoren batean aldiberekotasunaren inguruabar bera gertatu bada itzulitako edo eskualdatutako partaidetza edo akzioetan, orduan hauxe izango da atxikipen-oinarria: itzulketa egiten zaion erakundeko partaideen erregistroan ageri diren partaidetzen eskualdaketa-balioaren eta eskuraketa-balioaren arteko diferentzia. Erregistro horretan dauden partaidetzetatik, lehenengo eskuratu zirenak jo behar dira itzulitzat.

   Erregistro horretan geroratze araubidearen aplikaziotik datozen partaidetzak badaude, eskualdatze-eragiketan jakinarazi diren eskuraketa-data eta balio fiskalak hartuko dira kontuan.

Aurreko lerroaldean azaldutako inguruabarrak gertatzen direnean, partaideak horren berri jakinarazi beharko dio, idatziz edo jaso izana egiaztatu ahal izateko moduko beste edozein bidetatik, itzulketaren hartzaile den erakundeari, atxikipena edo konturako sarrera egin behar duen horri, baita itzulketak atxikipen-oinarririk sortzen ez duenean ere, eta, hala denean, erakunde horrek jakinarazpena gorde beharko du, Zerga Administrazioaren eskura, itzulitakoen homogeneoak diren partaidetzak zergadunaren izenean erregistratuta dauzkan bitartean, eta, gutxienez ere, preskripzio epea amaitu arte.

Idatz-zati honetan xedatutakoa aplikatuko da, era berean, egoitza atzerrian duten inbertsio kolektiboko erakundeenak izanik Espainiako lurraldean merkaturatzen, kokatzen edo banatzen diren partaidetza edo akzioen itzulketan edo eskualdaketan, baita 35/2003 Legean araututako inbertsio sozietateen akzioen eskualdaketan ere.

### 97. artikulua. Atxikipenak egin beharra sortzea.

Atxikitzeko betebeharra sortuko da edo inbertsio kolektiboko erakundeen akzioen edo partaidetzen eskualdaketa edo itzulketa formalizatzen den unean edo harpidetza- eskubideen eskualdaketa formalizatzen den unean, kobratzeko itundutako baldintzak edozein direla ere.

Harpidetza-eskubideen eskualdaketari dagokionez, betebehar hori erakunde gordailuzainarena bada, hark eskualdaketaren zenbatekoa zergadunari emateko jasotzen duen egunean egingo da atxikipena.

### 98. artikulua. Sarien gaineko atxikipenen zenbatekoa.

Eskudirutan ordaintzen diren sarietan egingo den atxikipena horien zenbatekoaren 100eko 19 izango da, Zergari buruzko Foru Arauaren hamazortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa salbu.

## 5. ATALA
## BESTE ERRENTA BATZUK

### 99. artikulua. Higiezinen errentamenduen eta azpierrentamenduen gaineko atxikipenen zenbatekoa.

Hiri-ondasun higiezinen errentamenduek eta azpierrentamenduek sortzen dituzten etekinen gaineko atxikipenaren zenbatekoa kalkulatzeko, higiezin horien kalifikazioa edozein dela ere, errentatzaileari ordaintzen zaizkion kontzeptu guztiei 100eko 19ko tasa aplikatu behar zaie, Balio Erantsiaren gaineko Zerga bazter utzita.

### 100. artikulua. Beste errenta batzuen gaineko atxikipenen zenbatekoa.

1. Araudi honetako 81. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letran aipatzen den irudi-eskubidearen ustiapenerako eskubidea lagatzetik datozen etekinen gainean egin beharreko atxikipena, haren kalifikazioa gorabehera, ordaindu diren sarrera osoei 100eko 24ko tasa aplikatzearen emaitza izango da.

2. Araudi honetako 81. artikuluaren 2. apartatuko b) letran aipatzen diren gainerako kontzeptuen etekinen gainean egiten den atxikipena, etekinon kalifikazioa dena dela —jabetza intelektualetik eratorritakoak izan ezik—, ordaindu diren sarrera osoei %19ko atxikipen-tasa aplikatzearen emaitza izango da.

3. Jabetza intelektualetik eratorritako etekinen gainean egin beharreko atxikipena ordaindu diren sarrera osoei ehuneko 15eko tasa aplikatzearen emaitza izango da, araudi honen 94.1 artikuluan ehuneko 7ko tasa aplikatzeko ezartzen diren kasuetan izan ezik.

   Oro bat, atxikipen tasa hori ehuneko 7 izango da zenbait urtetan zehar sortuko diren egile-eskubideen ustiapen-lagapenetik eratorritako konturako aurrerakinen kasuan.

## III. KAPITULUA
## KONTURAKO SARRERAK

### 101. artikulua. Lanaren gauzazko ordainsarien gaineko konturako sarrerak.

1. Gauzaz ordaindutako ordainsarien zioz egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, haien balioari (Zergari buruzko Foru Arauko 60. artikuluko erregelen bidez zehaztutakoari) araudi honetako aurreko kapituluan ezarritakoaren arabera dagokion ehunekoa aplikatuko zaio.

2. Ez da egin beharko konturako diru-sarrerarik borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetako bazkide babesleek, pentsio-planen sustatzaileek eta enpresen gizarte-aurreikuspeneko planetako hartzaileek ordaintzen dituzten kontribuzioengatik, ez enplegatzaileek gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei ordaintzen dizkieten kopuruengatik, zerga-oinarri orokorra txikitzen dutenengatik, honako muga honekin: Zergaren Foru Arauaren 71. artikuluaren 1. zenbakian xedatzen dena ordainsarien zenbatekoari aplikatzearen emaitzako kopurua.

   Halaber, ez dira zenbatuko atxikipen-ehunekoa kalkulatzeko kontuan eduki beharreko oinarrian Gizarte Segurantzako kotizazio hauek: arautegiko xedapenak betetzeko, kooperatibek bazkide langileen gizarte-estaldurarako eta laguntza-estaldurarako ordaintzen dituztenak; Gizarte Segurantzari laguntzen dioten mutuek aldi baterako ezintasunean dauden langile autonomoen alde ordaintzen dituztenak.

### 102. artikulua. Kapital higigarriaren gauzazko ordainsarien gaineko konturako sarrerak.

Gauzazko ordainsariengatik egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, gauzazko ordainsariak ordaintzailearentzat izan duen eskuraketa balioari edo kostuari 100eko 20ko gehikuntza aplikatuko zaio, eta horrela lortutako emaitzari, berriz, araudi honetako aurreko kapituluko bigarren atalean ezarritako ehunekoa aplikatuko zaio.

### 103. artikulua. Jarduera ekonomikoen gauzazko ordainsarien gaineko konturako sarrerak.

Gauzazko ordainsariengatik egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, araudi honetako II. kapituluko hirugarren atalean ezartzen denaren araberako ehunekoa aplikatu behar zaio gauzazko ordainsarien merkatuko balioari.

### 104. artikulua. Sarien gaineko konturako sarrerak.

Gauzaz ordaindutako sariengatik egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, sariok ondare-irabazia eragiten badute, araudi honetako 98. artikuluan ezarritako ehunekoa aplikatuko zaio gauzazko sari horrek ordaintzailearentzat izan duen eskuraketa balioa edo kostua 100eko 20 gehitzetik ateratzen den emaitzari.

### 105. artikulua. Beste errenta batzuen gaineko konturako sarrera.

Araudi honetako 99. eta 100. artikuluetan aipatutako gauzazko errenten gaineko konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko errenta horien merkatuko balioari artikulu horietan ezarritako ehunekoa aplikatu behar zaio.

## IV. KAPITULUA
## ATXIKITZAILEAREN, KONTURAKO SARRERA EGIN BEHAR DUENAREN ETA ATXIKIPENA JASATEN DUENAREN BETEBEHARRAK

### 106. artikulua. Atxikitzailearen eta konturako sarrera egin behar duenaren betebehar formalak.

1. Atxikipenak eta konturako sarrerak egin behar dituen subjektuak apirilaren, uztailaren, urriaren eta urtarrilaren lehenengo hogeita bost egun naturaletan aurkeztu beharko du

aurre-aurreko hiruhileko naturalarengatik beharrezko diren atxikipenen eta konturako sarreren aitorpena, eta haien zenbatekoa Bizkaiko Foru Aldundian sartu beharko du.

Hala ere, aurreko paragrafoan aipatzen diren aitorpena eta sarrera —aurre-aurreko hilean atxikitako eta kontura sartutako zenbatekoei dagozkienak, alegia— hil bakoitzeko lehenengo hogeita bost egun naturaletan egin behar dira, baldin eta konturako sarrera egin behar duenak edo atxikitzaileak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 71. artikuluko 3. zenbakiko 1. eta 2. zpizenbakietan aipatutako inguruabarrak betetzen badituzte.

Uztailari dagozkion aitorpena eta sarrera, salbuespen gisa, abuztuan eta irailaren lehenengo hogeita bost egun naturaletan zehar egingo dira.

Atxikitzaileak edo konturako sarrera egin behar duenak aitorpen negatiboa aurkeztuko du, baldin eta, atxikipenaren edo konturako sarreraren pean dauden errentak ordaindu dituen arren, inolako atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ez badu, errenta horien zenbatekoa dela-eta. Ez da aitorpen negatiborik aurkeztu beharko, aitorpenaren epealdian ez bada ordaindu atxikipenpeko edo konturako sarrerapeko errentarik.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa berdin aplikatuko zaie atxikipena edo konturako sarrera egin behar duten administrazio publikoei (Gizarte Segurantza barne), araudi honetako 81. artikuluko 1. idatz-zatiko a) eta c) paragrafoetan eta 2. idatz-zatiko c) paragrafoan aipatzen diren errentei lotutako atxikipenei eta konturako sarrerei dagokienez, baldin eta ekitaldia hasi baino lehen administrazio horiek onetsi duten azken urteko aurrekontua 6 milioi eurotik gorakoa bada. Hala ere, etekina Bizkaiko Foru Aldundiak ordaintzen badu, haren atxikipena eta sarrera zuzenean egingo dira.

2. Atxikitzaileak edo konturako sarrera egin behar duenak, urtarrilaren 1etik 31ra bitartean, aurre-aurreko urtean egindako atxikipen eta konturako sarreren urteko laburpena aurkeztu behar du.

   Halaber, laburpena telematikoki edo ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian aurkezten bada, epealdi berean aurkeztu behar da.

   ...

   Laburpen horietan, atxikitzailearen edo konturako sarrera egin behar duenaren identifikazio datuez gainera, hartzaileen zerrenda jar dadila eskatu ahal izango da, honako datu hauek izango dituena:

   a) Izen-abizenak.

   b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.

   c) Bazkide, partaide edo onuradunaren zerga-egoitza, erakundea bada, edo ohiko bizilekua, pertsona fisikoa bada.

   d) Lortutako errenta, eta azaldu behar da zein den kontzeptuen identifikazioa, deskripzioa eta izaera, bai eta errenta horiek zein ekitalditan sortu ziren ere. Errenta horien barruan sartuta egongo dira, halaber, zenbatekoa dela-eta atxikipenaren edo konturako sarreraren pean ez dauden errentak, kargapetik salbuetsitako dietak eta salbuetsitako errentak.

   e) Zergari buruzko Foru Arauko 19. artikuluan, 20. artikuluan edo 39. artikuluko 3. idatz-zatian ezarrita dagoenaren arabera aplikatutako integrazio-ehunekoak.

   f) Ordaintzaileak atxikipen-ehunekoa aplikatzerakoan kontuan hartu dituen inguruabar pertsonalak eta familiakoak.

   g) Egindako atxikipena edo egindako konturako sarrera.

h) Ordaintzaileari itzulitako kopuruak, aurreko ekitaldietan sortutako errentetatik datozenak.

i) Gizarte Segurantzari edo funtzionarioen derrigorrezko mutualitate orokorrei egindako kotizazioei dagozkien gastu kengarriak eta eskubide pasiboen murrizketak eta umezurtzen ikastetxe edo antzeko erakundeei egindako kotizazioak, bai eta zergadunek erakunde edo instituzioei ordaindutako zenbatekoak ere, erakunde edo instituzio horiek, indarrean dagoen araudiarekin bat, Gizarte Segurantzari dagozkion zenbait kontingentziaren prestazioak euren gain hartu badituzte, eta betiere etekinen ordaintzaileak horiek kendu baditu.

Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, orobat, egoitza Espainian duten edo Espainian ordezkatuta dauden erakundeek, besteren kontura atxikipenpeko errentak ordaintzen badituzte edo baloreen errenten kobrantza kudeatzen badute edo haien gordailuzainak badira.

3. Atxikitzaileak edo konturako sarrera egin behar duenak ziurtagiria emango dio zergadunari. Bertan agertuko dira egindako atxikipenak edo konturako sarrerak, bai eta aurreko idatz-zatian aipatutako urteko laburpenean zergadunari buruz jarri beharreko gainerako datuak ere.

Ziurtagiri hori zergadunaren esku jarri behar da zerga honen autolikidazioa aurkezteko epea hasi baino lehen.

Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, orobat, egoitza Espainian duten edo Espainian ordezkatuta dauden erakundeek, besteren kontura atxikipenpeko errentarik ordaintzen badute edo baloreen errenten kobrantza kudeatzen badute edo haien gordailuzainak badira.

4. Ordaintzaileek, errentak ordaintzen dituzten unean, egindako atxikipena edo konturako sarrera jakinarazi behar diete zergadunei, eta aplikatu dieten ehunekoa adierazi.

5. Artikulu honetan aipatutako aitorpenak eta ziurtagiriak Ogasun eta Finantzen foru diputatuak errenta mota bakoitzerako ezartzen dituen ereduetan, eran eta lekuan egingo dira; era berean, foru diputatu horrek aitorpenetan sartu beharreko datuak zehaztu ahalko ditu. Atxikitzaileak edo konturako sarrera egin behar duenak dagozkion aitorpenetako datu guztiak jarri beharko ditu.

6. Aitorpena eta konturako sarrera Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezartzen duen bezala egingo dira, eta berak ezartzen dituen lekuan eta epean.

Ogasun eta Finantzen foru diputatuak, halaber, artikulu honetan aipatutako aitorpenak eta ziurtagiriak bide telematikoetatik zeintzuk kasu eta baldintzatan, nola, non eta noiz aurkeztu ezar dezake.

**107. artikulua. Lanaren errenten hartzaileak bere datuak jakinaraztea ordaintzaileari.**

1. Zergadunak inguruabar hauek jakinarazi beharko dizkio ordaintzaileari:

a) Zergari buruzko Foru Arauaren 79. artikuluan ezarritako kenkarirako eskubidea sortzen dioten ondorengoak zenbat diren, baita, hala denean, epailearen ebazpenaren ondorioz ezkontideari konpentsazio-pentsioa ordaintzeko betebeharra dutela ere, araudi honen 88. artikuluko 1. paragrafoan dagoen taula aplika dakion.

b) Langile aktibo desgaituen kasuan, Zergari buruzko Foru Arauaren 23. artikuluko 3. zenbakian aipatutako egoera jakinarazi beharko dute, eta egoera hori organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez frogatu beharko dute.

c) Zergari buruzko Foru Arauaren IV. tituluaren VI bis kapituluan arautzen den lekualdatutako langileentzat jasotako araubide berezia aplikatzeko aukera.

d) Zergari buruzko Foru Arauko 92.2 artikuluan ezarritako nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria aplikatzeko aukera.

2. Aurreko paragrafoan adierazi diren datuak ordaintzaileari jakinarazten ez bazaizkio, ordaintzaileak behar den atxikipen-ehunekoa aplikatuko du datuok gogoan hartu gabe; nolanahi ere, datuak jakinarazten ez badira edo datuak zuzen ematen ez badira zehapenak ezar litezke.

3. Aurreko 1. idatz-zatian aipatutako datuak urte naturaleko lehenengo eguna baino lehen jakinarazi behar dira, edo harremanak hasten diren unean.

   Ez da beharrezkoa izango datuak ekitaldian-ekitaldian jakinaraztea ordaintzaileari, baldin eta datuok aldatu ez badira zergadunak azken jakinarazpena egin zionetik.

4. Zergadunek ordaintzaileei noiznahi eskatu ahal izango diete araudi honetan ezarritakoaren araberako atxikipen-ehunekoak baino handiagoak aplika ditzatela, arau hauei jarraituz:

   a) Eskaera idatziz egingo zaie ordaintzaileei, eta ordaintzaileok aintzat hartu behar dituzte nominak gertatu baino behar beste denbora lehenago egiten zaizkien eskaerak.

   b) Eskatzen den atxikipen-ehuneko berria ezin izango da aldatu eskaera egiten denetik urtea amaitu arte, salbu eta araudi honetako 88. artikuluko 3. erregelan aipatutako kasuetan. Eta zergadunari hurrengo ekitaldietan ere tasa berri hori aplikatuko zaio, harik eta ehuneko horri idatziz uko egin edo atxikipen-ehuneko handiagoa eskatu arte. Betiere, inguruabarren aldaketaren baten ondorioz atxikipen-ehunekoen taulen arabera ehuneko handiagoa ezarri beharra badago, hala egingo da.

5. Pentsiodunek atxikipen-ehunekoen taula orokorra aukeratu ahal dute, eta horretarako eskaera idatziz aurkeztu behar diote ordaintzaileari edo erakunde kudeatzaileari. Eskaera urte bakoitzeko abenduan aurkeztu behar dute, edo bestela pentsiodun zein hartzeko pasiboaren titular izatera igarotzen diren hilaren aurre-aurreko hilean.

6. Ordaintzaileak gorde egin behar ditu zergadunak emandako egiaztagiriak edo jakinarazpenak, eta Zerga Administrazioaren esku jarri behar ditu honek eskatuz gero.

**108. artikulua. Egoitza aldatzen denean lanaren etekinen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak zehazteko prozedura berezia.**

1. Besteren konturako langile batek, zerga honen kargapeko ez denak, egoitza Espainiako lurraldera aldatuko badu eta ondorioz Zergaren kargapean geratuko bada, horren berri eman ahal izango dio Zerga Administrazioari Ogasun eta Finantzen foru diputatuak onesten duen jakinarazpen ereduaren bidez; hain zuzen ere, foru diputatu horrek adieraziko du eredua nola, non eta noiz aurkeztu behar den, bai eta zein agiri aurkeztu behar diren ere.

   Jakinarazpen horretan langilearen identifikazioa eta lanaren etekinen ordaintzailearena agertu behar dira, adierazi behar da langilea noiz sartu den Espainiako lurraldean eta ordaintzaile horrentzat noiz hasi den lanean, eta zehaztu behar da lan-harreman horretan ba ote dagoen datu objektiborik pentsarazten duenik harreman horren ondorioz langilearen egoitza-aldaketa gertatzen den urte naturalean, edo hurrengoan bestela, langilea Espainiako lurraldean ehun eta laurogeita hiru egun baino gehiago egongo dela, Espainiako lurraldean lanean hasten denetik zenbatuta.

2. Zerga Administrazioak, jakinarazpena eta berarekin aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, zerga honen ziozko atxikipenak zein egunetan hasiko zaizkion egiten adierazten duen frogagiria bidaliko dio langileari, bidezkoa bada, eta bidali ere jakinarazpena aurkeztu eta hamar egun baliodun igaro baino lehen bidaliko dio.

3. Zerga Administraziotik jasotako agiriaren ale bat emango dio langileak lanaren etekinen ordaintzaileari, atxikipenak aplikatzean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ziozko zergaduntzat har dezan bertan adierazitako egunetik aurrera.

4. Agiri hori jasotakoan, eta bertan adierazitako egunetik aurrera, atxikitzaileak zerga honi buruzko arautegian ezarritakoaren arabera aplikatuko ditu atxikipenak.

5. Interesdunak egoitza aldatzen duen urtean zerga honen ziozko zergadun bihurtzen ez bada, zerga honen kontura aplikatutako atxikipenak kendu ahal izango ditu Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioan.

   Halaber, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 12/2013 Foru Arauko 32. artikuluan ezarritakoa aplikatu behar bada eta langilea egoitza atzerrira aldatzen duen urtean Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren ziozko zergadun bihurtzen ez bada, zerga horren zioz aplikatzen diren atxikipenak eta konturako sarrerak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketatzat hartuko dira.

## V. KAPITULUA
## ZATIKAKO ORDAINKETAK

### 109. artikulua. Zatikako ordainketa egin behar dutenak.

1. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek hurrengo artikuluetan ezarritakoa aplikatuta ateratzen den diru kopurua autolikidatu behar dute eta Foru Ogasunari ordaindu, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketa gisa.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako jarduerak egiten dituzten zergadunek ez dute jarduera horiek direla-eta zatikako ordainketarik egin beharrik izango, baldin eta zatikako ordainketak dagozkion urtearen azkenaurreko urtean konturako sarrera edo atxikipena aplikatu bazaie ustiapenak sortutako sarreren 100eko 70i, gutxienez, diru-laguntza arruntak edo kapitalekoak eta kalte-ordainak kontuan hartu gabe.

3. Aurreko 1. idatz-zatian ezarritakoa eragotzi gabe, lanbide-jarduerak egiten dituzten zergadunek ez dute haien zioz zatikako ordainketarik egin beharrik izango, baldin eta zatikako ordainketak dagozkion urtearen azkenaurreko urtean jarduerak sortutako sarreren 100eko 70i, gutxienez, atxikipena edo konturako sarrera aplikatu bazaie.

4. Aurreko 2. eta 3. idatz-zatietan ezarri denaren ondorioetarako, zatikako ordainketari dagokion epealdian atxikipena edo konturako sarrera aplikatu zaien sarreren ehunekoa hartuko da kontuan jarduera hasten den ekitaldian eta hurrengoan.

### 110. artikulua. Zatikako ordainketaren zenbatekoa, oro har.

1. Aurreko artikuluan aipatutako zergadunek honako diru kopuru hauek ordaindu behar dituzte araudi honetako 111. artikuluan ezarritako epeetan:

   a) Oro har, zatikako ordainketak dagozkion urtearen azkenaurreko urtean jarduera ekonomikoaren bidez lortutako etekin garbien 100eko 5, edozein dela ere etekin garbia zehazteko erabiltzen den metodoa.

      Zatikako ordainketak dagozkion urtearen azkenaurreko ekitaldian jardueren etekin garbia positiboa izan ez bada, zatikako ordainketaren zenbatekoa urte horretako salmenten edo sarreren 100eko 0,5 izango da, handizkako merkatarien kasuan izan ezik, horiek 100eko 0,25eko ehunekoa aplikatuko baitute.

      Azkenaurreko urtea jarduera hasi den urtea bada, urte horretako etekin garbiaren zenbatekoa urtekoratu egingo da.

      Jarduera hasten den ekitaldian eta hurrengoan, ostera, honako diru kopuru hau sartu behar dute zergadunek, zatikako ordainketa legez: hiruhileko natural bakoitzean sortutako sarrera konputagarrien eta gastu kengarrien arteko kenduraren 100eko 20.

b) Zehazki, nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantzako jarduerak direnean, haien etekin garbia zehazteko metodoa dena dela, hiruhilekoan izandako salmenten edo sarreren 100eko 2, kapitaleko diru-laguntzak eta kalte-ordainak kanpo utzita.

2. Kalkuluan azkenaurreko ekitaldiko etekin garbiak kontuan hartu badira, aurreko idatz-zatian ezarritakoa aplikatuz kalkulatutako zenbatekoari kendu egingo zaizkio, hala badagokio, ekitaldi horretan egin diren atxikipen eta konturako sarrera guztien 100eko 25.

   Hiruhilekoan izandako sarrerak eta gastuak kontuan hartu badira, aurreko idatz-zatian xedatzen dena aplikatuz kalkulatutako zenbatekoari kendu egingo zaizkio, hala badagokio, hiruhileko horretan egindako atxikipenak eta konturako sarrerak.

3. Zergadunek adierazitakoak baino ehuneko altuagoak aplikatu ahal izango dituzte zatikako ordainketetan (banaka).

4. Aparteko inguruabarrak direla-eta zergadunak iriztzen badio artikulu honetan xedatutakoaren arabera kalkulatu dituen zatikako ordainketak ez datozela bat ordainketa horiei dagokien zergaldiko etekinekin edo sarrerekin, zatikako ordainketok berrikusteko eskatu ahal izango dio Zuzeneko Zergen Zerbitzuari. Zerbitzu horrek, inguruabarrak egiaztatu ondoren, eta egoki iriizten badio, zatikako ordainketa kalkulatzeko aplikatu beharreko oinarria zehaztuko du.

**111. artikulua. Aitorpena eta sarrera.**

1. Zergadunek aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztutako diru kopuruak aitortu eta Foru Ogasunean sartu behar izango dituzte hiru hilerik behin, zehazki apirilaren, uztailaren, urriaren eta urtarrilaren 1etik 25era bitartean.

   Aurreko artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz diru kopururik sartu beharrik ez badago, zergadunek aitorpen negatiboa aurkeztu beharko dute.

2. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak artikulu honetan aipatzen diren epeak luzatu ahal izango ditu, bai eta sarrerak sei hilean behin egiteko kasuak ezarri ere. Horretarako, alabaina, beharrezkoa izango da aurreko artikuluan adierazitako ehunekoen araberako egokitzapenak egitea.

   Ogasun eta Finantzen foru diputatuak, orobat, zatikako ordainketak ofizioz likidatu daitezela erabaki dezake.

3. Aitorpena Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezartzen dituen baldintza eta betekizunen arabera egin behar da, eta sarrera ere berak erabakitzen duen eran eta lekuan egingo da.

**112. artikulua. Errenta-eratxikipenaren araubidean dauden erakundeak.**

Errenta-eratxikipenaren araubidean dauden erakundeek jarduera ekonomikoen bidez lortutako etekinei dagokien zatikako ordainketa bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide bakoitzak egin behar du erakundean duen partaidetzaren proportzioan, baldin eta, araudi honetako 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideok etekin horiek jarduera ekonomikoen etekin gisa eratxikitzen badizkiote euren buruari.

# VIII. TITULUA
# BETEBEHAR FORMALAK ETA KONTABILITATE ETA ERREGISTROKO BETEBEHARRAK

## I. KAPITULUA
## ZERGADUNEN BETEBEHAR FORMALAK

### 113. artikulua. Betebehar formalak, oro har.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ziozko zergadunek betebeharra dute, preskripzioaren epean edo iraungipenaren epean zehar edo, bestela, horiek biak baino handiagoa denean soilik, beren-beregi adierazitako epean zehar, eragiketa, errenta, gastu, sarrera, txikipen eta kenkarien frogagiri eta egiaztagiriak gordetzeko, baldin eta horiek guztiek agertu behar badute zergadunen autolikidazioetan. Horrez gain, zergadunek agiriok aurkeztu behar dituzte zergaren autolikidazioekin batera, horrela ezartzen denean, eta Zerga Administrazioari erakutsi beharko dizkiote, horretarako errekerimendua jasotzen dutenean.

### 113 bis artikulua. Ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema.

1. Zergaren foru-arauko 113 bis artikuluaren 1. apartatuan aipatzen den sistema informatikoak bete behar dituen ezaugarri eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren foru-agindu bidez ezarriko dira.

2. Zergadunek, Zergari buruzko Foru Arauaren 113 bis artikuluaren 1. atalean ezarritako betebeharrak betetzeko, software bermatzailearen erregistroan inskribatuta dagoen software bat erabili beharko dute. Erregistro hori Bizkaiko Lurralde Historikoaren zerga-betebehar formalak araupetu dituen Araudiaren 10. artikuluan aipatzen da (abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendu hori). Software hori erregistro horretan inskribatutako pertsona edo entitate batek garatutakoa izan behar du, eta pertsona edo entitate horrek erantzukizunpeko adierazpen bat sinatu behar du.

   Apartatu honetan aipatutako softwarea zergadunak berak garatzen duenean, zergaduna inskribatu beharko da erregistro horretan eta hark sinatu beharko du erantzukizunpeko adierazpena.

   Erregistroan alta emateko, aldaketak egiteko edo baja emateko, erregelamendu horretan ezarritakoa bete beharko da.

3. Zergadunak salbuetsita geratuko dira Zergari buruzko Foru Arauaren 113 bis artikuluaren 1. apartatuan ezarritako betebeharrak betetzetik, honako hauei dagokienez: jarduera ekonomiko nagusiaren lagungarriak edo osagarriak diren ondasun-emateak eta/edo zerbitzu-prestazioak, baldin eta laguntzarik gabe funtzionatzen duten makina edo gailu automatikoen bidez egiten badira, eta, betiere, aurreko ekitaldiko diru-sarreren bolumenak ez badu gainditzen zergadunaren ekitaldi horretako jarduera ekonomiko ngusiaren sarreren bolumenaren 100eko 15, zeina ekitaldi horretan eragiketa-bolumenik handiena duena izango baita. Aurreko ekitaldia urtebetetik beherakoa bada, laguntzarik gabe funtzionatzen duten makina edo gailu automatikoen bidez egiten diren ondasunemateen eta/edo zerbitzu-prestazioen eta jarduera ekonomiko nagusiaren eragiketa-bolumena kalkulatzeko, ekitaldian egindako eragiketetatik abiatuta urte osoari zer bolumen legokiokeen kalkulatuko da. Jarduera ekitaldi horretan hasi denean, betekizun hori bete dela ulertuko da.

4. Zergaren foru-arauko 113 bis artikuluko 2. apartatuko a) letran ezarritakoarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiak aplikazio informatiko bat jarriko du zergadunen esku, artikulu horretako 1. apartatuan ezarritako betebeharrak betetzen laguntzeko.

   Aplikazio horren erabilera Ogasun eta Finantza Sailaren webgunean argitaratzen diren eragiketetara eta baldintzetara mugatu ahal izango da, zergadunei aplika dakizkiekeen zerga-araubidearen edo inguruabar partikularren arabera.

5. Zergari buruzko Foru Arauaren 113 bis artikuluko 4. eta 5. zenbakietan xedatutakoaren arabera, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak baimena eman ahal izango du artikulu horretako 1. apartatuan aipatzen diren betebehar guztiak edo batzuk betetzetik salbuesteko, 4. apartatuko a) eta b) letretan eta 5. apartatuko a) letran aurreikusitakoez bestelako eragiketei dagokienez, baldin eta betebehar horiek betetzea ezinezko egiten duten ohiz kanpoko inguruabar teknikoak ikusten badira. Salbuestea aldi baterakoa izango da, eta eragiketa horiei buruzko betebeharrak bete ahal izateko behar diren egokitzapenak egiteko konpromisoaren baldintzapean egongo da. Salbuestearen ondorioak eten egingo dira hura hartzea eragin zuten ohiz kanpoko inguruabarrak desagertu direla egiaztatzen denean.

6. Zergadunek Zergari buruzko Foru Arauaren 113 bis artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren betebeharrak betetzeagatik sortzen den informazioa igorri beharko diote zerga-administrazioari, eska daitekeen gainerako informazioarekin batera, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetu dituen Araudian (abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsia) ezartzen diren modu eta epeetan.

7. Zergari buruzko Foru Arauaren 113 bis artikuluaren 7. apartatuan aipatzen den egiaztapena egiteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudiko 4. artikuluan aipatzen diren dokumentuei dagokienez egiten denean egiaztapen hori, betiere hartzailearen identifikazioa jasota ez badago, eragiketen hartzailea izango da Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikora behar bezala identifikatuta sartu eta egiaztapena lehenengo egiten duena.

## II. KAPITULUA
## KONTABILITATEKO ETA ERREGISTROKO BETEBEHARRAK

### 114. artikulua. Ekonomia-jarduerak egiten dituzten zergadunen betebeharrak.

1. Ekonomia-jarduerak egiten dituzten zergadunak behartuta egongo dira abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onartutako Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetu dituen Araudiaren 39 bis artikuluan aipatzen den eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua izatera.

   Era berean, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 62. artikuluan aurreikusitako erregistro-liburuak izateko, fakturazio-erregistroak elektronikoki hornituko dira, artikulu horretako 6. paragrafoan zehaztutako baldintzetan, zerga honen ondorioetarako ekonomia-jarduerarik garatzen ez duten eta higiezinen errentamendu-eragiketak egiten dituzten zergadunen kasuan, eta hori betetzat joko da artikulu honetan aipatzen den eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua izanda.

2. Ekonomia-jarduera bat baino gehiago garatzen dituzten zergadunek liburu bakarra izango dute, eta, bertan, jarduera bakoitzaren eragiketak behar bezala identifikatuko dira.

3. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramango da, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetu dituen Araudian xedatutakoaren arabera, eta eragiketa ekonomiko guztiak kapitulu hauetan sailkatuko dira:

   - Sarreren eta emandako fakturen kapitulua.
   - Gastuen eta jasotako fakturen kapitulua.
   - Jarduerari lotutako ondasunen eta inbertsio-ondasunen kapitulua.
   - Batasunaren barruko eragiketa jakin batzuen kapitulua.
   - Horniduren eta ordejarrien kapitulua.

- Tributuen arloan eragina duen bestelako informazioari buruzko kapitulua.

4. Zehazki, sarreren eta emandako fakturen kapituluan, Zergari buruzko Foru Arauaren 113 bis artikuluko 1. apartatuko a) letran aipatutako sinadura elektronikoa duten fitxategi informatikoak erregistratu beharko dira.

**115. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate arruntari heldutako zergadunen betebeharrak.**

Euren jarduera ekonomikoaren etekina kalkulatzeko zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate arrunta aplikatzen duten zergadunek, aurreko artikuluan aipatutako eragiketa ekonomikoen liburuaz gainera, Merkataritza Kodean xedatutakoaren araberako kontabilitatea ere arteztu behar dute, salbu eta merkataritzaz besteko jarduera ekonomikoa egiten dutenean.

**116. artikulua. Beste zergapeko batzuk.**

1. Errenta-eratxikipenaren araubideko erakundeek jarduera ekonomikoren bat egiten badute, jarduerari dagozkion liburuak soilik arteztu behar dituzte; hori gorabehera, bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideei dagozkien etekinak eratxiki behar dizkiete.

2. Artikulu honetako aurreko idatz-zatian ezarritako arau bera aplikatuko zaie testamentu-ahalordea egikaritu zain dauden jarauntsiei, jarduera ekonomikoren bat egiten badute, horrelakoen etekinen eratxikipenari buruz araudi honen 60. artikuluan ezarritako erregelak gorabehera.

## III. KAPITULUA
## INFORMAZIOA EMATEKO BESTE BETEBEHAR FORMAL BATZUK

**117. artikulua.-Informazioa emateko beste betebehar formal batzuk.**

1. …

2. Kreditu-erakundeek datu hauek aurkeztu beharko dituzte hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean:

   a) Etxebizitza-kontuei buruzko informazio-adierazpena, datu hauek jasotzen dituena:

      a') Etxebizitza-kontuaren titularren izen-abizenak eta IFZ.

      b') Zergadun bakoitzak etxebizitza-kontuan duen titulartasun-portzentajea.

      c') Etxebizitza-kontua ireki zen eguna.

      d') Etxebizitza-kontuak ekitaldi bakoitzaren hasierako eta amaierako saldoa.

      e') Berariaz onesten den inprimakian eskatzen diren gainerako datu guztiak.

   b) Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsak eskuratzeko gordailuei buruzko informazio-adierazpena, datu hauek jasotzen dituena:

      a') Gordailuaren titularren izen-abizenak eta IFZ.

      b') Zergadun bakoitzak gordailuan duen titulartasun-portzentajea.

      c') Gordailua ireki zen eguna.

      d') Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko 2013ko abenduaren 3ko 13/2013 Foru Arauaren 90.bis artikuluko 3. zenbakian ezarritako mantentze-epea amaitu aurretik zergadunek hartutako zenbatekoak.

e') Berariaz onesten den inprimakian eskatzen diren gainerako datu guztiak.

Kreditu-erakundeek, b) letran xedatutakoarekin bat eman behar duten informazioaz gainera, zerrenda bat aurkeztu behar dute, non jasoko diren, batetik, berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak, kreditu-erakundeak eskuratu eta kreditu-erakundeak gordailututako kopuruen helburu izan direnak, eta, bestetik, goiko d´) letran adierazitako mantentze-epea amaitu aurretik eskualdatu edo itzuli diren funtsetako partaidetzak. Kasu bietan, funtsei berrikuntza bultzatzeko Europako funtsaren izaera aitortzeko Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenei egin behar zaie erreferentzia.

3. Gizarte Segurantzaren kudeaketa- organoek edo -erakundeek eta mutualitateek hileko eta urteko informazioa eman beharko dute Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezartzen duen epean; honako datu hauek jar daitezen eskatu ahal izango da:

   a) Bazkideen edo kideen izen-deiturak, identifikazio fiskaleko zenbakia eta afiliazio-zenbakia.

   b) Kotizazio araubidea eta alta-epea.

   c) Guztira ordaindutako kotizazioak eta kuotak.

4. Erregistro Zibilean jaiotzez, adopzioez eta heriotzez dauden datuak Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezartzen dituen tokian, moduan, epeetan eta maiztasunarekin eman behar dira; diputatuak honako datu hauek eskatu ahal izango ditu:

   a) Informazioaren xede den pertsonaren izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

   b) Amaren izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eta behar denean aitarenak ere bai, adingabekoen jaiotza, adopzio eta heriotzak badira.

5. Zergari buruzko abenduaren Foru Arauko laugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren aurrezpen sistematikorako banakako planak merkaturatzen dituzten aseguru-erakundeek aitorpen informatiboa aurkeztu behar dute hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean. Aitorpenean, honako datu hauek adierazi behar dituzte:

   a) Hartzaileen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

   b) Hartzaileek ordaindutako primen zenbateko osoa, eta lehenengo prima noiz ordaindu zuten.

   c) Eskubide ekonomikoak, guztiak edo haien zati bat, aurreratuz gero, biziarteko errenta eratu zenean jakinarazitako errenta salbuetsiaren zenbatekoa.

   d) Bizitza-aseguru bat aurrezpen sistematikoko banakako plan bihurtzen bada, Zergari buruzko Foru Arauko hamabigarren xedapen iragankorrean xedatzen denaren arabera, aurreko a) eta b) letretan aipatutako datuak, eta prima gisa urtean ordaindutako gehieneko kopurua dela-eta xedapen iragankor horretan ezartzen den muga betetzeari buruzko adierazpena.

6. Langileen sindikatuek aitorpen informatiboa aurkeztu behar dute hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean. Aitorpenean, honako datu hauek adierazi behar dituzte:

   a) Afiliatuen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

   b) Urtean ordaindutako sindikatu-kuotaren zenbatekoa.

   Afiliatuek eurek baimena eman behar dute aitorpen informatibo horretan sar ditzaten.

Zergari buruzko Foru Arauko 93. artikuluko 3. idatz-zatian ezartzen denaren arabera, idatz-zati honetan aipatzen den aitorpen informatiboan sartuta dauden zergadunek bakarrik aplika dezakete langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatiko kenkaria.

7. Alderdi politikoek aitorpen informatiboa aurkeztu behar dute hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean. Aitorpenean datu hauek adierazi behar dituzte:

   a) Erakunde politikoari afiliazio-kuotak ordaindu edo nahitaezko zein borondatezko ekarpenak egin dizkioten pertsona fisikoen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

   b) Ordaindutako afiliazio-kuotaren edota ekarpenaren zenbatekoa.

   Ekarpen-egileek eurek baimena eman behar dute aitorpen informatibo horretan sar ditzaten.

   Zergari buruzko Foru Arauko 22. artikuluko b) letran eta 93. artikuluan xedatutakoaren arabera, idatz-zati honetan aipatzen den aitorpen informatiboan sartuta dauden zergadunek bakarrik aplika dezakete lanaren etekinetatik ken daitekeen gastua edo kuota osoan aplikatzen den kenkaria.

8. Zergari buruzko Foru Arauko 90. artikuluan aipatzen diren erakundeek 90. artikulu horretako 5. zenbakian ezarritako moduan luzatzen dituzten ziurtagiriei buruzko aitorpen informatiboa aurkeztu beharko dute hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean. Aitorpen horietan euren identifikazio datuak, eraketa data eta funts propioen zenbatekoa jarriko dituzte, eta akzio edo partaidetzen eskuratzaileen gaineko informazio hau erantsiko dute:

   a) Izen-abizenak.

   b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.

   c) Eskuraketaren zenbatekoa.

   d) Eskuraketa-data.

   e) Partaidetzaren ehunekoa.

9. Lurralde administrazio publikoek aitorpen informatiboa aurkeztu beharko dute eurek, euren erakunde autonomoek edo euren mendeko erakundeek emandako laguntza publiko, prestazio, diru-laguntza eta kalte-ordain guztiei buruz, hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean, Zergari buruzko Foru Arauko 116. artikuluko k) letran ezarritakoarekin bat. Ez dira aitorpen horretan sartuko hirugarrenekiko eragiketen urteko aitorpenean sartutakoak eta nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako jardueren ondoriozko diru-laguntza edo kalte-ordainen urteko aitorpenean sartutakoak.

   Aitorpenean aitortzailearen identifikazio datuak jarriko dira, aitorpenean jasotako laguntza, prestazio, diru-laguntza edo kalte-ordainetan zein izaeraz esku hartu duen azalduko da, eta hartzaileen izenen zerrenda jarriko da, kasuan kasuko eredua onesteko foru aginduan eskatutako informazioarekin batera.

10. Epe luzerako aurrezki-planak merkaturatzen dituzten aseguru- entitateek edo kreditu-entitateek informazio-aitorpen bat aurkeztu behar dute hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean. Entitate horiek, beren identifikazio-datuez gainera, ekitaldian epe luzerako aurrezki-planaren titular izan direnei buruzko informazio hau jasoko dute informazio-aitorpen horretan:

    a) Izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

    b) Titularraren epe luzerako aurrezki-planaren identifikazioa.

c) Epe luzerako aurrezki-plana ireki zen data. Planaren baliabideak mobilizatu badira, jatorrizko data hartuko da kontuan, hau da, planerako ekarpenak egiteko erabili zen lehenengo aseguruko lehenengo prima ordaindu zen eguna.

d) Ekitaldian epe luzerako aurrezki-planari egindako ekarpenak, plana mobilizatu aurrekoak barne (halakorik badago).

e) Ekitaldian lortutako kapital higigarriaren etekin positiboak eta negatiboak.

f) Epe luzerako aurrezki-plana azkentzen bada, azkentze-data eta plana ireki zenetik lortutako kapital higigarriaren etekin positibo eta negatibo guztiak jasoko dira.Horrez gainera, konturako ordainketaren oinarria ere agerraraziko da, hala denean.

11. Araudi honetako 49. bis artikuluan aipatzen diren biziarteko errentak merkaturatzen dituzten aseguru-entitateek informazio- aitorpen bat aurkeztuko dute hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean. Entitate horiek, beren identifikazio-datuez gainera, ekitaldian biziarteko errenten titular izan direnei buruzko informazio hau jasoko dute informazio-aitorpen horretan:

a) Izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Biziarteko errentaren identifikazioa, eratze-data eta ordaindutako prima.

c) Eratutako biziarteko errentaren ondoriozko eskubideak osorik edo partez aurreratzen badira, aurreratze-data.

12. Erakundeek ekarpenak itzultzea xede duten kapital-murrizketako eragiketak egiten badituzte edo Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2004ko apirilaren 21ean emandako 2004/39/EE Zuzentarauan -finantza-tresnen merkatuari buruzkoan- definitzen diren balore-merkatu arautuetako batean negoziatzeko onartuta ez dauden eta sozietate edo entitateen funts propioetako partaidetza ordezkatzen duten baloreen jaulkipen-prima banatzen badute, orduan, erakunde horiek informazio-aitorpen bat aurkeztu beharko dute, araudi honetako 82. artikuluko i) letran xedatutakoaren arabera atxikipenak egin behar ez dituzten pertsona fisikoen aldeko eragiketei buruz, non datu hauek jasoko diren:

a) Eragiketa horien ondorioz edozein zenbateko, ondasun edo eskubide jasotzen duten bazkide edo parte-hartzaileen identifikazio osoa, haien identifikazio fiskaleko zenbakia eta entitate aitortzailean duten partaidetza-portzentajea barne.

b) Murrizketak ukitutako ekintzen edo partaidetzen identifikazio osoa edo, jaulkipen-primaren banaketaren kasuan, aitortuak dituen ekintzen edo partaidetzen identifikazio osoa, honako hauek barne: mota, balio izendatua eta (hala denean) identifikazio-kodea.

c) Data eta eragiketan jasotako ondasunak, eskubideak edo zenbatekoa.

d) Kapital-murrizketak ukitutako akzioei edo partaidetzei dagozkien funts propioen zenbatekoa edo aitortuak jaulkipen-primaren banaketaren kasuan dituen akzioen funts propioen zenbatekoa, kapitala murriztu zen edo jaulkipen-prima banatu zen dataren aurretik itxitako ekitaldiari dagokiona eta zenbateko hauetan gutxitua: batetik, eragiketa egin aurretik banatu diren etekinen zenbatekoan —etekinok funts propio horietan sartutako erreserbetatik datoz—, eta, bestetik, funts propio horietan sartutako erreserba legalki baliaezinen zenbatekoan.

Aurreko paragrafoetan aipatzen diren entitateek aurkeztu behar duten aitorpen informatiboa gorabehera, ekarpenak itzultzea xede duten kapital-murrizketako eragiketetan edo jaulkipen-primaren banaketakoetan parte hartzen duten subjektuek Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebehar formalak araupetu dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren 53. artikuluan xedatzen den informazio-aitorpena aurkeztu behar dute, eta, gainera, eragiketa horiek egin dituzten entitateen identifikazio-datuak eta eragiketa horiek egin diren datak sartu behar dituzte informazio-

aitorpen horretan. Informazio-aitorpena hurrengo urteko urtarrilaren 1etik eta 31ra bitartean aurkeztu behar da, eta aurreko urteari dagokion informazioa eman behar du.

13. Honen aurreko idatz-zatietan aipatutako aitorpen informatiboak Ogasun eta Finantzen foru diputatuak adieraziko dituen eran eta tokian egingo dira; diputatu horrek erabaki dezake zein prozedura eta baldintza bete behar diren aitorpenok zuzenean ordenagailuz irakurtzeko euskarrian edo bitarteko telematikoen bidez aurkezteko.

**118. artikulua.-Errenta-eratxikipenaren araubidean dauden erakundeen informazio betebeharrak.**

1. Errenta-eratxikipenaren araubidean dauden erakundeek, haien bitartez jarduera ekonomikoren bat egiten bada edo urteko 3.000 eurotik gorako errentak badituzte, urtero aitorpen informatiboa aurkeztu beharko dute. Aitorpenean erakundearen identifikazio-datuak eta, halakorik egonez gero, ordezkariarenak jarri behar dira, eta horrez gainera honako datu hauek jaso behar dira:

    a) Bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideen (Espainiako lurraldeko egoiliar izan zein ez) identifikazioa, zerga-egoitza eta identifikazio fiskaleko zenbakia; zergaldian erakundearen osaeran izan diren aldaketen berri ere eman behar da.

    Baldin eta erakundeko kideren bat ez bada Espainiako lurraldeko egoiliarra, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 10. artikuluan ezarritakoaren arabera haren zerga-ordezkaritza daukanaren identifikazioa.

    Errenta-eratxikipenaren araubideko erakundea atzerrian eratutakoa bada, honako hauek identifikatu behar dira, artikulu honetan ezartzen den moduan: batetik, zerga honen ziozko zergadun edo Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo diren erakundeko kideak; bestetik, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren ziozko zergadun diren erakundeko kideak, erakundeak lortu dituen eta zerga horren kargapean dauden errentei dagokienez.

    b) Erakundeak lortutako errenten guztizko zenbatekoa eta kide bakoitzari eratxiki dakiokeen errentarena; datu hauek zehaztu behar dira, kasuan kasukoa:

        1.a. Errenta-iturri bakoitzaren sarrera osoak eta gastu kengarriak.

        2.a. Atzerriko errenten zenbatekoa; herrialdea zehaztu behar da eta etekin osoak eta gastuak adierazi.

        3.a. Errenta-eratxikipenaren araubidean dagoen erakundeko kideak Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorra) zergadun badira eta hark inbertsio kolektiboko erakunde baten akzioak edo partaidetzak eskuratzen baditu, inbertsio kolektiboko erakundea identifikatu behar du, akzio edo partaidetzen eskuraketa- edo harpidetza-eguna eta eskuraketa-balioa zehaztu behar ditu, eta kapital propioak laga dituen pertsona edo erakundea (egoiliarra zein ez-egoiliarra) identifikatu behar du.

    c) Kenkarien oinarriak.

    d) Erakundeak jasandako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoa eta kide bakoitzari eratxiki beharrekoena.

    e) Urteko negozio bolumenaren zenbateko garbia, azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kontabilitate Plan Orokorraren araberakoa, edo eragiketa bolumenaren zenbatekoa.

2. Errenta-eratxikipenaren araubidean dauden erakundeek idatziz jakinarazi behar diete euren kideei aurreko idatz-zatiko b), c) eta d) letretan aipatutako informazioa. Jakinarazpen hori

aurreko 1. idatz-zatian aipatzen den aitorpena aurkezteko epea amaitu eta hilabete igaro baino lehen heldu behar zaie erakundeko kideei.

3. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezarriko ditu artikulu honetan aipatutako aitorpen informatiboa aurkezteko eredua, epea, tokia eta modua.

### 119. artikulua. Ondare babestuen titular diren zergadunen informazio betebeharrak.

Desgaitasuna duten pertsonen ondarea babesteko eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta Zerga Araudia helburu bererako aldatzeko azaroaren 18ko 41/2003 Legeak arautzen dituen ondare babestuen titularrak diren zergadunek eta, zergadunok ezgaituak badira, ondare horien administratzaileek aitorpen informatiboa igorri behar dute, urte natural bakoitzean jasotako ekarpenei eta egindako baliatzeei buruzkoa. Aitorpenean, euren identifikazio datuekin batera, honako informazio hau jaso behar dute:

a) Ekarpen-egileen eta egindako baliatzeen onuradunen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakiak.

b) Jasotako ekarpenen zein egindako baliatzeen mota, zenbatekoa eta identifikazioa.

Aitorpen informatiboa urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean aurkeztu behar da, eta aurre-aurreko urtean egindako ekarpenei eta baliatzeei buruzkoa izan behar du.

Aurkezten den lehenengo aitorpen informatiboarekin batera, ondare babestua eratzeko eskritura publikoaren kopia soila aurkeztu behar da, eta agiri horretan agertu behar da ondarea hasieran osatzen zuten ondasun eta eskubideen zerrenda. Gainera, ondare babestua eratu zenetik lehenengo aitorpen hori aurkezten den arte jasotako ekarpenen eta egindako baliatzeen zerrenda zehatza aurkeztu behar da.

Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezarriko du artikulu honetan aipatu den aitorpen informatiboa aurkezteko eredua, era eta tokia. Horrekin batera, ezarriko du eredu hori noiz aurkeztu behar den zuzenean ordenagailuz irakurtzeko euskarrian edo bitarteko telematikoak erabiliz.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

### Lehenengoa. Izatezko bikoteak.

Araudi honek xedatzen duenerako, izatezko bikoteak aipatzean, Izatezko Bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako bikoteak direla ulertuko da.

### Bigarrena. Arrantza sustatzea.

1. Eskuratzaileak gutxienez ere hamar urteko epean lotu behar dio arrantza-ontzia arrantza jarduerari, hori baita abenduaren 23ko 13/1998 Foru Arauko 3. xedapen gehigarriak ezartzen duen epea; bada, betekizun hori betetzeko beharrezkoa izango da eskuratzaileak eskualdaketa formalizatzeko notario-agirian agertzea arrantza-ontzia epe horretan arrantza jarduerari lotuta mantentzeko konpromisoa duela. Horri dagokionez, honako kasu hauetan ontziak jarduerari lotuta jarraituko du:

    a) Arrantza-ontziaren eskubide onartuak zentsu bereko beste batenekin pilatzen direnean.

    b) Arrantza-ontziari baja ematen zaionean, beste bat eraikitzeko edo beste batez ordezteko.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako xedapen gehigarri horretan xedatutakoari dagokionez, arrantza-ontzia eskualdatu dela ulertuko da, halaber, baldin eta arrantza-ontzi baten jabea

den enpresaren akzio edo sozietateko partaidetza guztiak eskualdatzen badira, eta sozietate horren aktiboaren 100eko 90 arrantza-ontziek osatzen badute.

**Hirugarrena. Inbertsio funts kotizatuetako partaidetzak eta kapital aldakorreko inbertsioko indize sozietate kotizatuen akzioak.**

Zergari buruzko Foru Arauko 48. artikuluko 1. idatz-zatian ezarritako geroratze araubidea ezin izango da aplikatu eskualdatu edo itzultzen dena nahiz, hala badagokio, harpidetu edo eskuratzen dena Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Araudiak, uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 79. artikuluan aipatzen dituen inbertsio funts kotizatuen ondarea adierazten duten partaidetzak edo mota bereko sozietateen akzioak badira.

**Laugarrena. Aurrezpen sistematikorako banakako plan batetik bestera mugitzea.**

Aurrezpen sistematikorako plan baten hornidura matematiko guztia edo zati bat beste horrelako plan batera aldatuz gero, aldaketa horri dagokionez araudi honetako 63. artikuluko 3. idatz-zatian, aurreikuspen plan aseguratuei buruzkoan, xedatzen dena jarraituko da, aplikagarria zaion heinean.

**Bosgarrena. Jarduera ekonomikoen sarreren eta gastuen aldi-egozketa.**

Zergari buruzko Foru Arauko 57. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letran ezarritakoaren ondorioetarako, zergadun bat, beren-beregi onesten diren arauzko xedapenen arabera, ez badago behartuta eragiketa ekonomikoen erregistro liburuaren edukia dakarren aitorpen informatiboa aurkeztera, orduan kobrantzen eta ordainketen irizpidea aukeratu ahal izango du zergaren autolikidazioan.

**Seigarrena. Lanbide-jardueren etekin jakin batzuen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak.**

...

**Zazpigarren xedapen gehigarria. Epe luzerako aurrezki-planen arteko mobilizazioa.**

Zergari buruzko Foru Arauko hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriko 5. zenbakian xedatutakoarekin bat, epe luzerako aurrezki-plan baten titularrak osorik mobilizatu ahal izango ditu bere titulartasuneko beste epe luzerako aurrezki-plan batera epe luzerako aurrezkiko aseguru indibidualaren eskubide ekonomikoak nahiz epe luzerako aurrezkiko kontu indibidualean eratutako funtsak -horrek ez du esan nahi baliabideak erabiliko dituenik-, Zergari buruzko Foru Arauko 9. zenbakiko 32. zenbakian eta xedapen gehigarri horretako 1. zenbakiko b) letran ezarritako ondorioetarako. Mobilizazio horrek, baina, baldintza batzuk izango ditu:

Ezin izango da mobilizaziorik egin baldin eta enbargo edo pignorazioren bat edo legezko xedapen batek edo kontratu batek jarritako mugaren bat badago eskubide ekonomikoen edo funtsen gainean.

Mobilizazioa egiteko, epe luzerako aurrezki-planaren titularrak helburuko aseguru- edo kreditu-entitatera jo behar du, eta bertan aurkeztu behar ditu eskaera, jatorrizko epe luzerako aurrezki-planaren identifikazioa eta jatorrizko entitatearen identifikazioa.Eskaerarekin batera, jatorrizko entitateari zuzendutako jakinarazpena aurkeztuko da, entitateak mobilizazioa egin dadila agindu dezan. Gainera, epe luzerako aurrezki-planaren titularrak helburuko entitateari emandako baimena jasoko da, zeinaren bidez entitateak titularraren izenean jatorrizko entitateari eskatu ahal izango dion mobilizazioa eta behar duen informazio finantzario eta fiskal guztia. Zehazki, jatorrizko entitateak jakinarazi behar du zer egunetan ireki zen epe luzerako aurrezki-plana eta zer ekarpen egin diren kasuan kasuko urtean. Horrez gainera, berezita adieraziko du plana ireki zenetik sortu diren kapital higigarriaren etekin positiboen eta negatiboen zenbateko osoa, mobilizazioaren ondorioz sor zitezkeenak barne.

Helburuko entitateak berariaz eta modu nabarmenean ohartarazi behar dio zergadunari mobilizazioaren zenbatekoa jatorrizko entitateak bermatutako zenbatekoa baino txikiagoa izan daitekeela epe luzerako aurrezki-plana edo epe luzerako aurrezkiko aseguru indibiduala gauzatu den aseguru-, gordailu- edo finantzakontratuaren baldintzen arabera.

Baldin eta hitzarmen edo kontraturik badago mobilizazioak egiteko eskaerak bitartekarien bidez edo beste entitate batzuetako sare komertzialen bidez kudeatzeko, eskaera establezimendu horietako edozeinetan aurkeztea helburuko entitatean egindakotzat hartuko da.

Beharrezko dokumentazio guztia lortzen duenetik aurrera, helburuko entitateak bost egun balioduneko epea izango du, gehienez, mobilizazioa egiteko arauz ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko eta jatorrizko entitateari eskaeraren berri emateko; zehazki, honako informazio hau emango dio gutxienez: helburuko epe luzerako aurrezki-plana, helburuko entitatea eta transferentzia egin behar den kontuaren datuak.

Eskaera eta beharrezko dokumentazioa jasotzen dituenetik aurrera, jatorrizko entitateak hamar egun balioduneko epea izango du, gehienez, banku-transferentzia agintzeko eta helburuko entitateari plana intsualdatzeko behar den dokumentazio finantzario eta fiskal guztia bidaltzeko.

Funtsen intsuldaketaren ondorioz ezin izango zaio aplikatu penalizaziorik, gasturik edo deskonturik mobilizazioaren zenbatekoari. Ildo horretan, epe luzerako aurrezkiko aseguru indibiduala izanik, hornidura matematikoaren zenbatekoaren arabera edo esleitutako aktiboen merkatu-balioaren arabera baloratuko dira eskubide ekonomikoak.

Xedapen gehigarri honetan aipatzen diren mobilizatze-prozeduretan baimena ematen da intsuldaketarako eskaeraren transmisioa, eskudiruaren transferentzia eta entitate parte-hartzaileen arteko informazio-trukatzea Konpentsazio Elektronikoko Sistema Nazionalaren bidez egiteko, hain zuzen, sistema horretan kasu hauetarako prestatuko diren eragiketen bidez.

**Zortzigarren Xedapen Gehigarria. Biziarteko errenta aseguratuen kontratuei dagozkien itzultze-mekanismoak, prestaziorako epe jakinak edo kontraaseguru-formulak.**

Zergari buruzko Foru Arauaren 42. artikuluko f) letran eta laugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren biziarteko errenta aseguratuen kontratuen gainean itzultze- mekanismoak, prestaziorako epe jakinak edo kontra-aseguru-formulak badaude heriotza gertatzen denerako, betekizun hauek bete beharko dira:

a) Aseguratua hiltzen den kasuetarako itzultze-mekanismoak daudenean, itzultzea eragin duen biziarteko errentaren onuradun potentzial bakarra egon ahal izango da.

b) Prestaziorako epe jakinen kasuan, epe horiek 10 urtekoak izan daitezke gehienez, biziarteko errenta eratu zenetik.

c) Kontraaseguru-formulen kasuan, aseguratua hiltzearen ondorioz guztira jaso daitekeen kopurua ez da izango ehuneko hauetatik gorakoa, biziarteko errenta eratzeko erabilitako zenbatekoa kontuan hartuta:

| Urteak, biziarteko errentaren eraketatik | Portzentajea (%) |
|---|---|
| 1.a | 95 |
| 2.a | 90 |
| 3.a | 85 |
| 4.a | 80 |
| 5.a | 75 |
| 6.a | 70 |
| 7.a | 65 |

| | |
|---|---|
| 8.a | 60 |
| 9.a | 55 |
| 10.etik aurrera | 50 |

**Bederatzigarren Xedapen Gehigarria. Aldaketa terminologikoa**

Araudi honetan autolikidazioaz hitz egiten denean aitorpenaz ari dela ulertuko da.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

**Lehenengoa. 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratu eta jarduera ekonomiko bati loturik egon diren elementuen ondoriozko ondare-irabaziak.**

Ondare-elementuak eskualdatzen badira, baldin eta elementuoi, eskualdatu aurretik, jarduerarekin zuten lotura kendu bazaie, Zergari buruzko Foru Arauko 27. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta elementuok 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratu badira, orduan, ondare-irabaziak murriztu egingo dira, Zergari buruzko Foru Arauko lehenengo xedapen iragankorreko Bat idatz-zatiko 1. erregelan ezarritakoaren arabera, elementuok eskuratu ziren eguna kontuan hartuz.

Dena den, aurreko lerroaldean xedatzen dena ez zaie aplikatuko Zergari buruzko Foru Arauko lehenengo xedapen iragankorreko Bi idatz-zatian aipatzen diren eskualdaketei.

**Bigarrena. Kapital higigarriaren etekinen eta ondare-irabazien gaineko atxikipenak direla-eta sartu diren aldaketen araubide iragankorra.**

1. Etekin esplizituko finantza-aktiboen eskualdaketa, amortizazio edo itzulketen kasuan, 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera formalizatu diren eragiketei aplikatuko zaie atxikitzeko betebeharra.

   1999ko urtarrilaren 1a baino lehen jaulkitako etekin esplizituko finantza-aktiboen eskualdaketetan, eskuraketa prezioa frogatzen ez bada, aktiboaren jaulkipen-balioaren eta eskualdaketa prezioaren arteko diferentziaren gainean egingo da atxikipena.

   Ez zaie atxikipenik egingo 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen jaulkitako herri zorraren baloreak eskualdatu, trukatu edo amortizatzetik datozen etekinei, baldin eta etekinok data hori baino lehen atxikipenpean egon ez badira.

2. 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera etekin esplizituak jaso badira, eta haien likidazioa hamabi hilabetetik gorakoa denez gero konturako sarrerak egin badira, orduan, etekin esplizituak galdagarriak diren unean indarrean dagoen tasaren arabera egingo da behin betiko atxikipena, eta aurretik egin diren konturako sarrerak aintzat hartuz erregularizatuko da.

**Hirugarrena. Banakako bizitza-aseguruen edo baliaezintasun-aseguruen kontratuei aplikatu beharreko zerga-konpentsazioa.**

…

**Laugarrena.Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan 2015. urtean aplikatuko diren atxikipen-tasak eta konturako sarreren tasak.**

Atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra 2015eko uztailaren 12a baino lehen sortu bada, ez da aplikatuko 89. eta 98. artikuluetan zein 100. artikuluko 2. zenbakian ezarritako portzentajea, alegia, % 19a, % 20a baizik. Atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra egun horretatik aurrera sortu bada, aldiz, % 19,5 aplikatuko da atxikipena edo konturako sarrera egiteko.

**Bosgarrena. 2015. urterako atxikipen-tasak,hala inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatuta edo itzulita lortutako ondare-irabazien gainekoak nola higiezinen errentamenduen eta azpierrentamenduen gainekoak.**

Atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra 2015eko irailaren 1a baino lehen sortu bada, ez da aplikatuko 95. eta 99. artikuluetan ezarritako portzentajea, alegia, % 19a, % 20 baizik. Atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra egun horretatik aurrera sortu bada, aldiz, % 19,5 aplikatuko da atxikipena edo konturako sarrera egiteko.

**Seigarrena. Lanbide-jardueren etekinei 2015ean aplikatu beharreko atxikipen-tasak.**

2015eko uztailaren 12a baino lehen ordaindutako etekinei araudi honetako 94. artikuluko 1. zenbakian ezartzen diren % 19ko eta % 9ko atxikipen-portzentajeak aplikatuko zaizkie. Egun horretatik aurrera ordaintzen diren etekinei aplikatu beharreko atxikipen-portzentajeak, berriz, % 15 eta % 7 izango dira, hurrenez hurren.

**Zazpigarrena. 2019ko apirilaren 1a baino lehenagoko biziarteko errenta aseguratuen kontratuei dagozkien itzultze-mekanismoak, prestaziorako epe jakinak edo kontraaseguru-formulak.**

Erregelamendu honen zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa ez zaie aplikatuko biziarteko errenta aseguratu gisa jasotzen diren bizi-aseguruei 2019ko apirilaren 1a baino lehen sinatu badira.

**Zortzigarrena. Komunikazioak**

...